# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-10-21
EGUBAKOITZA
482. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM




LEIRE KORTABARRIA

## Sustrai Aloña EBA ligarako gertu

Domekan egingo du debuta, 18:00etan, kiroldegian | 36

**GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN**
Etxebizitzak eta dekorazioa | 17




Bihar Bilbon egingo den bilkurarako dei egin dute | 9



Arizmendiarrietari buruzko berbaldiak hilaren 26tik 29ra | 9

# ETAk behin-betiko amaitu du jarduera armatua




ETAko kideak atzo agiria irakurtzen. | BERRIA.INFO

- Espainia eta Frantziako gobernuei dei egin die gatazkaren konponbiderako "elkarrizketa prozesu zuzena" zabaltzeko
- Euskal gizarteari ere egin diote dei atzo iluntzean kaleratutako agirian, "konponbide prozesuan murgil dadin"
- Hainbat debagoiendarren erreakzioak jaso ditugu; pozik hartu dute agiria eta aro berri baten atarian gaudela diote | 8

## ETAren adierazpena

Euskadi Ta Askatasunak, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, Adierazpen honen bidez bere erabakiaren berri eman nahi dio Euskal Herriari:

Euskal Herrian burutu berri den Nazioarteko Konferentzia garrantzi politiko handiko ekimena dela deritzogu. Adostutako ebazpenak gatazkaren konponbide osorako osagaiak biltzen ditu eta nazioartearen eta euskal jendartearen sektore anitzen babesa du.

Euskal Herrian aro politiko berri bat zabaltzen ari da. Mendetako gatazka politikoari konponbide justu eta demokratikoa emateko aukera historikoa dago. Indarkeria eta errepresioaren aurrean elkarrizketak eta akordioak ezaugarritu behar dute aro berria. Euskal Herriaren aitortza eta herri borondatearekiko begirunea ukazioari gailendu behar zaizkio. Hori da euskal herritarren gehiengoaren nahia.

Urte luzeetako borrokak sortu du aukera. Ez da bide erraza izan. Borrokaren gogorrak burkide asko betiko eraman dizkigu. Beste asko espetxea edo erbestea pairatzen ari dira. Bihoakie guztiei gure aitortza eta omenaldirik sentituena.

Hemendik aurrerako bidea ere ez da erraza izango. Oraindik orain dirauen zapalkuntzaren aurrean, urrats bakoitza, lorpen bakoitza, euskal herritarren ahalegin eta borrokaren emaitza izango da. Bide honi ekiteko Euskal Herriak aski esperientzia eta indar metatu du urteotan eta badu horretarako erabakitasuna ere.

Etorkizunari itxaropenez begiratzeko unea da. Baita ausardiaz eta arduraz jokatzeko unea ere.

Honenbestez,

ETAk bere jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki du. ETAk Espainia eta Frantziako gobernuei dei egiten die, gatazkaren ondorioei konponbide ematea helburu izango duen elkarrizketa prozesu zuzena zabaltzeko, konfrontazio armatua gainditu ahal izateko. Adierazpen historiko honekin ETAk bere konpromiso argi, sendo eta behin-betikoa erakusten du.

ETAk, azkenik, euskal jendarteari dei egiten dio konponbide prozesuan murgil dadin, bake eta askatasun agertoki bat sortu arte.

**GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!**
**GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!**
**JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!**

*Euskal Herrian, 2011ko urriaren 20an*
*Euskadi Ta Askatasuna*
*E.T.A.*

EUSKADI TA ASKATASUNA E.T.A.

**EUSKAL GATAZKA DEBAGOIENEAN**
AZKEN 40 URTEEI BEGIRATUA
ERREPORTAJE ZABALEAN | 2

**JONAN FERNANDEZ**
BAKETIK FUNDAZIOKO ZUZENDARIARI
ELKARRIZKETA | 6

## SINADURAK


ENEIDA ITURBE | 10
10 | GOIATZ ARANA
ANDER ETXEBERRIA | 12
32 | MARIJO PAGALDAI
MIKEL IRIZAR | 48

ASTEKO GAIA 2 | ELKARRIZKETA 6
DEBAGOIENA 8 | IRITZIA 10 | HERRIAK 11
KIROLA 36 | KULTURA 39 | ZURE IRAGARKIAK 43
TELEBISTA-IRRATIA 44 | ESKELAK 44
EZKONTZAK 45 | NON-ZER 46



OKENDO
natura-konfort

Ireki BERRIA

- larruzko sofak
- alfonbrak
- lanparak
- altzariak
- koadroak
- osagarriak





maalako errebala 13 • ARRASATE • Tel.: 943 79 92 76

# Min handia batean eta bestean

ETAk jardun armatua behin-betiko amaitutzat ematea erabaki ostean, gatazkaren ondorioak aztertu eta berradiskidetzea lantzeko sasoia doa irekitzera. Badago zer egin, baina etorkizun hobe batek merezi du.

ETAk Arantzazun hildako hiru Guardia Zibiletako baten hilkutxa, jende artean.



GOIENA

1975




GOIENA

Iñaki Etxabe arrasatearra; Kanpazarko bere jatetxean hil zuten.

1975

Milaka lagunek egin zioten harrera Txomin Iturberen gorpuari Arrasaten.

GOIENA | ARRASATE

70eko eta 80ko hamarkadetan izan ziren ETAren ekintza gehien eta ondorio larrienak utzi zitutenak Debagoienean. Guardia Zibila izan zen urte haietan euskal erakunde armatuaren jomuga nagusia. ETAk zortzi guardia zibil hil zituen Oñatin –eta Angel Astuy udaltzaina ere bai–, sei Arrasaten eta bi Aretxabaletan: hamasei guztira, hamaika erasotan.

**Lehen atentatuak**

Arrasaten izan zen Guardia Zibilaren kontra ETAk Debagoienean egindako erasoetan hildakoak eragin zituen aurrenekoa. 1974ko abenduaren 17a zen. ETAko hainbat kide zihoazen auto baten, eta Ferixaleku kalean metraileta tiroz josi zituzten Argimiro Garcia eta Luis Santos guardia zibilak; 50 urte zituen aurrenekoak eta 52 bigarrenak, jatorriz Salamancakoak biak.

Hildako gehien utzi zituen Guardia Zibilaren kontrako atentatua, baina, hurrengo urtean iritsi zen, 1975eko urriaren 5ean. Francoren azken arnasak ziren. Astebete lehenago –irailaren 27an– fusilatuak zituzten *Txiki*, Otaegi eta FRAPeko hiru kide komunista. Urriaren 5 hartan Arantzazutik Oñatirako errepidean behera zihoan Land Rover baten kontrako erasoa egin zuen ETAk. Lehergailua leherrarazi eta hiru guardia zibil hil zituzten, eta beste bi larri zauritu. Arrasateko kuartelekoak ziren; egun hartan bertan, ordu gutxira, beste atentatu bat ere gertatu zen Arrasaten.

Kanpanzarko ostatuan izan zen. Ostatuko jabe Iñaki Etxabe arrasatearra hil zuten tiroz –aurretik ere jasanak zituen hainbat eraso–, ETAko buru izandako Juan Jose Etxabe *Haundixe*-ren anaia. Iñaki Etxaberen hilketak, gainera, segida izan zuen. Astebete geroago hilda agertu zen German Agirre taxilari bergararra, Etxaberen hilketaren lekuko izan omen zena.

Zibilen hilketekin jarraituz, Bergarako senar-emazte batzuk ere badira zerrendan: 1982ko urriaren 16a. Maria Angeles Larrañaga eta Victoriano Agiriano metrailetaz hil zituzten Gasteizen, Segurtasun Indarrek Gamarran jarritako kontrol batean.

**Zibil gehiagoren hilketak**

Baina alde batekoek bakarrik ez zituzten zibilak hil sasoi hartan. ETAk ere hainbat atentatu burutu zituen herritarren kontra Debagoienean. 1978an Luis Candendo –Bergarako Labe Garaietako langilea eta Union de Centro Democratico (UCD) alderdiko militantea– hil zuten Antzuolan. Herri berean Jose Fernando Artola –hernaniarra sortzez– merkataritza ordezkaria hurrengo urtean –indar polizialen konfidente izatea egozten ziotela jaso zuten garai hartako egunkariek–, Luis Berasategi industriala Bergaran eta Juan Luis Agirreurreta Arrasaten. 1980an beste hiru zibil izan ziren erailak: Bergaran Luis Dominguez eta Ramon Ledo txapista eta Jose Artero marmolista Eskoriatzan.

Guardia Zibilek hildako herritarrez eta ETAk hildakoez gain, badira alde bietako erakunde armatuen arteko enfrentamenduan euren burua –nahi izan gabe– nahastuta ikusi zuten biktimak ere. Guardia Zibilaren eta Komando Autonomo Antikapitalisten arteko enfrentamenduan, kasu honetan: KAAko hiru kidek metrailetaz erasoa egin zuten 1978ko azaroaren 15ean Guardia Zibilaren Aretxabaletako kuartelaren kontra. Guardia zibilek jarraitu egin zieten, eta Arrasaten atzeman. Tiroketa izan zuten. Jose Mari Iturriotz Legorretakoa eta Roberto Aranburu arrasatearra hil ziren enfrentamenduan, eta hirugarren kidea larri zauritu. Gertakarien lekura Arrasateko kuarteleko guardia zibilak ere iritsi eta, erratuta, Aretxabaletakoei –kaleko jantzita zihoazen– tiro egin zieten. Tiroketa hartan Emilia Larrea herritarra harrapatu zuten tartean –etxeko atean zegoen, gertakarietatik 100 metrora–; hil egin zuten. Beste hiru herritar ere zauritu zituzten, kaleetan tiroka KAAko hirugarren kideari jarraitzen ari zirela.

**ETAren azkena, 20 urtean**

Oñatiko kuarteleko bi Guardia Zibil hil zituena izan zen –1987ko uztailaren 14an, beste bi ere zauritu ziren larri– hogeitik gora urtean –2008an, Arrasaten, Isaias Carrasco erail zutenera arte– Debagoienean hildakoak eragin zituen ETAren azkeneko atentatua. Antonio Lopez eta Pedro Calderas guardia zibilak hil ziren ekintza hartan.

Urte horietan guztietan gure bailaran izandako atentatuen artean, epaitegiek frogatutzat jo zuten hainbat kasutan egileak zeintzuk izan ziren, eta hilketetako batzuk ETAko militante debagoiendarrei egotzi zizkieten, eta urteetako kartzela zigorreta-

## Etxabetarrak eta German Agirre

1975eko urriaren 5ean, ETAk Arantzazun hiru Guardia Zibil hil eta ordu gutxira, tiroz hil zuten Arrasaten Iñaki Etxabe, Kanpazar gaineko bere jatetxean. ETAko buru izandako Juan Jose Etxabe *Haundixe*-ren anaietako bat zen Iñaki. Juan Josek berak eta Jokin beste anaiak –errefuxiatuak biak– ere jasan zituzten hainbat eraso; eurek eta familiakoek –Iparraldean zituzten tabernen kontra ere egin izan zuten–. Horietako baten, 1978ko udan, emaztearekin batera tirokatua izan zen Juan Jose Etxabe; Rosario Arregi emaztea –arrasatearra hau ere– hil eta bera larri zauritu zen. Triple A deitutako taldeak aldarrikatu zuen ekintza. Rosario Arregi eraila, 1978an, Iñaki Etxabe hil eta hiru urte eskasera. Iñaki Etxaberen hilketak, gainera, segida izan zuen. German Agirre bergararra. Taxista Arrasaten. Etxaberen hilketaren testigu izan omen zen; ostatuan zegoen, antza, gertatu zenean. Zenbait iturriren arabera German Agirrek ezagutu egin zituen hiltzaileak, Arrasateko kuarteleko Guardia Zibilak omen; astebete geroago bera agertu zen hilda, Legution. Gertatu zena hain argi ez egonda, ETAren biktimen artean ere sartu izan dute German Agirre –polizien konfidente izan zitekeelakoan–, baina bere izena –Etxaberena ere bai– talde parapolizialek, ultrek eta bestelakoek hildakoen artean ageri da, Eusko Legegiltzarraren txostenean.



KEPA ORMAETXEA

1987



AUÑAMENDI

Joseba Arregi Erostarberen atxiloketa gertatu zen etxea, Bidarten.

1992



GOIENA

Jose Antonio Ortega Lara, bahiketa amaitu eta gutxira.

1997

ra kondenatu zituzten ondorioz –beste zenbait kasutan, erakunde armatuko militante debagoiendarrak izan dira zigortuak bailaratik kanpo burututako odol-delituengatik–.

**GALek eta poliziak hildakoak**

Beste aldean, garaitsu hartakoak dira, baita ere, GALen azken ekintzak. Xabier Perez de Arenatza aretxabaletarra Herri Batasuneko militantea zen 1982an poliziak Gasteizen atxilotu zuenean. Espainiako Auzitegi Nazionalak libre utzi zuen denbora laburrerra eta Perez de Arenatza Iparraldean errefuxiatu zen. GALek hil zuen, Biarritzen, 1984ko martxoaren 23an.

Aurretik, 1979an, Jose Manuel Pagoaga *Peixoto* ETAko buruzagi izandakoa larri zauritu zuten Donibane Lohizunen (Batallon Vasco Español eta Triple A erakundeek hartu zuten beren gain), eta Angel Iturbe –aurrekoa bezala arrasatearra– ere bai Angelun (BVE).

Baina badira ETAko kide debagoiendar gehiago bestelako egoeratan hildakoak:

Jose Luis Mondragon *Moriko* arrasatearra 1974an: Espainiako Segurtasun Indarren tranpan erori eta Hondarribiko hondartzan tirokatu eta hil zuten; Jesus Mari Markiegi *Mutriku*, arrasatearra hura ere, 1975ean: Guardia Zibilarekin enfrentamenduan hil zen, Gernikan. Markiegi etxean hartua zuten bi lagunak eta Guardia Zibil bat ere hil ziren tiroketan; Pakito Arriaran, beste arrasatear bat, El Salvadorren 1984an: Amerriketara ihes egin zuen, eta gerrillaren borrokara batu. Armadak hil zuen; Susana Arregi oñatiarra, 1990ean Irunberrin, Guardia Zibila tartean zela, oraindik guztiz argitu gabeko zirkunstantzietan hila.

Hamar urte lehenago ere, 1980. urtean, bi aldeetako kide bana ziren hilak Gaintzurizketako mendatean, nahiz eta modu desberdinean: Francisco Javier Arantzeta elgetarrak eta haren kideek autobusa abordatu zuten eta bertan zihoan guardia zibil bat tiroz hil. Han zegoen beste polizia batek Arantzeta hil zuen. Greba orokorrarekin hartu zuten hilotza Elgetan, baina gobernadore zibilak eta poliziak eragotzi egin zuten zerraldoa udaletxean hartzea eta ikurrina haga (asta) erdian jartzea.

Azken heriotza 1994an izan zen: Anjel Irazabalbeitia bergararrak eta ekintza-lagunek, euren atentatu asmoetan huts egin eta ihesi zihoazela, Ertzaintzarekin egin zuten topo. Tiroketa izan eta bertan hil zen Irazabalbeitia.

Gertakari haren aurretik, Angel Fernandez oñatiarra (1983an) esku artean zerabilen lehergailuak eztanda eginda hil zen; urte berean, antzerako gertakariz hil ziren Arrasaten Felix Badiola eibartarra eta Jose Garate elgoibartarra.

Josu Retolatza elgetarra, berriz, 1987ko maiatzean hil zen, etxean. Minbizia diagnostikatu zioten espetxean zela. Haren egoerak bueltarik ez zuela utzi zuten kalean.

**Txomin Iturberen heriotza**

Eta hildako ETAko kide debagoiendarren artean ezin aipatu gabe utzi Txomin Iturbe, erakunde armatuko buru arrasatearra. ETAren solaskide 1977an Txibertan, 1984an Felipe Gonzalez Espainiako presidentearekin Parisen eta 1986 eta 1987an Aljeriako aurreneko negoziazioetan –han egon zen deportatuta, 1986an Frantziako poliziak atxilotu eta gero–, aurreko urteetan Iparraldean hainbat atentaturen jomuga –Maite Ormaetxea emazte arrasatearrarekin eta bien semeekin batera–, 1987an hil zen Afrika iparraldeko herrialdean. Aljeriako Gobernuak emandako bertsio ofizialaren arabera, auto istripuan hil zen; Iturberen senitartekoek, baina, orain dela urte batzuk jakin zuten zer gertatu zitzaion: babesleku moduan erabiltzeko, kanpandorre bateko teilatuan omen zebilen lanean, zorabiatu eta goitik behera erori zen. Buruzagi "gogorragoen"

**1974an izan zen hildakoak eragin zituen ETAren lehen atentatua bailaran**

**Labe Garaietako langilea zen 1978an ETAk hildako Luis Candendo**

**Etxeko atean zegoen Emilia Larrea, Guardia Zibilak hil zuenean**

## Irunberri: argitu gabe oraindik

Ekainaren 25a zen, 1990ean. Irunberriko arroilan Guardia Zibila eta ETAko komando bateko hiru kide, Susana Arregi oñatiarra tartean: Guardia Zibil bat eta ETAko bi kide hilak, eta hirugarrena larri zaurituta. Hildako Guardia Zibila, ETAko militanteekin aurrena topo egin zutenean.

Errefortzuak bidali zituzten arroilara. Ekainaren 25eko iluntze hartan agertu zen, larri zaurituta, German Rubenach, ETAko kideetako bat. Susana Arregiren eta Jon Lizarralderen gorpuak hurrengo goizean agertu ziren, buruan tiroak zituztela. Bertsio ofizialaren arabera, komandoko kideek harrapatuta ikusi zuten euren burua, eta Rubenach izan zen lagunei tiro egin ziena: "Baimendutako homizidioa".

Rubenachek amnesia izan zuen tiroketa eta gero; ezer gogoratu ez, hortaz. Baina Espainiako Auzitegi Nazionalak berak ere ez zuen bertsio ofiziala babestu, eta errugabetu egin zuen Rubenach. Gertakari haietan, Guardia Zibilak itxita izan omen zituen, ia egunbetez, arroilako sarrera-irteerak. Arregi eta Lizarralderen gorpuak Rubenach atxilotu zuten lekutik 15 metrora agertu ei ziren. Baina orduetara eman zuten aurkikuntzaren berri. Lizarralderen gorpuak –ibaian erdi urperatua agertu zen– ura omen zuen barrenean, eta Arregik bi tiro buruan.



Debagoienean ere bilkura jendetsuak egin ziren Miguel Angel Blancoren hilketa salatzeko; argazkian, Arrasate.

ARTXIBOA





Hildako militanteei omenaldia Arrasaten, Gudari Egunean.

TXOMIN MADINA




Isaias Carrascoren senideak eta alderdi sozialistako kideak, protesta ekintzetan.

1997 — 2007 — 2008

aurrean negoziazioaren aldekoagotzat hartua izan zen Txomin Iturbe eta, egunetako tramiteen ondoren, haren gorpua Arrasatera ekarri zutenean milaka lagunek egin zioten harrera.

Txomin Iturbe eta aurretik aipatutakoez gain, beste hainbat debagoiendar ere izan dira ETAren buruzagitzan. Buruzagi izan eta poliziak atxilotutakoen artean daude Joseba Arregi Erostarbe *Fiti* oñatiarra eta Marixol Iparragirre *Anboto* eskoriatzarra.

1992ko martxoan ETAren kontrako operazio garrantzitsuenetakotzat hartua izan dena egin zuen Frantziako poliziak Bidarten, Lapurdin. ETAren buru nagusiak atxilotu zituzten, Arregi oñatiarra tartean. ETAren kontrako hurrengo "kolpe handia" 2004an izan zen: Marixol Iparragirre eskoriatzarra –Mikel Albisu, *Mikel Antza*, bikotekidearekin, hura ere erakundeko buru– atxilotu zuten Biarnon. Iparragirre Lyongo espetxean (Frantzia) dago preso; Arregi, berriz, Jaenen.

**Bailaran 29 preso**

Iparragirre eta Arregi dira gaur egun kartzelaratuta dauden 29 preso debagoiendarretatik bi. Espetxean dauden horien artean, dena den, izaera askotariko presoak daude: ETAko kide izateagatik atxilotu zituztenak, baita gazte erakunde edo bestelakoetako kide izateagatik kartzelaratuak ere. 29 preso horietatik 11 dira Arrasatekoak, zortzi Bergarakoak –Jose Luis Elkoro kontuan hartu gabe; espetxealdi arindu egoeran dago Elkoro–, lau Oñatikoak, hiru Eskoriatzakoak, bi Aretxabaletakoak eta bat Antzuolakoa.

Gaixotasun larri eta sendaezina izan arren, Espainiako Kode Penalaren 92. artikuluaren aplikazioa ukatuta, kartzelan jarraitzen du, gaur egun, Josu Uribetxebarria arrasatearrak. Bestalde, kondena 2006 eta 2007. urteetan bete zuten arren, *Parot doktrina* aplikatuta zigorra luzatu ondoren, preso daude (2018 urtera arte), baita ere, Jose Ignacio Gaztañaga –Arrasatekoa hau ere– eta Luis Mari Azkargorta *Kanto* bergararra.

Jon Agirre *Elurtxuri* aramaioarrari ere luzatu egin zioten zigorra. 2006. urtean atera behar zuen kartzelatik, baina aurtengo maiatzean irten da. Kartzelan denbora luzeen egin duen euskal presoetarikoa da Jon Agirre –30 urte egin ditu–. Bada, dena den, beste debagoiendar bat kartzelan denbora luzeagoa daramana –barruan jarraitzen du–: Jesus Mari Zabarte *Garratz* arrasatearra 1984ko ekainaren 15a ezkero dago preso, eta aurretik 1973 eta 1977 artean eta 1978-79an ere egon zen. Joxepa Arregi amak, Etxerateko presidente eta presoen aldeko borrokaren ikurrak, ez zuen semea kalean ikusterik izan, iaz maiatzean hil zen-eta.

**Natividad Junco, bidean hila**

Joxepa Arregik ere errepidean makina bat kilometro egin zituen urte luzez semea ikustera joateko, euskal presoen beste ehunka senide eta lagunek bezala, dispertsio-politikaren ondorioz. Etxeraten arabera, familia bakoitzak, batez beste, 1.200 kilometro egiten ditu astero senide presoa ikustera joateko; asteko 400 euroko diru gastua dakar horrek, batez beste, familia bakoitzarentzat.

Istripuak dira, baina, hainbeste joan-etorriren ondorioz senideek jasan ditzaketen ondorio larrienak: 2007ko abenduaren 25ean Natividad Junco oñatiarra hil zen, Teruelgo espetxetik senide bat bisitatzetik zetorrela auto istripua izanda.

**Uruguaiko gertaerak**

Hori presoei dagokienez, baina badira, baita ere, errefuxiatu debagoiendarrak, izandakoak eta oraindik etxera itzuli ez direnak. Izandakoen artean, bere garaian oihartzun handia izan zuten gertaeren erdian izan ziren Uruguaiko errefuxiatuetan bat, Jesus Mari Goitia *Manueltxo*

## Polizia kontrol batean senar-emazte bergararrak hil zituzten 1982an

## Teilatu batetik erorita hil zen Txomin Iturbe arrasatearra Aljerian

## ETAren kontrako kolpe nagusietakoa izan zen Arregi atxilotu zutenekoa

## Ortega Lara, Blanco eta Barajas

Gatazkaren historiako beste hiru gertakari. Jose Antonio Ortega Lara espetxe funtzionarioa Arrasateko tailer bateko zuloan izan zuen gatibu ETAk 532 egunez, 1996 eta 1997 artean. ETAk inoiz egin duen bahiketarik luzeena izan zen. Guardia Zibilak askatu zuen, 1997ko uztailaren 1ean. Askatzearekin bat lau lagun atxilotu zituzten: Jose Miguel Gaztelu, Bergarakoa; Jose Luis Erostegi *Eltzikorta*, Antzuolakoa; Xabier Ugarte, Oñatikoa eta Josu Uribetxeberria Arrasatekoa. Handik ordu batzuetara, Sabino Usandizaga atxilotu zuten Oñatin eta Emilio Arrizabalaga Arrasaten –egunetara beste bi kide ere bai–. Uztail hartan, hilaren 10ean, Miguel Angel Blanco PPren Ermuko zinegotzia bahitu zuen ETAk. Presoak Euskal Herrira hurbiltzea exijitu zuen, eta 48 orduko ultimatuma eman. Erail egin zuten. Erailketa haren ondorioz, zentsura mozioa aurkeztu eta Arrasateko alkatetzatik kendu zuten Herri Batasuneko Xabier Zubizarreta.

2008ko urtarrilekoa, azkenik. Guardia Zibilak Igor Portu eta Mattin Sarasola atxilotu zituen Arrasaten. Portu eta Sarasola kartzelan daude 2006ko abenduaren 30ean T4an egindako atentatuagatik. Atentatu harekin amaitu zen praktikan ETAren aurreko su-etena. Atxilotu zituztenean torturatuak izan zirela salatu zuten, eta lau Guardia Zibil izan ziren zigortuak.





JOSETXO ARANTZABAL



GOIENA

Joxepa Arregi Etxerateko lehendakariari omenaldia, heriotzan.



JOKIN BEREZIARTUA

Jon Agirre aramaioarra, kartzelatik irtetean egindako harreran.

2010

2011

oñatiarra. 1994ko uda zen. Montevideoko La Trainera jatetxea zeramatenen eta bertan ibiltzen ziren bezeroen artean, 30 lagun atxilotu zituen Uruguaiko poliziak. Hauetatik, 13 errefuxiatu prozesatu zituzten azkenean, hamarrendako kartzela zigorra eskatu zuen Espainiak eta hiruren estradizioa agindu, Goitiarena tartean. Gose greba egin zuten errefuxiatuek aginduaren kontra, eta Filtro ospitalera eraman zituzten. Han zeudela, ehunka uruguaitarrek elkartasuna erakutsi zieten kalean, eta saiatu ziren estradizioak eragozten. 30.000 sinadura batu zituzten eta manifestazio handia egin. Poliziak, baina, indarrez erantzun zion protestari; gertakari haien ondorioz bi lagun hil ziren. Errefuxiatuak estraditatu egin zituzten azkenean.

Beste kasu bat, Xanti Iparragirrerena –eskoriatzarra, nahiz eta Errenterian sortua–. Iparraldean errefuxiatu, besteak beste bertsotan irakasten eskoletan zebilena –Hegoaldean ere ibilia zen, lehen bertso eskolen sortzaileetako bat izan zen–, poliziaren jazarpenaren ondorioz 1987an ezkutatu beharrean aurkitua eta lehengo langintzetara itzuli arren 2003an Eskoriatzara bueltatu zena, Espainiako Nortasun Agiri Nazionalik eta pasaporterik gabe, EHNA eskuan. "Erabaki nuen etortzen banintzen lasai bizitzeko izango zela eta hala nago", zioen Xanti Iparragirrek 2008ko elkarrizketa batean.

Hauek gertatu dira denbora honetan Debagoienean; hauek eta beste batzuk: Espainiako Segurtasun Indarren kontrako erasoak; politikarien kontrakoak; bizkartzainarekin ibili beharrak; enpresariei *iraultza zerga* eskaerak; komertzio txiki edo enpresen kontrako atentatuak; mota desberdineko erakundeen kontrakoak –Bergarako epaitegia (ETA) eta Elgetako udaletxea (Batallon Vasco Español)–; Segurtasun Indarrek, errepide kontroletan adibidez, tiroz zauritutakoak; ETArekiko lotura arrazoituta alderdi, gazte erakunde edo bestelakoetako kide izateagatik atxiloketa, kartzela zigor eta politikan jardun ezinak; tortura salaketak;... Min handia, batean eta bestean.

## ETAren azken biktima Debagoienean

Hogei urte pasa ziren, Debagoienean, hildakoak eragin zituen ETAren atentatu gabe. 1987ko uztailetik, eta 2008ko martxoaren 7a zen, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetarako bi egun falta, Loiolako elkarrizketek porrot egin osteko garaia. Arrasaten, tiroz hil zuen ETAk Isaias Carrasco, udalerrian alderdi sozialistako zinegotzi izana, kargurik gabea erailketaren unean, autobideko langilea, bidesaria kobratzen lan egiten zuena. Bizkartzaina eramateari uko egina zion, eta bizkarretik jotako hiru tirok hil zuten, Maria Angeles emaztea eta Sandra alaba aurrean zirela. Beste alaba bat eta seme bat ere bazituen Isaias Carrascok. "Nire aita erail dute askatasuna, demokrazia eta sozialisten ideiak defendatzeagatik", adierazi zuen Sandra Carrascok hilketa salatzeko egindako protestan. "Bihotzez" eskertu zuen "Arrasateko herriak familiari emandako babesa". Gertaera hartatik aurrera, Sandra Carrasco bera hasi zen joaten autobideko ordainlekura lanera, aitarena behar zuen lanpostura.

Arrasate bilakatu zen egun haietan ETAren kontrako aldarrikapenen erdigune. Rodriguez Zapatero eta Rajoy eurak ere herrian izan ziren. Baina gertatutakoaren soka luzeagoa izan zen: Ino Galparsoro Arrasateko alkatea kartzelaratua izan zen bi hilabete eskasera; hiru hilabete egin zituen preso.

## Gatazkaren hainbat mugarri

**1975EKO URRIAREN 5A**
ETAren Debagoieneko lehenengo atentatua —hildakoekin— aurreko urtean izan bazen ere, egun hartakoa izan zen gogorrena. Hiru Guardia Zibil hil zituzten Arantzazun. Ordu gutxira, Iñaki Etxabe hil zuten Arrasaten.

**1978KO AZAROAREN 9A**
Luis Candendo UCDko militantea hil zuen ETAk Antzuolan. Erakunde armatuak bailaran hildako lehenengo zibila izan zen.

**1978KO AZAROAREN 15A**
Aretxabaletako kuartelaren kontra atentatua egin eta gero, Guardia Zibilak KAA-ko bi kide —Roberto Aranburu arrasatearra tartean— eta Emilia Larrea herritarra hil zituen Arrasaten.

**1984KO MARTXOAREN 23A**
Xabier Perez de Arenaza errefuxiatu aretxabaletarra erail zuen GALek Biarritzen.

**1987KO MARTXOAREN 3A**
Txomin Iturbe ETAko buru arrasatearra hil zen istripuz Aljerian.

**1992KO MARTXOAREN 29A**
ETAren buruzagitza atxilotu zuen poliziak Bidarten, Joseba Arregi Erostarbe *Fiti* oñatiarra tartean.

**1997KO UZTAILAREN 1A**
Jose Antonio Ortega Lara espetxe funtzionarioa, ETAk Arrasateko zulo batean 532 egunez gatibu izan zuena, askatu zuen Guardia Zibilak.

**2007KO ABENDUAREN 25A**
Natividad Junco oñatiarra hil zen errepide istripuz, Teruelgo espetxetik senide bat bisitatzetik zetorrela.

**2008KO MARTXOAREN 7A**
Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzi izandakoa erail zuen ETAk Arrasaten.

**Jonan Fernandez** | Baketik fundazioko zuzendaria

# "ETAren biolentzia bukatuta, erronka orain bizikidetza da"

## Asteleheneko bilkura benetan "historikoa" izan zela eta oso pozik dagoela dio Baketik-eko zuzendariak


Jonan Fernandez, Baketik fundazioko zuzendaria da sorreratik, duela bost urtetik.

**ENEKO AZKARATE** | ARANTZAZU

Elkarriren sortzaile eta bultzagile nagusia izan zen eta duela bost urte hura laga eta Baketik (Bakea eta Etika) fundazioan murgildu zen buru-belarri, Arantzazun. Pozik da egunotan Fernandez (Tolosa, 1962), bi arrazoirengatik batik bat: zuzentzen duen fundazioak bost urte bete dituelako zapatuan eta Aieteko Bake Konferentziagatik. Asteleheneko nazioarteko bilkura benetan "historikoa" izan zela dio [elkarrizketa martitzenean egina da].

**Aieten eginiko bilkuran nazioarteko begiraleek plazaratu zituzten ondorioen gainean, zer diozu?**

Oso balorazio ona eta positiboa egiten dugu. Askotan, *historiko* berba errazegi erabiltzen dugu denok, baina uste dut aste honetan justifikatuta dagoela. Une historikoan gaude eta asteleheneko Bake Konferentziak garrantzi handia du. Balorazio ezin hobea egiten dut.

**Gehienek txalotu dituzte ekimena eta ondorioak, baina kontra daudenak ere badira; PP, esate baterako...**

Gauza bat da kezkagarria. Erabat ulergarria da norbaitek egoera honetan esatea zalantzak dituela, ez dela fidatzen. Frustrazio handiak egon direlako. Ulergarria da hori guztia. Normala da. Baina ez da ulergarria gezurrak esatea, erasoak egitea, gertatu ez dena esatea gertatu dela... Susmagarria da. Zergatik egiten dute hori? ETAren biolentziaren amaieragatik kezkatuta daude? Non dago arazoa? Akaso, adierazpenean planteatu den edukietan. Baina edukiak erabat demokratikoak dira... Lasai nago, ze gaia bideratuta baitago, eta ondo bideratuta, gainera.

**ETAren biktima batzuek ere erabateko kontrako jarrerak erakutsi dituzte Aieteko Bake Konferentziaren gainean. Berradiskidetzeko lan handia dago egiteko?**

Bai. Gauza bat da ETAren biolentzia bukatzea. Eta beste bat bizikidetza eta bakea. Orain ireki beharko da prozesu bat, lasaia, zauriak sendatzeko-eta.

**ETAk urrats hori egiten badu, zein izan beharko luke hurrengoa?**

Gutxienez, hiru lerro irekitzen dira: bata, ETAren eta Gobernuaren artean gai teknikoak jorratzeko; bestetik, berradiskidetze prozesua; eta hirugarrena, politikariei esatea etorkizunean desadostasunean edo zatiketak badaude, denon artean metodologia demokratikoa adostu behar dugula.

**Espainiako eta Frantziako gobernuak urratsak egiteko prestatutasunarekin ikusten dituzu?**

Ez da erraza izango, batez ere Espainian hauteskundeak daudelako eta Espainian politikari askok uste duelako ETAren aurrean tinko agertzeak errentak ematen dietela hautesleen aurrean.

**Biktimek ze paper joka dezakete aurrerantzean?**

Iritzi askotariko biktimak daude, nahiz eta denak iritzi eta linea berekoak direla iruditzen saiatu hedabide asko. Azkeneko bi urteotan biktimen zatiketa politikoa ikusi dugu. Eta hori da desastrea. Horrek adierazten du oso gaizki kudeatu dela biktimen kontua. Biktimek jokatu behar dute paper inportantea, baina ez politikoa. Ez dute guk baino eskubide handiagorik esateko ezkerrera, eskumara, gora edo behera joan behar dugun. Baina badituzte eskubideak, jakina: eskubide morala, eskubide materiala eta eskubide politikoa. Aitortu behar zaie sufrimendua. Bestetik, lagundu behar zaie materialki ere, eta, azkenik, ezin dugu ahaztu memoria historikoa: ezin dugu eraiki etorkizuna iragana kontuan hartzeke. Memoria kritikoa egin behar da. Dena. Ze, hilketa gehienak ETAk egin baititu hemen, baina ez guztiak. Beste hilketa batzuk ere egon dira, beste giza eskubide urraketa batzuk. Eta horiek ere azaleratu egin behar dira.

**Eta presoek?**

Presoak ere denetarikoak daude. Badaude preso daudenak bakarrik ekintza politikoengatik edo iritzizko jarrerak hartzeagatik. Baina zer egin behar dute ekintza armatuetan parte hartu duten ETAko presoek? Bada, ezin zaie ezer eskatu. Kartzelan daude dagokien zigorra betetzen. Orain, parte hartu nahi badute berradiskidetze prozesu batean, komenigarria izango da, batetik, euren iritzia ezagutzea, baina baita autokritika egin dezatela. Giza eskubideen inguruan eta ikuspuntu etiko baten inguruan.

**Barkamena eskatu beharko lukete presoek?**

Paradoxikoa da, baina barkamenak zentzua dauka boluntarioa bada. Ezin da inor behartu barkamena eskatzera. Baina bide batez esan behar da berradiskidetze prozesu batean barkamena eskatzea dela oso garrantzitsua. Boluntarioa bai, baina funtsezkoa ere bai.

**Ez lehendakaria eta ezta Eusko Jaurlaritzako inor ere Bake Konferentzian egon ez izana zela baloratzen duzu?**

Erabakia errespetatu egiten dut. Baina esango nuke une batzuetan jakin behar dela desberdintzen zer den inportanteena eta zer bigarren mailakoa. Une batzuetan, alderdiak, jendartea... batuta agertzea oso inportantea da eta aste hau une horietako bat zen.

**Baketik ez da egon Bake Konferentzian. Zergatik?**

Saiatu gara laguntzen. Ez gara egon ofizialki, uste genuelako une horretan ez zela beharrezkoa gu han egotea. Bilkura hartan batzuek egon behar zuten, ezinbestez; gu, ez. Atzetik, moralki eta praktikan, laguntzen saiatu gara.

**ETAren biolentziaren zikloa ia amaituta dagoen honetan, batzuek garaile eta garaituen eskemarekin tinko jarraitzen dute. Zer diozu?**

Hankasartzea deritzot. Eskema horrek nora garamatza? Bukaera desordenatu batera. Ze, halako eskema batekin, ez baikenuke jakingo noiz amaitzen den ETAren zikloa, noiz bakearen zikloa. Edukiko genuke ETA bat noizbehinka kolpe bat ematen... Bizikidetzarako txarra da hori. Bukaera ordenatu batek, oraingoa modukoak, baldintzak sortzen ditu prozesu on bat sortzeko bizikidetzaren ikuspegitik.

**Hauteskundeak bistan ditugu. Zelan eragin diezaioke bakeari eta normalizazio prozesuari PPk irabazteak hauteskundeak eta erabateko gehiengoa lortzeak?**

Ez da erraza asmatzea, baina, alde batetik, seguruen, PPk keinu batzuk egin beharko ditu sektore batzuk asetzeko. Baina ardura historikoa ere mahaiaren gainean jarriko zaie eta aukera izango dute, hauteskundeak irabazten badituzte, benetako historia honen bukaera kudeatzeko. Pentsatu nahi dut bukaera txukun bat ahalbidetuko dutela eta ez direla eroak izango.

**Lokarrik bultzatu du Aieteko Bake Konferentzia. Bereziki pozik horregatik?**

Bai, zoriontsu izan naiz oraingo astean hainbat arrazoirengatik, baina, batetik, Lokarrik antolatu duelako hau guztia. Datorren urtean 20 urte beteko dira Elkarri sortu zela eta bost dira Elkarri desegin eta Lokarri sortu zela.

**Egin ezagun berba Baketik fundazioaren gainean. Joan zen zapatuan ospatu zenuten bosgarren urteurrena Arantzazun. Zer moduz joan zen dena?**

Eguna ondo joan zen. Ia 200 lagun etorri ziren ekitaldira eta helburuak bete genituen. Baketik-en proiektua birdefinitu eta misioa edo zeregina egoera berrira birkokatzea zen asmoa. Bost urte ez da gehiegi, baina bi aldaketa izugarri gertatu dira: duela bost urte ez geneukan krisirik eta gaur egun sekulakoa da eta mundu osoan, gainera, baita Arantzazun ere. Ereduaren krisia da, gainera; bestetik, bakea, bertan daukagu, orain dela bost urte ez bezala. Bi faktore horiek aintzat hartuta gure proiektua birkokatu nahi dugu.

**Bost urte bete ditu Baketik-ek. Ze balorazio egiten duzue?**

Ona. Kuantitatiboki eta kualitatiboki. 15 proiektu ezberdin

> **"Askotan, 'historiko' berba errazegi erabiltzen dugu; hau une historikoa da"**

> **"Orain ireki beharko da prozesu bat, lasaia, zauriak sendatzeko"**

> **" Paradoxikoa da, baina barkamenak zentzua dauka boluntarioa bada"**

> **"Lasai nago, ze gaia bideratuta baitago, eta ondo bideratuta, gainera"**

> **"Biktimek jokatu behar dute paper inportantea, baina ez politikoa"**

> **"Bizikidetzarako komeni da bukaera ordenatua, oraingoa modukoa"**


Argazkia martitzenekoa da. | ENEKO AZKARATE

abiatu ditugu. Guztiekin pozik gaude, nahiz eta proiektu batzuekin gusturago geratu beste batzuekin baino. Kualitatiboki, bost urteotan Arantzazun, egosi dugu pedagogia bat: hobetzeko pedagogia, *Biziz ikasi*. Etorkizunari begira, elementu ezinbestekoa izango da.

**Sorreran jarri zenituzten helburuak bete dituzue?**

Bai, ze, hasieran, helburu xumeak baitziren. Hasieran, *Bider Mila* proiektua jarri genuen martxan eta helburua zen 1.000 lagun hurbiltzea proiektura. Bada, 3.000 izan ziren. Bestalde, bost urteotan 7.000 lagun igaro dira gure ikastaroetatik; ia 17.000 gazte hurbildu dira Arantzazura Antzerki forumean parte hartzera... Bestalde, lortu dugu bideragarri egitea Baketik eta ez da txantxa. Autofinantzaketa lortu dugu. Baketik-ek badu toki bat euskal jendartean.

**Diozue, "berrabiarazi" duzuela Baketik fundazioa. Zer esan nahi duzue?**

Esan dudan moduan, bi elementu funtsezko aldatu dira azkeneko urteotan eta ezin gaitezke geldi geratu. Krisi ekonomiaren aurrean, aldaketa bultzatu behar dugu. Aldaketa pertsonala, lehenbizi, eta baita aldaketa soziala ere. Bakearen aroan gaude. Baina ze aldaketa eskatzen du horrek? Besteak beste, aldaketa pertsonala eskatzen du. Beste edozein aldaketaren aurrean, aldaketa pertsonala eta soziala bultzatu nahi ditugu.

***Aukera dezakegu* da aurrerantzean erabiliko duzuen leloa...**

Askotan, begiratzen dugunean egoera, mundua, geure bizitza... eta diogunean gauzak ez doazela ondo eta beste modu batera egin behar direla, sarritan, frustrazioa sentitzen dugu, arazo handien aurrean txikiak garelako. Baina ez gara konturatzen gure aginte nagusia dela aukeratu egin dezakegula. Egunero, mila erabaki har ditzakegu, aukeratu egin behar dugu bata edo bestearen artean.

## "PPk aukera du ETAren amaiera dagokion moduan kudeatzeko"

## "Baketik sortu eta bost urtera egoera ezbedina da: krisia eta bakea ditugu"

## "Aginte handia daukagu gauzak aukeratu eta aldatzeko"

Gure esku dago. Eta erabaki horien artean, aldaketa ere badago. Hortaz, aginte handia daukagu eguneroko bizitzan, gauzak aukeratu eta aldatzeko. Gatazken aurrean, erabaki dezaket gorrotoan murgildu, indarrarekin erantzun, elkarrizketa bultzatu, barkatu... Hau da, aukera asko daude; hor dago gure indarra.

**Hurrengo urteetarako zeregina esaldi honetan laburbiltzen duzue: "Norbera eta gizartea aldatzeko baliabide etikoak eskaintzea". Zer esan nahi duzue?**

Aldaketa pertsonal eta sozialerako bitartekoak eskaini nahi ditugu eta bitarteko horien ezaugarriak etikoak izan behar dute. Zela? Aholkularitzaren bidez, dibulgazioaren bidez, proposamenak eskaintzen...

**"Gizarte-eredu berriak bilatzea" premiazkoa dela diozue. Zergatik?**

Krisi batean murgilduta gaude eta krisi horren kausa garrantzitsuena da zoriontasunaren inguruan daukagun ideologia. Lotzen dugu zoriontasuna indibidualismo materialistarekin. Eta horrek dena mugitzen du: ekonomia, politika... baita gure bizimodua ere. Krisi baten aurrean gaudenean, gauzak aldatu beharrean aurkitzen gara. Bide alternatiboak jorratu behar ditugula diogu guk.

**Zelan finantzatzen da Baketik?**

Ikastaroak-eta antolatzen ditugu. Bestetik, gure fundazioak laguntzaileak ditu eta haien ekarpenak egiten dute posible Baketik. Horretaz gain, proiektu zehatzetarako laguntzak jasotzen ditugu. Esaterako, Antzerki foruma finantzatzeko laguntza izan dugu orain arte, baina aurten barik geratu gara. Desafio handia da guretako autofinantzaketari eustea.

**Ze jende mota eta nondik datorkizue, batik bat, ikastaroetara?**

Denetikoa. Jende asko dabil zerbaiten bila. Bizitzari buruzko galderak... Motibazio profesionalengatik ere etortzen da jendea, edo familiako kontuengatik, nerabeekin-eta zela jokatu jakin nahi duelako adibidez.



# ETAren iragarpenak "ilusioa eta poza" sortu ditu herritarrengan

Debagoiendarrek diote aro berri baten hasiera dela eta egun historikoa dela urriaren 20koa

**1.** Zer irizten diozu ETAk betirako uzten duela iragarri izanari?

**2.** Aurrerantzean zer? Ze egin beharko litzateke?


Rafa Gomez. | GOIENA

**RAFA GOMEZ**
AL-ANDALUSEKO PRESIDENTEA

## "Hitz egin behar da orain, baina pistolarik gabe mahai gainean"

**1.** "Oso positiboa da. Ni neu 1977-ko amnistiatik egon naiz pauso horren zain. Orduan egin izan balu ETAk egin berri duena, gauzak oso bestelakoak izango zitezkeen; baina hobe berandu, sekula ez baino".

**2.** "Azaroko hauteskundeek asko baldintzatuko dute etorkizuna. Dena dela, gatazka ez da hemen bukatzen; hitz egin behar da, baina oraingoan, mahai gainean pistolarik gabe. Lehenbailehen hasi behar da elkarrizketa".


Jose Antonio Azpiazu. | GOIENA

**JOSE ANTONIO AZPIAZU**
HISTORIALARIA ETA IDAZLEA

## "Herritarrok zeresan handia izango dugu etorkizunean"

**1.** "Oso adierazpen positiboa da, eta esperotakoa, gainera. ETA bide baten bila zebilen eta ez zuten egokirik topatzen, baina badirudi azken egunotako aurrerapausoek lagundu dutela".

**2.** "Gure esku, jendartearen esku dago etorkizuna, neurri handi baten. Politikaren bidez jarraitu behar da aurrera, baina geuk, herritarrok, zeresan handia izango dugu. Ea, bada, herri gisa lasaitzen garen eta normaltzen garen".


Pello Zabala. | GOIENA

**PELLO ZABALA**
APAIZA

## "Orain ez dute errua nori bota, mugitu beharrean daude"

**1.** "Albiste pozgarria da, zalantza barik. Era berean, baina, normalena eta espero zena zen azken egunetako gertakariak eta talde armatuak azken bi urteetan izan duen jarduna ikusita".

**2.** "Asteleheneko konferentziaren ostean Espainiako medio batzuetan esan direnetako batzuk itzelak izan dira. Azken urteetan ETAri erru guztia bota ostean, orain ez dute izango errua nori bota. Eta beraz, mugitu beharrean daude".


Aitor Zabaleta. | GOIENA

**AITOR ZABALETA**
AUTO GIDARIA

## "Orain Espainia eta Frantziari dagokio urratsa ematea"

**1.** "Oso pozgarria da denondako. Kontuan izan behar da ETArendako erabaki gogorra izan dela, urratsa eman dutela zoriontzekoa da. Konferentziak lagundu du erabakian, baina testuinguru osoaren emaitza da".

**2.** "Gatazkaren beste aldeak agindu izan duena bete egin behar du orain. ETAk eman du, eta orain Espainia eta Frantziari dagokio . Gatazkaren konponbiderako denok batera joatea ezinbestekoa da".


Josu Zabala. | GOIENA

**JOSU ZABALA**
MU-KO ERREKTOREA

## "Ezinbesteko urratsa da bake prozesuarentzat"

**1.** "Autoan Madriletik nentorrela entzun dut albistea. Aspaldian, urtetan itxaroten genuen albiste pozgarria iritsi da azkenean, bake prozesuarentzat ezinbesteko urratsa. Zalantzarik gabe, ETAk jarduera armatua mugarria da guztiondako".

**2.** "Argi dago beste etapa berri baten sartzen garela, Euskal Herriarendako aro berri baten hasiera. Zeharkako gauzak konpontzen joan beharko gara, baina bultzada handia da hau".


Mariasun Pagoaga. | GOIENA

**MARIASUN PAGOAGA**
AKTOREA

## "Orain mahaiaren bueltan jarri beharko gara berba egiteko"

**1.** "Pozik nago, baina guztiok espero genuen komunikatua, erantzuna, dela uste dut. Guztiok gaude bakearen alde. Ea bada, testu horrek zabaltzen duen bidea bizi dugun egoera konpontzeko balio duen".

**2.** "Mahaiaren bueltan jarri beharko ginateke guztiok. Eskuineko alderdiek askotan esan dute ETAk pausuak eman behar zituela. Bada, orain eman du, eta guztiok ados ipintzeko ordua dela uste dut".


Juan Ramon Garai. | GOIENA

**JUAN RAMON GARAI**
INTXORTA 1937-KO KIDEA

## "Erabaki honekin alderdi asko argudio barik geratu dira"

**1.** "Komunikatua espero nuen, baina ez horren azkar. Espainiako Gobernuak pausurik eman ez duela ikusita, txalogarria da ETAren erabakia".

**2.** "Erabaki honekin pertsona asko argudio barik geratu dira. Alderdi asko izan dira ETAren jarduera armatua aprobetxatuz ondo baino hobeto bizi izan direnak. Orain urratsak eman beharko dituzte. Dena den, uste dut lana dugula aurretik egoera konpondu arte".


Elena Laka. | GOIENA

**ELENA LAKA**
ABOKATUA

## "Honek ez dauka atzera bueltarik, erabakia hartuta dago"

**1.** "Oso ondo hartu dut berria. Euskal gizarteak urteak eman ditu agiri honen zain eta azkenean etorri da. Momentu historikoa da, ea horrenbeste sufrimendu behingoz amaitzen den; guztiok merezi dugu bakean bizitzea".

**2.** "Honaino iritsi baldin bagara, nik uste dut borondatea egongo dela alde guztietatik aurrera eroateko. Orain arteko pausuak ez dira alferrikakoak izango. Honek ez dauka atzera bueltarik; erabaki potoloena hartuta dago".


Jabier Retegi. | GOIENA

**JABIER RETEGI**
JAKIUNDEKO KIDEA

## "Moralki berrituta dagoen gizarte berria sortu behar dugu"

**1.** "Oso berri ona da gure herriarentzat. 50 urteko bidea zatarra ixten da; ea bide bide berrian sartzen garen bakea oinarri duen gizarte berria sortzeko. Itxaropen handiz hartu dut erabakia".

**2.** "Giro berria sortzen da, gure arteko borroka baretzen joan behar da. Errurik gabeko jende asko minduta dago, eta hori ahaztea ez da erraza. Moralki berrituta dagoen gizarte berria sortu behar dugu, eta ekonomia aldetik ere borroka egin behar dugu".


Jerardo Elortza. | GOIENA

**JERARDO ELORTZA**
HISTORIALARIA

## "Beste era bateko etorkizuna finkatzeko aukera daukagu"

**1.** "Zalantza barik albiste pozgarria da eta aukera bat, guztion artean beste era bateko etorkizuna finkatzen hasteko. Ea hemendik aurrerako pausuak ez diren okertzen eta benetan garai berri baten atarian gauden. Aspalditik ginen albiste honen zain".

**2.** "Ikusi beharko dugu Madrilen-eta nola hartzen duten ETAren erabakia eta azaroko hauteskundeen ondoren sortzen den gobernuak zer nolako jarrera daukan"



Debagoieneko ordezkari politikoak, talde eragiletako ordezkariak eta norbanakoak Arrasateko agerraldian. | TXOMIN MADINA

# "Euskal Herriak konponbidea nahi duelako", manifestaziorako deia

Bihar egingo dute, Bilbon, eta Debagoienetik autobusak irtengo dira

**T. MADINA/M. BIKUÑA** | ARRASATE

Debagoieneko hainbat herritako ordezkari politikoek, talde eragiletako kideek eta norbanakoek bihar Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egin zuten Arrasaten. Hauxe esan zuten: "Bakea eta normalizazio politikoaren garrantzia kontuan hartuta, herritar guztiei dagokie prozesu horretan parte hartzea".

Biharko manifestaziora joateko autobusak irtengo dira Debagoienetik: Bergaratik 16:00etan autobus geltokitik; Arrasatetik 16:00etan Garibaitik; Eskoriatzatik 15:30ean autobus geltokitik; Aretxabaletatik 15:40ean autobus geltokitik; eta Oñatitik 15:30ean postetxe aurretik.

Gernikako Akordioaren sinatzaile diren eragile politiko, sindikal eta sozialek deituta egingo dute biharko manifestazioa, 17:30etan La Casillatik abiatuta.

**Lau ezaugarri**

Mariasun Pagoaga aktorea izan zen Arrasaten egindako agerraldian parte hartu zutenen bozeramaile. Azaldu zuen Euskal Herrirako nahi den bakeak eta normalizazio politikoak "egiazkoak eta edukiz beteak" izan behar dutela. Era berean, lau ezaugarritan laburbildu zuen Gernikako Akordioa izenpetu duten eragileek nahi duten konponbidea: integrala ("gaztazkaren ezaugarri guztiak kontuan hartuta"); demokratikoa ("pertsona guztien eskubideekiko errespetuzkoa"); galtzailerik gabekoa ("benetako bake eta normalizazioa guztiok irabazle egiteko"); eta elkarrizketatua ("elkarrizketa eta negoziaketa bakea lortzeko bermea duten bitartekoak dira").

**Mugarri nagusiak**

Bestalde, esan zuen lau direla konponbiderako mugarri nagusiak: preso politikoen egoera hobetzea (gaixo daudenak askatzea, Parot doktrina bertan behera uztea...); aukera politiko guztien legalizazioa; erasoen desaktibazioa (epaiketa politikoak geldiaraztea); eta biktima guztien errekonozimendua bultzatzea.



Arizmendiarrieta. | GOIENA

# Arizmendiarria ardatz duten mahai-inguruak egingo dituzte

**M.BIKUÑA** | ARRASATE

Azaroaren 29an beteko dira 35 urte On Jose Maria Arizmendiarrieta hil zela (1976an hil zen, 61 urterekin). Hori horrela, Arrasate eta Bergarako Artziprestaldeak hainbat mahai-inguru antolatu ditu Arizmendiarretaren Lagunen Elkartearekin batera *On Jose Maria Arizmendiarrieta; Elkarkidetzaren Apostolua* izenarekin. Mahai-inguruak Oñatiko Enpresagintza Fakultatean, Aretxabaletako Arkupen, Bergarko Miguel Altuna Institutuan eta Arrasateko Kulturaten egingo dituzte hilaren 26an hasita (ikus ondoko taula).

Askotariko hizlariek parte hartuko dute: apaizek eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko kideek, besteak beste. Azken mahai-inguruan Juan Mari Uriarte Donostiako gotzain ohiak eta Arizmendiarrietaren laguntzaile Jose Mari Ormaetxeak parte hartuko dute.

Urteurreneko ospakizunak bukatzeko, azaroaren 29an meza izango dute Arrasateko parrokian, 19:00etan.

**Kooperatibismoaren alde**

On Jose Maria Arizmendiarrieta 1915eko apirilaren 22an jaio zen. 1934an eskola profesionala sortu zuen Arrasaten, 20 ikaslerekin. Ondoren kooperatiben mugimenduaren bultzatzaile nagusiena izan zen.

## MAHAI-INGURUAK

**Oñati**
Urriaren 26an, 19:00etan, Enpresagintzan.

**Aretxabaleta**
Azaroaren 7an, 19:00etan Arkupen.

**Bergara**
Azaroaren 14an, 19:00etan Miguel Altunan.

**Arrasate**
Azaroaren 29an, 19:00etan Kulturaten.

Azaroaren 29an meza Arrasateko parrokian, 19:00etan.

# Aizkorri-Aratz parkearen eguna bihar Arantzazun

Irteerak, bisita gidatuak eta umeendako tailerrak egongo dira lehenengoz antolatu den egitasmoan

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Aizkorri-Aratz parke naturalaren eguna ospatuko da bihar, lehenengoz, Arantzazun, eta Arantzazu inguruneko eragileen elkarlana bultzatzea da helburua. Eragile taldea zabala da eta nork bere eguneroko jarduerei jarraituta hartuko du parte: Gomiztegi kooperatiba, Natur Eskola, Oñatiko Turismo eta Garapen Agentzia, Debagoieneko Turismo Bulegoa, Arantzazuko Adiskideak eta hango ostatu eta jatetxeak (Zelai Zabal, Goiko Benta, Sindika, Milikua eta Arantzazuko Santutegia hotela).

**Adin guztiendako egitaraua**

Eguna ospatzeko antolatu duten egitaraua naturaren maitale guztiak asetzen saiatuko da. Arantzazuko Parketxeko ate irekiekin eta Arantzazu-Gomiztegi ibilbide gidatuarekin irekiko dute. Bi kilometro eskasek aldentzen dute Aizkorri-Aratzeko Interpretazio Zentroa euskal artzaintzan ardatz garrantzitsuenetarikoa den Gomiztegiko Artzain Eskolatik.

Eguerdi aldera Arantzazuko zirkuituan zehar, Santutegitik gertu, historiaz eta kulturaz gozatzeko *aperitiboa* izendatu duten ibilbidea hasiko da. Hor, Arantzazuko ingurunea beste ikuspegi batetik ezagutuko da; Parketxearen goiko aldetik doan bidetik zehar, hain zuzen. Arantzazuko etxeetako eta baserrietako bizilagunek ingurune horretako historiaren berri emango dute.

Bukatzeko, Aizkorri-Aratzeko lurpeko mundua ezagutu nahi dutenek Arrikrutzeko kobak ezagutzeko aukera izango dute:16:00etan euskarazko bisita gidatua izango da; 17:00etan, gaztelerazkoa. Parte hartzeko, aldez aurretik 943 08 20 00 telefonoan erreserba egitea gomendatu dute, bisita bakoitzeko pertsona kopurua mugatua delako.

Bestalde, Gandiaga II eraikinean kokatutako Aizkorri-Aratzeko Interpretazio Zentroa, Parketxea, zabalik egongo da egun osoan. Hango erakusketa iraunkorrak teknologia berriez eta euskarri interaktiboez baliatuz Aizkorri-Aratzek gordetzen duen ondare naturalaz eta kulturalaz ikasteko eta sakontzeko aukera ematen du.



Umea, Pobrezia Zeroren eskuorria irakurtzen Aretxabaletan. | MIRARI ALTUBE

# Bizikleta martxa eta bazkaria pobreziaz kontzientzia hartzeko

**M.B.** | ARRASATE

Pobrezia Zero taldeak antolatuta hainbat ekitaldi egongo dira bihar, zapatua, Debagoienean. Batetik, bizikleta martxa abiatuko da 12:30ean Eskoriatzako Herriko Plazatik; 12:45ean Aretxabaletako Durana kaletik igaroko da eta 12:45ean Arrasateko Biteri plazara iritsiko da.

Bestetik, herri bazkaria egongo da, 14:30ean, Biteri plazan. Bazkarirako txartelak salgai daude Arrasateko Elkarhezitzen taldearen egoitzan eta Aretxabaletako Belar Meta dendan. Horrez gain, umeendako munduko jolas tradizionalak eta harearekin jarduteko eskulanak egongo dira Txatxilipurdiren eskutik, 15:30etik 17:30era.

**Pobreziaren kontrako eguna**

Astelehena, urriak 17, Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna izan zen eta biharko ekintzak testuinguru horretan antolatu ditu Pobrezia Zero taldeak. Horrekin batera, beste hainbat ekintza ere egin dituzte astean barrena herritarrak kontzientziatzeko asmoz. Esaterako, astelehenean umeendako puzgarri eta musika saioa egon ziren Aretxabaletan; eta pobreziari aurre egiteko neurrien gaineko hitzaldiak Arrasaten eta Oñatin.

## ZABALIK



**ENEIDA ITURBE**
http://goiena.net/iritzia/

# Historia letra xehez

Duela egun batzuk Usoa Agirrek historia gizonezkoen ikuspuntutik azaldu izan digutela zioen *Usteak uste* zutabean. Gizonezkoek eta garaileek idatzi dute Historia maiuskulaz. Bada, baina, letra xehez idatzitako historia, duela gutxi arte xuxurla bakarrik izan dena eta orain gorputza hartzen ari dena.

Ez dut *Izarren argia* filma ikusi, baina harekin argitaratu zuten *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos* (Ez negarrik egin, egin behar duzuena gu ez ahaztea da) liburua irakurri dut duela gutxi. Saturrarango kartzelan umeak, gaztaroa eta inozentzia galdu zituzten emakumeen testigantzak jasotzeaz gain, Bigarren Mundu gerran, Espainiako Gerra Zibilean eta faxismoa gailendu zen herrialdeetan emakumeek jaso zuten tratua ere azaltzen du.

**"Nobel sariek ere zor historikoa daukate emakumeekin"**

Liburuak begi-bistan lagatzen du emakumeek elkartasunean oinarritu zituztela euren ekintzak, herrialde baten zein bestean, kartzelan, kontzentrazio esparruetan, auzoetan eta herrietan. Logika militar eta sexistaren aurrean, elkartasuna, bizikidetasuna eta elkarrizketa aldarrikatu zituzten. Baina historiako liburuek ez diote lekurik egin minuskulaz idatzitako beste historia horri.

Nobel sariek ere zor historikoa daukate emakumeekin eta, badirudi, behingoan kitatu nahi izan dutela, baten faltan hiru emakume sarituz: Ellen Johnson-Sirleaf, Liberiako presidentea; Leymah Gbowee, ekintzaile liberiarra; eta Tawakkul Karman, Yemengo ekintzailea.

1901ean sortu zuten Bakearen Nobel saria eta orain arte 77 gizonezko eta 12 emakumezko saritu dituzte. Bat-batean hiru emakumeren lana azpimarratzeak bere garrantzia dauka. Hala ere, kontuz interpretazioekin! Saria hirurentzako izateak ez du esan nahi bakoitzak herena bakarrik merezi duenik. Ondo merezia dute, bai haiek eta baita bakea eraikitzen eta gizarte justuagoa lortzeko lan egin duten eta lanean diharduten beste emakume askok eta askok ere!

## USTEAK USTE

**GOIATZ ARANA** | 'garana@goiena.com'

# Ia ez dut ezagutu ere egiten

Udako oporren bezperan idatzi nuen azkenekoz *Usteak uste*, hilabetean Deskargako mendatean ohi baino gutxiago ibiliko nintzela esanez. Badira bi hilabete atzera ere bide horretan gora eta behera nabilela, baina ez dirudi lehengoa; biluztu egin dute, guztiz! Ez dut uste berriz ikusiko ditugunik aurreko neguetako zuhaitz adar elurtuak errepide gainean; izotza, segururago! Arbola arrastorik ez da ia, botatakoak erretzeko egindako suari darion kea baizik. AHT eraikitzeko lanak dira, nagusiki. Bazter guztietan krisia eta... horretarako ez al da halakorik? Beasain -Durango autobideko Urretxu-Bergara tartean bai, antza; proiektu horrek itxaron-zerrendara bueltatzeko itxura osoa dauka, tamalez.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | http://goiena.net/iritzia/




## GUTUNAK

# Zergatik kezkatzen gara murrizketak guri datozkigunean bakarrik?

**Joxe Mari Gabilondo Millet**
Bergara

Garai latzak omen dira egungo hauek! Lelo horren pean denok dugu ahoan krisiaren gaia goizetik gauera. Normala, ikusiz gero bakoitzaren ongizatea nola jaisten ari den krisiaren itzalean.

Nik ere, Nafarroan Bigarren Hezkuntzako funtzionarioa izanda, krisia jasan beharra dut: soldata jaitsiera, lanordu gehiago konpentsaziorik gabe... Aizue, inguruko guztiek bezala! Gaiaz ez dut hitz egin nahi, greba ataritan makina bat solasaldi sortuko baita: murrizketak hezkuntza publikoan, eta pribatuan zergatik ez (Nafarroan hala da)? Aberatsei zergatik ez zaie ezer murrizten? Non da aberatsaren muga dirutan? Zergatik kezkatzen gara murrizketak guri datozkigunean bakarrik?

Krisi ekonomiko deitzen zaio gizaki modernoaren krisiari. Hau da, nirea nire, eta zurea… bada… bueno… ez badago denontzako normalak dira murrizketak, banatu egin behar da… baina, nirea nire! Inoiz nirea murriztu nahi izanez gero, gogorarazi ondokoak zenbat daukan, ea hari kendu eta nireak nire izaten jarraitzen duen.

Gizaki modernoaren krisia norberekoitasuna eta zuritasuna dira; ingurune horretan normala da pribatuak publikoa jatea.

Hausnarketa sakona egin behar genuke, eta saiatu garbi, zurikeriarik gabe erabakitzen zein banderadunen ontzian egon nahi dugun. Oso erraza baita publikoaren alde zaudela esatea; oso ondo ikusita dago, baina zerbait larria denean pribatura noa, itxaron-zerrenda txikiagoa delako.

Are txarrago, Nafarroan murrizketak dauden bitartean, Bigarren Hezkuntzako oposizioak gainditu eta erabaki behar duzun lehen gauza da ea Mufacen zure medikua lehen zeneukan publiko hori izaten jarraitzea nahi duzun edo Sanitas... itxaron-zerrendarik gabeko pribatu zoragarri bat dohainik (hau Barcinak ez digu kendu dagoen diru faltarekin, zergatik ote?). Hezkuntza publikoan lan egiten dugu, bere alde mobilizatzen gara, baina umeak eskola pribatuetara eramaten ditugu, mediku pribatuetara… Badirudi krisia garunean dugula gizakiok. Nola egongo da lana denontzako, nork berea bakarrik zaintzen badu? Zeinen erraz ari zaizkigun egurra hartzen norberekoitasunaren banderadun kapitainek geure haritz eroritik!

# Espoloiko oihartzuna

**Josune Alberdi eta beste hainbat auzotar**
Bergara

Espoloia leku berezixa izana da eta da Bergakuondako. Pasa dan zapatu honetan berriro gune alai eta goxoa bihurtu zeben Espoloia bertako gazte batzuk. Umetan izandako bizipen atseginak gogoan izanik, egun ederra eskaini nahi izan zozkuen auzotar-herritar guztioi. Baitxa asmau be! Egitarau osoa gertau eta primeran antolatzeko gauza izan zien, benetan gogoratzeko modukoa bertan giñan guztiondako, heldu eta ume.

Eskerrik asko antolatzaile lanetan jardun dozuenoi eta jai honetarako laguntza eskaini dozuen danei.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# HERRIAK

OÑATI

# Aurrekontuak 'Herrijorran' landuko dituzte

- Parte-hartzearen dinamika sustatzea da ekimenaren asmoa
- Batzorde bakoitzak tailer bat izango du egun jakin batean



Udalbatzako kideak, osoko bilkuren aretoan. | ARANTZAZU EZKIBEL

ESANAK

**"Badakigu ze gastu eta ze sarrera diren oinarrizkoak"**

MIKEL BIAIN | OÑATIKO ALKATEA

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

2012ko aurrekontuak lantzeko *Herrijorran aurrekontuak* ekimena martxan jarri du udalbatzak. Asmoa da herrian hartuko diren erabakiak ahalik eta parte-hartzaileenak izatea. Egubakoitzean izango da lehenengo tailerra eta azaroaren 4an izango da azkena. Batzorde bakoitzak tailer bat izango du.

"Gobernuan sartu ahalaz bat Jai batzordearekin lanean hasi ginen, gero auzotar bizilagunen elkartearekin ere batzartu ginen... Parte-hartzearekin dinamika jorratzen saiatu gara", azaldu du alkateak. Eta hauxe gaineratu du: "Asmoa da hartu behar diren erabakietan parte-hartze dinamikak martxan jartzea eta helburu moduan parte-hartzearen araudi bat martxan jartzea".

**Eztabaidatuko diren gaiak**

"Badakigu ze gastu eta ze diru sarrera diren oinarrizkoak, baina hortik aparte badaude beste partida batzuk eztabaida daitezkeenak: izan daitezke inbertsiotako partidak, dirulaguntza partidak eta gastu partida batzuen inguruan ere eztabaida daiteke", azaldu du Mikel Biain alkateak prentsaurrekoan.

Udalbatzak aurre-lan bat egin du teknikariekin; hala, gastu eta sarrera arrunten gaia ez dute eztabaidara aterako prozesuan. "Eztabaidara diru kantitate jakin bat aterako dugu", gaineratu du Josu Lizarraldek, Partaidetza, Barne Antolamendu eta Komunikazio batzordeko buruak. Garrantziaren eta urgentziaren arabera hartuko dira erabakiak, eta garrantziaren eta urgentziaren matrize bat egingo dute . Horregatik nabarmendu dute tailer horien garrantzia: orain hartzen diren erabakiek agintaldi osorako perspektiba markatuko dute.

"Herri programan jasota dugun hainbat gauza garrantzitsuak izan daitezke, baina ez urgenteak. Hitz eman genuen: zerbait ez badugu orain egiten ez du esan gura ez dugunik egingo", gaineratu du Lizarraldek. Herri programa 2011ko martxoan egin zutela gaineratu du eta ordutik hona "beste gauza batzuk" gertatu direla herrian, "garrantzitsuak izan daitezkeenak".

Bildu Udalean sartu zenean apustua egin zuen parte-hartze batzordearen alde. Horregatik, partida bat aurreikusten dute batzorde horretarako, eta baita Berdintasun batzorde berrirako ere. "Baliabide finantzarioz hornitu beharko ditugu lanak aurrera eramateko", dio.

**Aurrekontuak onartzeko epea**

Azaroaren 7an tailer horietan jasotako zirriborroa bidaliko zaie parte hartu duten herritarrei eta baita EAJko zinegotziei ere. Azaroaren 18ra arte zirriborro horri zuzenketak egiteko aukera egongo da eta udalbatzaren asmoa da behin hori eginda azaroaren 24an aurrekontuak onartzea.

Epeak justu samarrak ez ote diren galdetuta, alkateak esan zuen dagoeneko lan asko aurreratu dutela, baina aldi berean kontziente direla lehenengo aurrekontuak dituztela eta lan handia izango dutela egiteko. Lizarraldek gaineratu zuen aurrekontuak behar bezala antolatuta ez baldin badituzte ez dituztela azaroaren 24an onartuko, abendura atzeratuko dituztela.

**Harremanetarako bideak**

Udalbatzak, gainera, beste bide batzuk ere zabaldu ditu herritarren parte-hartzea sustatzeko. Atari bat zabaldu dute –oraindik egutegia bakarrik dago ikusgai– *www.herrijorran.info*, eta helbide elektronikoa ere jarri dute: *aurrekontuak@herrijorran.info*.

Bestalde, Facebook eta Twitter sare sozialetan profilak zabaldu dituzte herritarrekin hartu-emanak sustatzeko.

**EGUTEGIA** — Herrijorran

| GAIA | EGUNA | ORDUA | LEKUA |
|---|---|---|---|
| **Kultura** | Urriak 21 | 18:00 | Kultura etxean |
| **Parte-hartzea** | Urriak 21 | 18:00 | Udaletxean |
| **Hirigintza eta Zerbitzuak** | Urriak 24 | 19:00 | Udaletxean |
| **Euskara, Hezkuntza eta Haurrak** | Urriak 24 | 19:00 | Euskaltegian |
| **Gaztedia** | Urriak 25 | 17:00 | Gaztelekuan |
| **Kirola** | Urriak 26 | 19:00 | Udaletxean |
| **Sozioekonomia** | Urriak 28 | 19:00 | Udaletxean |
| **Berdintasuna** | Azaroak 2 | 19:00 | Udaletxean |
| **Ongizatea** | Azaroak 2 | 19:00 | Kultura etxean |
| **Auzoak eta Landa Garapena** | Azaroak 3 | 19:00 | Udaletxean |
| **Ingurumena** | Azaroak 4 | 18:00 | Udaletxean |




HERRIKO KANTAK KULTURATEN

SAIO IREKIAK GUZTIONTZAT

HASIERA: URRIAK 23 (domeka).
ORDUA: 18:00-20:00
EGUNAK: Azarotik apirilera 3. domeketan.
NON: Arrasateko KULTURATEN.

KALEZ KALE ARRASATEN:

Azarotik aurrera, hilean behin, ostiral batean.

IRTEERAK:

Gure kanta irteeretara ere etor zaitezke (Donostia, Gernika, Otxandio, Eibar, Iruñea…)

Antolatzailea

Portaloi Kultur Elkartea

# 50. ediziorako iazko talde kopuru bera, oraingoz

Zaldibarko txapelketarako izena eman daiteke oraindik, hilaren 26ra arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eguaztenean 14 taldek eman zuten izena Zaldibarko txapelketaren 50. edizioan parte hartzeko. Txapelketa 1956an hasi zen, eta 1980ko hamarkadan zenbait urtez geldi egon ostean, 1990ean berriro hasi zen jokatzen, hainbat aldaketekin. 1990eko txapelketa eraberritu hartan 60 taldek eman zuten izena; 900 jokalari inguru.

Aurten bi talde berri daude –Sonografos eta Aston Birra– eta beste bik ez dute izena eman –Fuxxion eta Steaua del Grifo–. Bestalde, iaz txapelketa irabazi zuen Cipris taldeak izena aldatu du; aurten Aldatz izango dira. Datorren eguaztenera arte, hilak 26, eman daiteke izena. Bi aukera daude: e-mailez (*zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com*) edo telefonoz (634 447 592).



1990eko hamarkadako irudian, harmailak jendez beteta. | ARTXIBOA

**Talde berrien zain**

Azaroaren 5ean hasiko da txapelketa eta bigarren jardunaldia ez da azaroaren 26ra arte jokatuko. Antolatzaileak gustura daude iazko talde kopuru bera eta txapelketa aurrera ateratzeko kopuru minimo bat lortu dutelako, baina talde gehiago ondo etorriko direla nabarmendu dute.



PORTALOI ELKARTEA

## Herri kantaldi irekia domekan

Portaloi herri dantza eta kantu elkarteak domekan, hilak 23, hasiko ditu herri kantaldiak. Lehen saioa Kulturaten egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Deialdi irekia da: "Ez dugu belarri finik eskatzen", dio Salva Dalmau antolatzaileak. Azarotik apirilera hileko hirugarren domekan elkartuko dira eta kalez kale ere egingo dute kantuan, hileko egubakoitz baten. Kanpora ere joango dira –Donostia, Gernika, Otxandio, Eibar...



ZAHAR-BERRI

## Zahar-Berriko kalabazarekin, urdaiazpikoa

Maritxu Kajoi egunean Zahar–Berri mintzapraktika programarentzat dirua batzeko kalabazarekin irten ziren sustatzaileak. Piezaren pisua Eduardo Beltranek asmatu zuen: 7.080 gramo. Kalabazari esker, urdaiazpikoarekin joan da etxera.

NIRE USTEZ



ANDER ETXEBERRIA

## Almogàver estimatua

Erdialdeko taberna batzuetan aurkitu dut. Almogàver izena dauka eta aparteko zerbeza da. Ez bakarrik artisau eran egindakoa delako, baita ere katalan hutsez duelako etiketa. Azken detaile hau ez litzateke aipagarria izango Katalunian –Paisos Catalans-en, botilan datorrenez–, baina bai handik kanpo.

Izan ere, legeak agintzen ei du etiketek salmenta-lurraldean ulertzen den hizkuntzan egon behar dutela. Hala, Borges etxeak, esate baterako, katalan hutsezko botila olioak ere saltzen ditu Katalunian.

Edo Eroskik gurean Estatuko lau hizkuntzatan etiketatzen ditu bere produktu zuriak; atsegin berezia sortzen du Ebrotik hegoaldera dagoen denda batean euskaraz irakurri ahal izateak.

Badaude, ordea, bestelako adibideak ere. Urrunago joan gabe, hemengo txakolin botila batean euskararen presentzia ez da osoa, ez eta gehiengoa duena ere. Ez. Testuaren erdiak baino gehiago gazteleraz dira.

Gaztelera hutsean datoz, besteak beste, "*contiene sulfitos*" edo "*elaborado y embotellado en la propiedad*" adierak. Hau da, hizkuntzari dagokionez, *Chacolí*-tik gertuago dago Txakolinetik baino.

Almogàver-ek pertsonalitate sendoa du, bost puntako izar gorri bat azalean duela, izenak berak ere adierazten du balentriarik ez zaiola falta (wikipedian kontsulta dezakezue zeintzuk ziren Almogàver-ak).

**"Pertsonalitate sendoa du, bost puntako izar gorri bat azalean duela"**

### Proiekzioa eta hitzaldia hilaren 26an Santi Brouard-en gainean

Argiak euskarazko eta Euskal Herriaren gaineko ikus-entzunezkoak zabaldu gura ditu. Helburu horrekin AEDk hitzaldia antolatu du *Santi Brouard. Duintasuna omen* ikus-entzunezkoaren gainean. Ordubete inguruko proiekzioaren ostean, Xabier Zubizarretak egingo du berba. Urriaren 26an izango da, 19:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

### Boluntarioendako ikastaroa antolatu du Gizarte Ongizate Sailak

Hezkide Eskolak eta Udaleko Gizarte Ongizate Sailak edozein elkartetan parte hartzen duten boluntarioendako ikastaroa antolatu dute. Hiru saio egingo dituzte azaroan. Bi aukera daude izena emateko, azaroaren 4a baino lehen: Gizalden (943 42 80 13) edo Udal Prebentzio Zerbitzuan (943 25 20 07). Doakoa da, eta euskaraz.

## OHARRAK

**1949AN JAIOTAKOAK**

Zerainera egingo dute irteera hilaren 22an. 09:00etan irtengo dira Garibaiko autobus geltokitik. Izena eman Lore eta Zabaleta dendetan (30 euro).

**1942AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 5ean egingo dute bazkaria, meza eta guzti. Mari Carmenengana jo.

**1976AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 19an elkartuko dira. Parte hartzeko azaroaren 3a baino lehen eman behar da izena 3035 0001 50 0010101654 kontu korronte zenbakian 30 euroko diru sarrera eginda eta izen-abizenak kontzeptu moduan jarrita.

**1960AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 19an. Izena eman azaroaren 7a baino lehen. 3035 0047 10 0470072778 kontu korrontean 60 euroko sarrera egin, izen abizenak kontzeptu moduan jarrita (Bittor: 630 018 281 eta Kontxi: 652 762 163).

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Restaurante UGARAN Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

# Zero Zabor taldea hitzaldi batekin aurkeztuko dute

IRATI GOITIA | ARRASATE

Zero Zabor taldea sortu berri du herritar talde batek. Partaideek adierazi dute taldea sortzea beharrezko ikusi dutela: "Errausteagiaren aurka egiteko eta hondakinekin egun dugun arazoa kontuan izanda, beharrezkoa delako kudeaketa plan egoki bat martxan jartzea". Gaineratu dute atez ateko bilketa izan daitekeela eredurik egokiena. Antzuola jarri dute adibide gisa. Horretaz gain, esan dute Gipuzkoan Zero Zabor mugimendua zabaltzen doala eta garrantzitsua ikusten dutela, bailarak Gipuzkoan duen pisua kontuan izanda, hondakinen bilketa sistemaren gaineko eztabaida sortzea Debagoienean.

Oraingoz, bost lagunek osatzen dute taldea, baina ekimenera jende gehiago batzea espero dute.

**Hitzaldi informatiboa**

Taldea eta haren egitasmoa herrian aurkezte aldera, hitzaldi bat egingo dute. Oraindik zehaztu gabe dute hitzaldia noiz izango den, baina azaroko lehen astean izango dela aurreikusten dute: "Asmoa da hitzaldi bat egitea jendeari informazioa helarazteko, eta, era berean, eztabaida kalera ateratzeko". Oñatiko Zero Zabor taldeak eskainiko du. Taldearen abiapuntua hitzaldia izango da, baina aurrera begira hainbat ekintza egitea aurreikusten dute.



Hondakinak edonola uztea ohikoa da. | ZERO ZABOR

# Kafe tertulia egingo dute gaur Seber Altuben, feminismoa ardatz, Emakume Txokoak antolatuta

Hiru mahairen bueltan feminismoaren inguruko ideiak partekatuko dituzte, 17:00etan hasita

I.G. | ARRASATE

Gaur, arratsaldeko bostetan, feminismoaren gaia landuko dute Seber Altuben, Emakume Txokoak antolatuta. Kafe tertulia egingo dute hiru mahairen bueltan eta *Feminismoaren erronkak Arrasaten* izenburupean gaiaren inguruan eztabaidan jardungo dute.

Emakumeei zuzendutako hitzordua da eta hainbat helburu ditu: alde batetik, garai batean berdintasunaren eta feminismoaren alde lanean ibili ziren emakumeen testigantzen berri ematea; beste alde batetik, jende gaztea erakarri nahi da. Hala, garai haiek bizi izan ez zituzten baina feminismoarekin interesatuta dauden gazteak eta orduko emakumeak elkartu eta ideiak trukatzeko.

**Hiru mahairen bueltan**

Hiru mahai jarriko dituzte eta bakoitzean gai bat jorratuko dute: mugimendu feministaren ibilbidea, egungo erronkak eta feminismoa Arrasaten. Parte-hartzaile guztiak mahai guztietatik pasatzea da asmoa, ekarpenak egin ditzaten.

Mahaietan aterako ondorioak bakarrizketa batean plazaratuko ditu amaieran Belen Nevadok.

## Ogia nola egin ikasteko aukera paregabea izango da urriaren 29an, Bedoña Baturen eskutik

Teba Gonzalez eta Juantxo Aranbururen laguntzaz ogia nola egiten den ikasteko aukera izango da urriaren 29an, Bedoña Batuk antolatutako ikastaroan. Izena ematen dutenek ikasiko dute, esaterako: antzina baserrietan erabiltzen zen ama-orea nolakoa den eta ogia nola kontserbatu. Horretaz gain, ogia labean egiten den bitartean, errezetak eta irin eta ogi mota ezberdinak aztertuko dituzte. Bihar da izena emateko azken eguna; 688 88 79 02 telefonora deitu behar da. Auzotarrek izango dute lehentasuna.

# Arropa birziklatzeko ikastaroa Ekinen eskutik

I.G. | ARRASATE

Ekin Emakumeak elkarteak arropa birziklatzeko ikastaroa antolatu du. Eskolak urriaren 26an hasiko dira eta abenduaren 21ean bukatu. Eguaztenero izango da, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Ekin elkartearen lokalean.

Amaia Albes arrasatearra izango da irakaslea eta ikastaroaren helburuak dira: aisialdia euskaraz egitea, gauza zaharrak aprobetxatuz kontsumoa txikitzea eta sormena bultzatzea. Nork bere etxean dituen arropa, zapatila eta poltsak eraman eta horiek birmoldatzen lagunduko die irakasleak. Hala, arropa itxuraz eta kolorez aldatzen erakutsiko diete, eta baita gehigarriak jartzen ere.

Parte hartzeko izena eman behar da elkarteko lokalera joanda, telefonoz deituta (honako zenbakietara: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36) edo mezu bat idatzita honako helbide elektronikora: *ekin.emakumeak@telefonica.net*. Ikastaroaren prezioa 22 euro da; elkarteko bazkideentzako berriz, 20 euro.

Guraso Eskola

Seme-alaben heziketa prozesuan sortzen zaizkizuen kezkak eta zailtasunak argitu, bideratu eta konpartitzeko



0-16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako

Antolatzailea:

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Edukiak:**
- Guk daukagun hoberenetik heztea.
- Adin tarte bakoitzeko ezaugarriak eta mugak.
- Arauak ezartzeko eta horiek betearazteko estrategiak (autoritatea eta diziplina).
- Segurtasuna eta autonomiaren garapena sustatzea.
- Sexualitatea.
- Berdintasunean heztea.



**Egutegia:**
Azaroan hasiko gara, astean behin ordu eta erdiko saio bat eginez, guztira 6 saio.
Ordutegia gehiengoak aukeratutakoa izango da.
(14:45 - 16:15 edo 18:30 - 20:00)



0-5 urte astelehenetan
6-11 urte astearteetan
12-16 urte asteazkenetan



**Dinamizatzaileak:**
Loredi Salegi (Gizarte langilea),
Urtxintxa Eskola eta Udaleko Sexologia Zerbitzua.



Urriaren 26a baino lehen,
Gizarte Zerbitzuetan edo BAZen.
Tel.: 943 25 20 07
e-posta: *prebentzio@arrasate-mondragon.net*

# Espainiako gerran Osintxun fusilatutakoak gogora ekarriko dituzte domekan

75 urte bete dira Tomas eta Ildefonso Iñarra, Jose Garaikoetxea, Ricardo Zangitu eta Rufino Akizu hil zituztela

EDU MENDIBIL | BERGARA

Eguenean, urriaren 20an, Osintxuko bost lagun hil zituztela 75 urte bete ziren eta haiek gogora ekartzeko ekitaldia deitu du Osintxuko Herri Batzarra domekarako. 1936ko urriaren 20an, erreketeak sartu ziren Osintxun eta zazpi lagun atxilotu zituzten. Horietako bost fusilatu zituzten: Tomas eta Ildefonso Iñarra anaiak, Jose Garaikoetxea, Ricardo Zangitu eta Rufino Akizu. Felipe Garmendia okina askatu egin zuten Textil Arretxeko ugazabaren bitartekaritzari esker eta Anbrosio Agirrek azken unean ihes egitea lortu zuen.



Jon Balentziagak egindako eskultura inauguratuko dute domeka eguerdian Osintxun. | E.M.

**Meza eta omenaldia**

Gerran hil zituztenen senitartekoei omenaldia eskainiko diete domekan Osintxun. Hildakoen oroimenezko meza izango da 12:00etan eta jarraian, pankarta bat erakutsiz, batutakoek martxa egingo dute Gerondoraino. Hantxe, hil zituzten lekutik oso gertu, Jon Balentziaga artista bergararrak egindako eskultura erakutsiko dute 13:00etan. Aurreskua dantzatu ondoren, loreak jarriko dituzte eskultura ondoan eta jarraian Enaitz Alustiza eta Jokin Labaien bertsolariek hainbat bertso eskainiko dituzte. Elene Etxanizek orain 75 urteko gertaeren gaineko idatzia irakurriko du eta amaitzeko *Hegoak ebaki banizkio* abestuko dute bildutakoek.

Osintxun, 75 urte isilean gordetako gure historia osatzen izenburupean hainbat ekitaldi izan dituzte Osintxun. Eguaztenean, esaterako, 50 lagun inguru batu ziren Osintxuko eskolan, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Juan Ramon Garairen *Gerra eta errepresioa Osintxun* izenburuko hitzaldia jarraitzeko. Biharko, zapaturako, Intxortako ibilbide tematikora irteera deituta zegoen, baina antolatzaileek bertan behera utzi dute.

## Mariano Ferrer hizlari eguenean Bergaran

E.M. | BERGARA

Erretiratuen kultur hamabostaldiaren barruan, Mariano Ferrer kazetari ezagunak hitzaldia egingo du eguenean, urriaren 27an, Miguel Altunako aretoan, 19:00etan. *¿Para qué sirven los proclamados derechos humanos?* izenburuko hitzaldia egingo du Ferrerek. Ibilbide profesional gehiena Herri Irratian egin ostean eta ofizialki erretiratuta dagoen arren, iritzi emaile jarraitzen du Mariano Ferrerek hainbat komunikabidetan. Ttarttalo argitaletxearekin *Lo que dije y digo* liburua kaleratu berri du. Azken aldiz ekainean izan zen Bergaran, Jose Luis Elkororen aldeko Mugituko Da Plataformak antolatutako hitzaldian.

Bestalde, jubilatuek egindako eskulan, margo, argazki, zeramika eta egurrezko artisautza lanen erakusketa domekara arte dago ikusgai erretiratuen egoitzan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Urriaren 26rako, berriz, Hondarribira irteera iragarri dute. Argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

## OHARRAK

**AUTOBUSAK BIHARKO MANIFESTAZIORAKO**
*Euskal Herriak konponbidea nahi du* lelopean manifestazioa izango da zapatuan Bilbon. Autobuserako txartelak Arranon, Etxagin, Deporren eta Bulebarren.

**HITZALDIA EGUAZTENEAN**
Bizikasik antolatuta, autoestimaren gaineko hitzaldia egingo du Ana Perez psikologoak urriaren 26an, Miguel Altunan, 17:00etan.

**JOLASLEKU IBILTARIA GAUR**
Jarduneko begiralekin, 17:00etatik 19:00etara Frontoian, gaur.

**TAILA ESKOLAREN OHARRA**
Hastapen ikastaroa eskainiko dute azaroan. Argibideak Zabalotegi 11ko lokalean, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

**AMAIUR: BOTOA POSTA BIDEZ**
Amaiurrek gogoratu duenez, azaroaren 20ko hauteskundeetarako botoa posta bidez emateko eskaera azaroaren 10era arte egin daiteke, Correosen. Botoa bidaltzeko epea azaroaren 16ra arte izango da zabalik.

**1962AN JAIOTAKOEN AFARIA**
Azpeitxi jatetxean, azaroaren 5ean. Izenematea (10 euroko aurrerapena) Ariznoan, Deportivon edo Azpeitxin.

**1940KOEN BAZKARIA**
1940an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 5ean, Agorrosinen. Aurretik, meza izango dute San Lorentzon, 13:30ean. Izenematea: 943 76 35 76 (Paco).

**1938KOEN OSPAKIZUNA**
1938an jaiotakoen ospakizuna azaroaren 5ean Pertxan. Izenematea: 943 76 18 64 (Miguel) edo 943 76 35 15 (Mari Karmen).

**1968KOAK, AZAROAREN 5EAN**
1968an jaiotakoen azaroaren 5ean Tartufon. Izenematea Deportivo tabernan urriaren 28ra arte, 10 euro aurreratuta.

**1958KOEN AFARIA**
Azaroaren 5ean Zumelagan. Izenematea (20 euro) Usoa tabernan egin daiteke.

**1935KOAK, AZAROAREN 6AN**
1935an jaiotakoen bazkaria azaroaren 6an Zumelagan, 14:30ean. Izenematea Euskadiko Kutxan, 12 euro aurreratuta.

**1943KOEN BAZKARIA**
1943an jaiotakoen bazkaria azaroaren 12an Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 16 13 (Arantxa).

**1946KOEN BAZKARIA**
1946an jaiotakoen bazkaria azaroaren 12an Tartufon. Izenematea bertan, 943 76 35 51 zenbakian.

**1947KOEN AFARIA**
1947an jaiotakoen afaria azaroaren 12an Agorrosinen, 21:00etan. Euskadiko Kutxako 0091140069 kontuan 45 euro ordaindu behar dira.

**1933KOEN BAZKARIA**
1933an jaiotakoen bazkaria azaroaren 13an Azpeitxi jatetxean. Izenematea Intxorta tabernan edo Azpeitxi jatetxean, 6 euro aurreratuta.

**1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**
1934koen bazkaria azaroaren 19an Errekin. Izenematea (12 euro) Errekin bertan.

**1948KOEN AFARIA**
1948an jaiotakoen afaria azaroaren 19an Zabalan. Izenematea (55 euro) Euskadiko Kutxan.

**1953AN JAIOTAKOEN AFARIA**
1953koen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxan. Izenematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoa (Tasio).

Iturgintza - Berogintza
Laskurain
Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra

Barrenkale 44 - BERGARA - Tel/Faxa.: 943 76 24 89 - Mug.: 610 20 54 99 - 607 76 24 89



Philippe Laurent saxoarekin eta Jesus Martin Moro. | BERGARAKO KULTURA SAILA

# Organo erromantikoaren zikloko azken kontzertua bihar

Laurent saxo-jotzaileak eta Martin Moro organo-jotzaileak egingo dute

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Nazioarteko organo erromantikoaren zikloko azken kontzertua bihar egingo dute Santa Marina parrokian, 20:00etan. Philippe Laurent saxo-jotzaileak eta Jesus Martin Moro organo-jotzaileak egingo dute emanaldia. Musikazaleek azken aldiz gozatu ahal izango dute Santa Marina parrokiako organoarekin.

**Bakarka eta binaka**

Zikloaren aurkezpenean esan zuten aurtengo ekitaldiaren helburua XIX. mendeko musikariak omentzea zela. Baina biharko kontzertuan askoz atzerago egingo dute Laurentek eta Martin Morok; besteak beste, Guy De Lioncourten, Jean-Mari Leclairren, Isaac Albenizen eta Felix Mendelssohnen piezak eskainiko dituzte: batzuk Laurentek joko ditu bakarka saxofoiarekin eta beste batzuk Martin Morok bakarka organoarekin. Dena den, pieza gehienak elkarrekin joko dituzte bi musikariek.

**Eskarmentu handikoak**

Philippe Laurent eta Jesus Martin Muro esperientzia handiko musikariak dira. Laurent Lillen (Frantzia) jaio zen, eta 10 urterekin irabazi zuen Dunkerqueko musika lehiaketa. Hainbat kontserbatoriotan irakasle lanak egin ditu; besteak beste, St-Quentin, Roubaixen eta Diepen. 2010a ezkero Biarnon bizi da eta Navarrenxeko musika eskolako koordinatzailea da egun.

Bestalde, Martin Moro Pedraza de Camposen (Palentzia) jaio zen eta Valladoliden hasi zituen irakasle lanak. Urte askoan Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioko irakasle izan zen. Hainbat kontzertu egin ditu Mexikon.

**BIHARKO EGITARAUKO PIEZEN EGILEAK**

- Guy de Lioncourt
- Jean-Marie Leclair
- Philipp Telemann
- Felix Mendelssohn
- Thierry Escaich
- Aaron Copland
- Luois Lefebure Wely
- Jean-Baptiste Singelee
- Astor Piazolla
- Isaac Albeniz
- Manuel de Falla

## Jesus Zabaletaren lanak Donostian

Jesus Zabaleta bergararrak erakusketa zabaldu du asteon Donostiako Antigua auzoan dagoen Txirain elkartean. Azaroaren 30era arte ikusgai egongo dira lanak, elkartea zabalik dagoen orduetan. Jesus Zabaletak hainbat margolan ipini ditu eta gehienetan paisaiak dira nagusi: mendia, itsasoa, herriak...



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

# Muniategi: "Gure jokoaren %60 defentsan oinarritzen dugu"

M.B. | BERGARA

Soraluze BKEk partidu zaila du bihar Erromoren kontra (Labegaraieta, 17:00). Talde sendoa da bizkaitarra, eskarmentu handikoa, baina mahoneroek badakite etxeko partiduak irabazi beharrekoak direla txapelketa lasaia izateko. "Etxeko lehiak irabazi behar ditugu, bai edo bai. Kanpoan irabaztea oso zaila da, batez ere Bizkaian. Taldeak beste martxa bat dauka Labegaraietan, eta hori aprobetxatu behar dugu", esan digu Josetxo Muniategik.

"Erromo talde beteranoa da, gogorra, joko zuzena egiten duena, eta jokalari handiak dituena", esan digute.

Eta horren aurrean zer egin dezake Bergarak? "Euren jokoa moztu, eta areatik urrun joka dezaten defentsa sendoa egin. Gure jokoaren %60 defentsan oinarritzen da. Atzean sendo bagaude, baloiak moztu eta kontraerasoan irteteko aukera izaten dugu. Hori da gure jokoa", dio Muniategik.

**Bergarak lau puntu ditu**

Josetxo Muniategiren taldeak Labegaraietan jokatutako bi partiduak irabazi ditu, eta etxetik kanpoko hirurak galdu. Lau puntu ditu. Erromok aldiz, etxean partidu bakarra galdu du, eta etxetik kanpoko biak irabazi. Zortzi puntu ditu.

### Ramon Arantzabalen 'Gau magikoak Munibe plazan' ikuskizuneko lanak ikusgai daude Aroztegin

Iaz ekainaren 25ean egin zuen Ramon Arantzabalek *Gau magikoak Munibe plazan* ikuskizuna, eta orduan erabilitako margolanak ikusgai ipini ditu orain Aroztegi aretoan, hilaren 30era arte. Erakusketaren ordutegia da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara arte.

### Oñatiko erretiratuen elkarteko antzerki taldeak emanaldia egingo du gaur Zabalotegin

Krisi egoeran dagoen bikote baten bizipenak kontatuko ditu Oñatiko erretiratuen elkarteko antzerki taldeak Zabalotegin gaur, 17:30ean. Ikusi Makusikoek *Problemas de pareja, la solución aquí* antzezlana egingo dute. Bikote protagonistak psikologoarekin duen hartu-emana kontatuko dute umore tonuan. Sarrera doakoa da herritar guztiendako.

### Jon Urbieta DJaren emanaldia eta Lasturren 'paintball'-ean egiteko irteera antolatu dituzte

Bergarako Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Sailak nerabeendako bi ekitaldi antolatu ditu: bihar, zapatua, Jon Urbieta DJak emanaldia egingo du Zabalotegi aretoan, 18:30etik 21:30era arte; eta hilaren 29an Lasturrera irteera egingo dute, *paintball*-ean jokatzeko. Izena aste bukaeran eman behar da Xabalote gaztelekuan, 10 euro ordainduta.

### Beti Bustiko neska-mutikoek denboraldia hasi dute eta hainbat domina lortu dituzte Hernanin eta Irunen

Hernanin eta Irunen hasi zuten aurreko aste bukaeran denboraldia Beti Bustiko neska-mutikoek. Jabier Del Reyk, Leire Ugaldek, Aitziber Iturriagak, Unai Otaduik, Mikel Zubizarretak, Miren Murgizuk, Asier Gonzalezek eta Gorka Markezek emaitza onak lortu zituzten.

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29




Txanda eguneko ekitaldiak dituen kartela, Herriko Plazako arkupeetan dagoen dendaren aurrean. | MIREIA BIKUÑA

# Saltokiak kalera aterako ditu Txandak bihar

## Elkarteko 23 kidek postu bana ipiniko dute Herriko Plazan, 10:00etan

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Txanda dendarien elkarteak ospakizun eguna du bihar: I. Txanda eguna egingo dute Herriko Plazan. Saltokiak kalera aterako dituzte elkarteko 23 kidek, eta herriko dendetan zer saltzen den erakutsiko dute. Hori da Txanda egunaren helburua. "Dendariok elkarren artean dugun sendotasuna erakutsi gura dugu. Indarra daukagu aurrera egiteko eta krisia gainditzeko", esan digu Txandako presidente Alberto Vesgak.

**Egun osoko egitaraua**

Ekitaldia 10:00etan hasiko dute. 23 parte-hartzaileek saltoki bana izango dute Foru plazan, eta herritarrek erosteko aukera izango dute. 12:00etatik 14:00etara arte haur eta gaztetxoendako jolasparkea egongo da. 16:00etatik 19:00etara puzgarriak egongo dira. 13:30ean, irailean zehar egindako *Txantxikuaren bila* jolasaren 40 irabazleek sariak jasoko dituzte plazan. 18:00etan, dendarien elkarteko harakin eta tabernariek saiheski errea eta ardoa emango dituzte.

Plazako ekitaldiak girotzeko, musika eskolako trikiti taldeak kalejira egingo du.

**Batzuk itxi, beste batzuk ireki**

Txanda dendarien elkartea orain dela 15 urte sortu zuten herriko merkatariak batzeko asmoarekin. Urte hauetan guztietan asko aldatu dira ekonomia eta erosteko ohiturak. "Krisian gaude eta jende asko hiriburuetara joaten da erosketak egitera. Gazteek oso gutxi kontsumitzen dute herrian, batez ere arropari dagokionez. Gure dendak kalera ateratzea ona da, batez ere, herrigunetik urrun gauden negozioendako", esan digu San Lorentzoko Arantza mertzeriako ugazabak.

Azken urteotan, krisiaren eraginez, asko izan dira itxi dituzten dendak: batzuk erretiroa hartu dutelako eta beste batzuk krisiak gogor astindu dituelako. Baina, oporretatik bueltan, hainbat denda zabaldu dituzte; horietako hiru Kale Zaharrean. "Gure kasuan, denda zabaldu dugu ume txikiendako arropa dendarik ez zegoela ikusi dugulako. Bideragarritasun plana egin genuen, eta emaitzak onak izan dira", esan digu Kukumiku dendako Sandra Vazek.

Txandako kideek erosleak herrian geratzeko hainbat ekintza egin dituzte urte hasiera ezkero: erosketa-karroak, poltsa berrerabilgarriak, sariak dirutan, *Txantxikuaren bila* jolasa...

### Abuztuko laguntza barik

Azken hiru urteotan abuztuan negozioak zabaltzearren laguntzak eman ditu Udalak. Aurten ez. EAJk partida bat zuen gordeta, "azken urteotakoa baino murritzagoa". Laguntza selektiboak ematearen aldeko erabakia hartuta zuten.

Bada, Bilduk alkatetza hartu zuenean, laguntzarik emango ez zuela esan zuen. "Gure programan laguntza zuzenik emango ez genuela jasota daukagu. Merkataritza bultzatzeko bestelako ekimenak egingo ditugu", esan digute.

**ESANAK**

**"Dendariok indarra eta erronkak ditugu aurrera egiteko"**

ALBERTO VESGA | TXANDAKO PRES.

### PARTE HARTZAILEAK

- Kukumiku haur jantziak
- Amalur belar-denda
- Sua bitxitegia
- Maibi ehungintza
- Kuttun lentzeria
- Irizar estankoa
- Juanitosa bazarra
- Olalde oinetakoak
- Marku arropa-denda
- Itziar optika
- Arkauz optika
- Aranburu pintura
- Mendizabal kirolak
- Beloki iturgintza
- Kimu-Urtxin loradenda
- Laket lurrindegia
- Arregi elektrizitatea
- M. Jose ile-apaindegia
- Lantzen mertzeria
- Sustrai fruta-denda
- Arantza mertzeria
- Txantxiku harategia
- Arkupe taberna

## Auzoetako traste zaharren bilketa etenda

**M.B.** | OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak batzen ditu traste zaharrak herrigunean eta edukiontzi berdeak dituzten auzoetan, eta gainerako auzoetako traste zaharrak Udalak batzen ditu hilean behin; bada, hori egiteko erabiltzen duten kamioia matxuratu egin da. Hori horrela, zerbitzua eten egin dute aldi baterako.

Kamioia konpontzen ahalegindu dira, baina ez dute lortu, eta berria ekarri arte ez dute trasterik batuko. Auzo-alkateek zabaldu dute oharra kaltetuak izango diren auzoetako baserrietan.

Eguenetan batzen dituzte traste zaharrak. Herritarrek aldez aurretik deitu behar dute 943 71 19 38 telefonora abisua emateko.

## Herriko futbol txapelketako B multzokoen lehen lehiak

**M.B.** | OÑATI

Herriko futbol txapelketako B multzoak aste bukaeran hasiko du liga. Hiru partidu jokatuko dituzte zapatua eta domeka artean: bihar, 14:00etan, Zorrobero-Joxely, eta 18:30ean, Indar 85-Sasquatch; eta domekan, 13:30ean, Ankarteko-Bundeswehr. Jardunaldi horretako azken partidua (Xaguxar-The Gibel Boys) atzeratu egin dute ezkontza bategatik. Aste bukaeran arduradun lanak beteko ditu Txuskos taldeak.

Bestalde, jardunaldia iragartzeko ipini duten karteletan zehazten da azaroaren 2ko batzarrean (Aloñako egoitzan, 19:00) banatuko dituztela urteko egutegiak. Hori horrela, talde bakoitzeko kide bat batzarrera agertzea eskatzen dute.

## OHARRAK

**DEIALDIA**

1967ko kintoek afaria egingo dute azaroaren 12an Soraluze hotelean. 19:00etan elkartuko dira plazan, eta, poteoa egin ondoren, afaltzera joango dira. Interesatuek azaroaren 11 baino lehen eman behar dute izena. 35 euro sartu behar dituzte 3035 0005 35 0051045540 zenbakian.

**ZINEMA**

Natalia Smirnoff-en *Rompecabezas* drama emango dute eguneko zineklubean, 20:00etan. Argentinan eta Frantzian egindako pelikula da, eta buru-hausgarriak egiteko abilezia duen emakume baten istorioa kontatzen du.

**LEHIAKETA**

Gaztelekuak antolatzen duen *Batetik bestera* argazki lehiaketan botoa emateko azken eguna gaur da (18:30-20:00). Lehiaketara 19 argazki aurkeztu dituzte eta kuboan daude ikusgai. 150 eta 100 euroko bi sari banatuko dituzte. Aste bukaeran egingo dute boto kontaketa, eta sari banaketa astelehenean egingo dute.

**DISKO FESTA**

Sound Project DJak disko festa egingo du gaur, egubakoitza, gaztelekuko dantzalekuan. Egungo kanturik entzunenak eta ezagunenak izango dituzte gazteek dantza egiteko, 18:30ean.

### Transit Blues hirukote arrasatearrak zuzenekoa egingo du gaur, 20:00etan, Antton tabernan

Antton tabernako arduradunek beste kontzertu bat antolatu dute gaurko: Transit Blues hirukote arrasatearrak zuzenekoa egingo du, 20:00etan. Talde instrumentala da eta hiru lagunek osatzen dute. Hard rock eta blues estiloetan ondo baino hobeto moldatzen den taldea da Arrasatekoa, eta euren zuzeneko indartsua erakutsiko dute gaur. Eskarmentu handiko hirukotea da. Gainera, Deep Purple eta Jeff Beck taldeen tankera eta ukituak dituzte kantuetan.

### Nazioarteko trikiti jaialdian egingo den herri afarirako txartelak salgai daude, 20 eurotan

Hilaren 29-30eko aste bukaeran nazioarteko trikiti jaialdia egingo dute Oñatin, Lizargarate trikiti elkarteak antolatuta. Musika izango da protagonista, baina 29an herri afaria egingo dute kiroldegiko frontoian eta dagoeneko salgai dituzte txartelak: Umerez eta Urbia tabernetan eta kultura etxean eros daitezke, 20 eurotan. 400 bat lagun batu gura dituzte. "Trikitizaleendako eta zale ez direnendako deialdia da", esan dute antolatzaileek. Afalostean erromeria egingo dute.

# ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA



**Etxebizitza sektorea: garai berriak**
**Sukalde argitsuak**
**Ametsetako logelak**
**Kolorez betetako umeen gelak**
**Etxea egongela bihurtuta**
**Leihoak berritzea: inbertsio bikaina**
**Igogailuak: badator iraultza**

MOBLEC

bastidasukaldeak

ESKAINTZA BEREZIAK
ETXE TASATUENDAKO ETA BABES OFIZIALEKOENDAKO

ANIMA ZAITEZ!

**zarautz**
elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

**azpeitia**
perez arregi 9, 20730
tel./faxa: 943 15 05 10

**bergara**
ibargarai 36-38, 20570
tel./faxa: 943 76 70 58



# Sektoreak estutu egin du gerrikoa



Gelma zegoen lurzoruan saltzen dabiltzan promozioaren irudia. | BIBAI ETXE-AGENTZIA

**Gipuzkoak etxebizitzen krisia gutxiago nabaritu arren, prezioak moldatu ditu** | IMANOL GALLEGO

Argi dago etxebizitza eta eraikuntzaren sektorea krisi garai luze baten barnean dagoela, eta horrek etxebizitzen salmentan, eraikuntzan beherakada nabarmena eragin du, prezioak asko estututa.

Gipuzkoarentzat krisi hori arrotza ez den arren, hainbat arrazoirengatik, haren intentsitatea askoz ahulagoa da. Beste toki batzuetan gertatzen ez zen moduan, Gipuzkoak oso hazkunde orekatua izan du, eta, zenbait herri asko hazi diren arren, oraindik etxebizitza berriak egiteko beharra dago. Asko eraiki den arren, kasu askotan etxebizitza horiek ez dira egokienak izan. Mauricio Arregik, Grupo Ormak-eko gerenteak, argi utzi du zein den bere enpresaren estrategia: "Gu eroslearen azalean jartzen gara, eta, salmenta prezioa ahalik eta gehien jaitsi dugun arren, kalitate maila mantentzeaz gainera, erosleak dituen beharrak asetzen saiatzen gara". Hor dago gakoa, familia motak ugaritu egin dira eta etxebizitzak ere egokitu egin behar dira. Horrekin batera, salneurria ere egokitu beharra dago.

Gurean 2008. urtearen amaieran hasi zen salneurria krisi egoerara egokitzen. Kasu askotan, prezioek behera egin ez duten arren, hiru urte hauetan ez dute igoerarik izan, eta, egun, duela hiru urte baino eskuragarriagoak dira. Bada, hainbat etxe-agentzia etxebizitza berriak ia tasatuen salneurrian eskaintzen hasi dira. Grupo Ormak-eko Mauricio Arregik dioenez: "Esfortzua erantzun ona edukitzen hasi da eta jendeak gure etxeak erosteko asmoa azaldu digu". Beherapen edo promozio horiek, kostuetan eragina izan arren, ez dute kalitatean eraginik izan: "Ez dugu kalitatea jaitsiko; gure asmoa ez da eraikin hutsak eraikitzea, bizi izateko etxeak baizik".

**"Prezioak jaitsi arren, kalitatea mantendu nahi izan dugu"**

Eva Diaz de Mendibilek, Sukia Eraikuntzak enpresako gestoreak, etxebizitza berria prezio onean erosteko momentu ezin hobea dela dio: "Arrasaten, hiru hilabetean, eraikitzen hastear gauden 40 etxebizitzako promozio berri baten (Uribarri) %50 jada saldu izana ez da kasualitatea". Izan ere, Sukiak zera eskaintzen du: "Gauden egoerari egokitutako etxebizitzak, bigarren eskuko etxeen prezioekin eta familia bakoitzari behar dituen erraztasun guztiak jarrita". Adituek argi dute: etxebizitza berria erosteko garaia hau da. Batetik, Gipuzkoa eta gure inguruan stock handia dagoelako eta momentu honetan kalitatea eta prezioa oso orekatuak daudelako. Dena den, erosleek, ahalik eta prezio merkeenak lortzeko, formula ezberdinetara jo dute.

**"Epe laburrean ez da jaitsiera nabarmenik egongo"**

### KOOPERATIBEN IGOERA

Askok ezagutzen ez duten arren, etxe kooperatiba bat eratzea hainbat urtean zehar erabili den formula da. Bertan, bazkideek promotore lanak egiten dituzte, eta, horrela, %20 eta %25 artean aurrez-



Eskoriatzan kooperatiba erregimenean eraiki

Carrascal aroztegia
SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK
Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • Faxa: 943 10 69 66
scarrasc_1@infonegocio.com
ESKAINTZA BEREZIAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA



UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak




**Bolibar bidean familientzako eraiki dituzten etxeak.** | SUKIA


**Bergarako San Lorentzo auzoan bukatu berri duten eraikina.** | GRUPO ORMAK


**diren zenbait etxe.** | ARRASATE INBERTSIO ETA ZERBITZUAK

ten dute. Arrasate Inbertsio eta Zerbitzuak enpresak 20 urte daramatza etxe kooperatibekin lanean eta azken urte hauetan igoera sumatu dute. "Gure eskaintzan ez da kalitatea aldatzen, baina, promotorerik ez dagoenez, hor dago aurrezkia", diosku Olatz Zubiak, Arrasate Inbertsio eta Zerbitzuak enpresako gestoreak. Halako kooperatibek, krisi egoerak bultzatuta, euren eskaintzak asko handitu dituzte, eta horrek erosle talde handiago batera iristeko ahalmena eman die.

Dena den, formula berriak edo zaharrak, kontua da erosle bakoitzak bi kontzeptu argi eduki behar dituela: lehena, nolako etxea nahi duen; eta bigarrena, zein aurrekontu daukan. Bi kontzeptu horiek argi eduki ondoren, inguruko etxe-agentziaren batean beretzat espresuki egina dagoen etxea topatuko du.

## BEZa %4tik %8ra igoko da

Gorka Lamy-k, Gelmako etxebizitzak saltzen dituen BIBAI etxe-agentziako zuzendariak, gogora ekarri duenez, urtarrilaren 1etik aurrera etxebizitza berrien BEZa %8koa izango da; ez %4koa, orain den moduan. Esaterako, 300.000 euroko etxe berria erosten duenak 12.000 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Horregatik, etxe berria erostea pentsatuta daukan jendeak "aurten erosiko duela" uste dute. Lamyren ustez, %4 mantendu beharko litzateke, zentzu handirik ez duelako bigarren eskuko etxebizitza erosten duenak %2,5 edo %4 ordaintzea eta berriak erosten duenak %8.



Adituek garbi dute: etxebizitza egokia aukeratuta edukiz gero, hura erosteko unea da. BEZaren aldaketa horrek, gainera, etxebizitzei ez ezik, garajeei ere eragingo die. Neurri horrekin, Gobernuak salmentetatik jasotzen duen diru kopurua handitu nahi du. Sektoreak, baina, kontrakoa uste du. Adituek dagoeneko ohartarazi diote exekutiboari gutxiago jasoko duela, 1993. urteko igoerarekin gertatu zen moduan.

ION leihoak
ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK

**ARRASATE**
Telleria kalea 4 • Pab. 11
Aramaioko bidea
(Markulete Ind. inguruan)
Tel.: 943 79 11 35

**GASTEIZ**
Olagibel 51
Tel.: 945 25 71 73

KÖMMERLING®
K21

PRODUKTU BERRIAK



ESKAINTZA
- 3,45 x 1,55 m-ko sukaldeko altzaria.
- 4 cm-ko Duropal entzimera.
- 178 cm-ko hozkailu integratua.
- Ontzi-garbigailu integratua.
- Labe-bitrozeramika multzoa.
- Kanpai apaingarria, 60.
- 27 kolore aukeran.
- Lehenak salmentetan EUROPAn.

4.400 €*
MUNTAIA eta BEZa barne
5 URTEKO GARANTIA

* Baldintzak eta modelo desberdinak dendan ikusgai. Osagarriak ez daude barne.




ARITZ
erreformak
sukaldeak
Tel.: 943 03 78 73
Zerrajera kalea 1 L-2
20500 **ARRASATE**

- Sukaldeko altzariak
- Koltxoiak
- ZAHARBERRITZEAK (Gremio guztien koordinazioa)
- Lurzoruak, ateak eta armairuak



**Mahai eta aulkiak, aintzat hartu behar dira.** | URBIETA SUKALDEAK



**Tiratzaile bariko ateak** | CARRASCAL



**Zuri koloreko sukaldeak eskatzen dira, gehienbat.** | URBIETA SUKALDEAK



**Kolore**

# Sukalde praktikoak, kolore argiz jantzita

## Erosotasuna eta diseinu erakargariak uztartzen dituzte egungo joerek | TXOMIN MADINA

Sukalde bat erostea ez da eguneroko zerbait, eta, behin erosita, ez da berehalakoan aldatzen den gune bat. Erabaki garrantzitsua da, beraz, sukalde aproposa aukeratzea.

Aintzat hartu behar den gauzetako bat da sukaldea berria edo zaharra den. Izan ere, Iker Sukaldeetako Pello Balantzategik azaldu duenez, etxe berri batera sartzean, dauden instalazioetara moldatu behar izaten da sukaldea; sukalde bat eraberritzeak, bestalde, askatasun eta aukera handiagoak ematen ditu gauzak norberak nahi duen moduan jartzeko.

Dena den, sukaldea eraberritzeak ere badakartza kontuan hartu beharreko xehetasunak. Hori azaldu digu Haritz Erreformetako Jose Antonio Gilak: "Garrantzitsuena da jakitea non jarriko ditugun etxetresna elektrikoak, eta nahi dugun lekuan jartzeko aukerak ere aztertu behar dira". Besteak beste, zorrotenak, ur-harguneak eta konexio elektrikoak zeintzuk diren jakin behar da; garbigailuen eta halakoen hustubideekin ere kontuz ibili behar da.

### PRAKTIKOTASUNAREN BILA

Baina sukalde bat jartzeko orduan, zeri eman behar zaio garrantzi handien, praktikotasunari ala diseinuari? Sukaldeak saltzen dituzten denda gehienetan galdetuta, erantzuna argia da: praktikotasunari.

Praktikotasun hori lortzeko hainbat detaile hartu behar dira kontuan; kaxoiak eta armairuak, esaterako. Bastida Sukaldeetako Eli Madinagoitiak azaldu digunez, komenigarriena da behealdean kaxoiak egotea eta goikoan, armairuak.

Kaxoietan ere badaude hainbat aukera. Izan ere, Carrascal Sukaldeetako Gemma Carrascalek dioen moduan, "egun sukaldeetan burdineria asko jartzen da; esaterako, eraisgarriak diren ateetan. Baina baita frenoak dituzten kaxoiak, botilendako lekuak eta kanpora atera daitezkeen despentsak ere". Ez hori bakarrik, botoi bati emanda ireki eta ixten diren kaxoiak ere gero eta gehiago ikusten dira. Urbieta Sukaldeetako Ainhoa Urbietaren esanetan, espazioak justukoak izanda ere ahalik eta gehien aprobetxatu gura izaten ditu jendeak eta armairu askoko sukaldeak eskatzen ditu. Urbietaren esanetan, lehen aipatutako aparailuekin eta izkinako tolesga-




# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



BERMEA 2 URTE
1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
**ALF 1106 GARBIGAILUA**
**260 €** aspes



BERMEA 2 URTE
1200 b/min
6 Kg
A++ Sailkapen energetikoa
**3F-2612 GARBIGAILUA**
**315 €** FAGOR



KAPSULADUN FAGOR KAFE-MAKINA OPARI
BERMEA 2 URTE
1200 b/min
8 Kg
A+++ Sailkapen energetikoa
**F-4812 GARBIGAILUA**
**485 €** FAGOR



BERMEA 2 URTE
A+ Sailkapen energetikoa
**2LF-013SX ONTZI-GARBIGAILUA**
**399 €** FAGOR



BERMEA 2 URTE
**IF-3BS/BX INDUKZIOA**
**435 €** FAGOR



BERMEA 2 URTE
A+ Sailkapen energetikoa
**6H-760AX LABE PIROLITIKOA**
**460 €** FAGOR



BERMEA 2 URTE
1440 x 545 x 600
A+ Sailkapen energetikoa
**ZEN-F211 HOZKAILUA**
**310 €** edesa



"BRITA" OPARI
BERMEA 1 URTE
1850 x 600 x 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
**FFJ-6725 HOZKAILUA**
**575 €** FAGOR



BERMEA 1 URTE
1850 x 600 x 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
**FFK-6735X HOZKAILUA**
**640 €** FAGOR



KAPSULADUN FAGOR KAFE-MAKINA OPARI
BERMEA 1 URTE
2000 x 600 x 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
**F-7148NFXDS HOZKAILUA**
**699 €** FAGOR

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK


puntua, sukalde gainekin. | CARRASCAL


Sukalde zuriak nagusi izan arren, ausartenendako aukerak ere badaude. | XEY



Antolaketa egokirako kaxoiak | XEY

rriekin, bandeja biratzaileekin, armairu osagarriekin eta zintzilikatzeko moduluekin espazioak hobeto aprobetxatzen dira.

Sukalde gainak dira beste elementu garrantzitsu bat, eta, kasu horretan ere, praktikotasunari dagokionez bada gomendiorik, Pello Balantzategik azaldu digunez: sukalde gainak altu jartzea gerriko minak ekiditeko.

**KOLORE ARGIAK NAGUSI**

Praktikotasun eta erosotasunari garrantzia kendu barik, diseinua ondo aukeratzea ezinbestekoa da; izan ere, bertan denbora laburragoa edo luzeagoa pasata ere, gustura egotea komeni da.

Horren harira, kontsultatutako denda guztietan esan digute joera dela altzariek linea zuzenak izatea, eta, ondorioz, kaxoietako eta armairuetako tiratzaileak desagertzea. Tiratzailerik ez badago, nola ireki armairuak? *Uñeroak* edo tiradore bako ateak dira konponbidea, gero eta jende gehiagok egiten duen aukera. Eli Madinagoitiaren esanetan, gainera, ateak lauak edo tiratzaile bakoak izateak garbitzea errazten du.

Beste joeretako bat da, Jose Antonio Gilak azaldu digunez, sukaldeko kanpaiak bistan egon beharrean integralak izatea.

Koloreei dagokienez, erosle gehienek aukera bera egiten omen dute: sukalde zuriak edo kolore argikoak jartzea. Ainhoa Urbietaren esanetan, kolore horiek argitasuna eta anplitudea islatzen dute.

## Linea zuzeneko altzariak eskatzen dira gehien

Hala ere, badira sukalde lilak edo berde kolorekoak eskatzen dituztenak ere, batez ere gazteak.

Dena den, sukalde zuri edo tonu argikoetan kolorea sartzeko hainbat aukera ere badaude. Horietako bat da, Ainhoa Urbietaren esanetan, sukaldeko osagarriak, hau da, mahaiak eta aulkiak erabiltzea: "Aulkiek ere protagonismoa dute sukaldeetan, eta, askotan, horiek jartzen dute kolore puntua".

Kolore puntua sukalde gainek ere ematen dute, Aranzabal Sukaldeetako Arantxa Arantzabalen esanetan. Izan ere, normalean grisak edo beltzak izan arren, aukera izaten da kolore ikusgarriagoetakoak izateko. Sylestonezko sukalde gainak dira gehien aukeratzen direnak, nahiz eta beste material batzuetakoak ere izan daitezkeen; esaterako, granitozkoak edo marmolezkoak.

Arantzabalen esanetan, gainera, diseinuari dagokionez ez da arraroa sukaldea eta egongela espazio berean egotea, eta, kasu horretan, osotasuna hartu behar da kontuan.

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK**

Sukalde batek, baina, ezer gutxirako balio du etxetresna elektrikorik gabe, eta, horri buruz galdetuta, Almacenes Arrasateko Igor Loitiren esanetan, egun asmatu beharreko guztia asmatuta dago, nahiz eta kasu batzuetan etxeko sukaldeetara heldu orduko denbora igaro. "Labe pirolitikoak aspaldi asmatu ziren arren, duela bospasei urtetik hona ari gara asko saltzen", azaldu digu.

## Mahaiek eta aulkiek kolore puntua jar dezakete

Loitiren esanetan, eurek egun saltzen dituzten sukaldeen %95 indukziozkoak dira. Azken joeren inguruan berba egiten hasita, Servimasako Mikel Etxanizek dio bitrozeramiken kasuan, esaterako, lau hiruzpalau berogune izaten bazituzten ere, gaur egun plaka osoa berotzen duten plakak hasi direla indarra hartzen. Etxanizek gaineratzen du oraindik asko sartu ez den arren lurrunezko labeek poliki-poliki lekua egingo dutela merkatuan, besteak beste, jakiek bitamina gehiago mantentzen laguntzen dutelako.

Prezioen inguruan galdetuta, Igor Loitik dio, deigarria den arren, azken hamar urteetan etxetresna elektriko gehienen prezioa mantendu egin dela, zenbait kasutan baita jaitsi ere.




AZKEN 9 ETXEBIZITZAK SALGAI
2012KO UDARAKO PREST
ESKORIATZA
Elorreta S. Coop.
ETXEBIZITZAK KOOPERATIBAN KOSTU PREZIOAN
BOLIBARKO BIDEAN, ERDIGUNETIK GERTU
2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
arrasate
etxebizitza kooperatiben kudeaketa
gestión de cooperativas de vivienda
Iturriotz, 11 • Arrasate
www.inmoarrasate.com
943 77 14 11

# Ametsetako logela badago

**Norberaren gustuetara egokitzen diren logelak egiten dituzte gaur egun; gazte zein nagusi, denen gustukoak** | ARANTZAZU EZKIBEL

Logela aukeratzerakoan hainbat gauza izan behar dira kontuan: alde batetik, logela atseden hartzeko tokia dela argi izan behar dugu. Horregatik, komeni izaten da aukeratzen ditugun altzariak –batez ere ohea– erosoak izatea. Bestalde, erosotasunak eta dekorazioak ez dute zertan sokaren mutur banatan egon. Hau da, badaude erosoak, erabilgarriak eta politak diren altzariak.

Horregatik, lotan, ametsetan gauden bitartean ere eder egon gaitezke. Norberaren gustuen eta ilusioen arabera egingo dizkigute logelak.

### ESPAZIOA APROBETXATU

Amuebladora Mondragonesan azaldu digute gaur egun etxe txikiak egiten direla eta horregatik espazioak ondo aprobetxatu beharra egoten dela.

"Gazteen logeletan asko egiten duguna da txokorako armairuak; hau da, armairua bi hormatan oinarritzen dugu eta modu horretan espazioa hobeto aprobetxatzen da", azaldu digute. Gainera, oheak ere altuxeagoak jartzen dituztela azaldu du: "Konpaktu deitzen ditugun oheak jartzen dira asko; habia-oheak baino altuagoak dira, azpialdean kaxak izaten dituzte eta modu horretan arropa edo bestelako gauzak sar daitezke", gaineratu dute. Gainera, mahaiak edo gainontzeko altzariak modularrak izaten dira eta logelaren neurrira egoki daitezke.

### KOLORE ARGIAK

Koloreei dagokienez, kolore argiak jartzen dituzte gazteek: "Zuria, harea kolorea, errauts kolorea... aukeratzen dute gazteek. Gris tonuak oso modan daude gaur egun", dio Manuk. Egurra sartzen badute, intxaurrondo eta wenge koloreak dira gazteek gehien erabiltzen dituztenak, Amuebladora Mondragonesakoen esanetan.

Ugarte Aroztegian ere ados daude horrekin: "Wenge kolorea asko erabiltzen da, eta baita gris errauts kolorea ere". Gainera, zuria eta beltza asko nahasten dutela gazteek esan digute, eta, katalogoetan kolore biziko osagarriak agertzen diren arren, errealitatean jendea ez dela horrelakoak egitera ausartzen azaldu dute Ugarte Aroztegikoek.

Material sintetikoa erabiltzen da asko: melamina. "Oso samur garbitzen den materiala da", diote Amuebladora Mondragonesan. Gazteek diseinu zuzena eta lineala izaten dute gustuko; ez, ordea, jende nagusiagoak: "Diseinu landuagoa eskatzen dute nagusiek", azaldu dute.

**Etxe txikietan espazioa aprobetxatu behar da**

**Kolore argiak asko erabiltzen dituzte gaur egun gazteek**

### NAGUSIEN GUSTUAK

Amuebladora Mondragonesan esan digute jende nagusiak egurrera jotzen duela gehiago, eta forma landuagoak gura izaten dituela. Horren gainean Ugarte Aroztegikoek esan dute nagusiek egurrera jotzen duten arren linea zuzenak bilatzen dituztela: "Izan ere, pieza torneatuak lehen ere bazituzten", azaldu dute.


Gris koloreak asko erabiltzen dituzte gazteek. | GOIENA


Zuri eta beltz nahasketa asko erabiltzen da. | GOIENA

URBIETA
sukaldeak, bainuak eta zeramikak

Sukalde eta bainu erreformak,
diseinua eta gremioen koordinazioa
•
Sukalde-bainurako altzariak,
zeramika eta dekorazioa orokorrean



Ibargarai kalea 11-13 • BERGARA • Tel./Faxa.: 943 76 14 50

BANATZAILE OFIZIALA: DOCA PORCELANOSA




Jose Aranzabal
Dr. Bañez 2
Tel.: 943 79 18 92
Arrasate
FAGOR

Promozio iraunkorrak • Finantzaketa automatikoa





**Linea zuzenak eramaten dira.** | GOIENA



**Harea koloreko armairua eta horma gris iluna.** | GOIENA





**Lekua aprobetxatzeko, armairuak bi hormatan egiten dira.** | GOIENA



**Egurrezkoak eta landuagoak izaten dira nagusien altzariak.** | GOIENA

ASCENSORES HEMEN

**Zerbitzurik onena, prezio ezin hobean!**
**Zure komunitateak igogailuaren**
**mantentze-lanetan %50 aurreztuko du.**

Informa zaitez:
Tel.: 943 04 40 01
*debagoiena@ascensoreshemen.com*
*www.ascensoreshemen.com*
**Debagoienean errealitate bat gara.**

- Ohar eta erreskateen asistentzia
- 24 ordu jarraian
- Asteburu eta jaiegunak barne
- 10 urteko esperientzia




SVMS
SERVIMASA
*Sukaldeko altzariak eta osagarriak*

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

# Haurren gelak, koloretsu

## Sinpletasuna da nagusi; kolore biziak: ohe-estalkietan, alfonbretan, hormetan eta heldulekuetan erabiltzen dira | IRATI GOITIA


**Tonu argiak kolore biziekin nahasten dira, umeen gelei bizitasuna emateko.** | KIBUK

Haurren logeletan sinpletasuna da nagusi, linea zuzenak eta xumeak erabiltzen dira. Hala ere, kolore biziak nahasten dira tonu argiekin; armairuen ateetan, ohearen estrukturan eta hormetan erabil daitezke koloreak. Horrela, bizitasuna lortu nahi izaten da umeen geletan.

### HORMAN, PAPERA ETA KLERA

Ugarte Aroztegikoek esan digute paperarekin lan handia egiten dihardutela azkenaldian: "Lehen, pintura erabiltzen zen; orain, papera dago modan. Hala ere, gela osoan jarri beharrean, horma batean bakarrik jartzen da, ohea doan paretan. Beste paretetan paperarekin egoki doan pintura tonua erabiltzen da".

Kibuc dendakoek, bestalde, esan digute pintura berezi bat saltzen dutela, zeinetan umeek lasai asko margo dezaketen klarionarekin, borratu egin daitekeelako. Beraz, umeek orain arte beti debekatuta izan dutena egiteko aukera dute, eta gurasoek burukomin bat gutxiago.

### OHE ALTUAK, KAXOIEKIN

Ohe altuak dira tendentzia, azpian estalitako ohea eta kaxoiak dituztenak; garai bateko habia-oheen tankerakoak dira, baina lehengo ohearen gainean beste bat jartzen da, eta azpian kaxoiak. Erdiko ohea estalita gelditzen da. Ugarte Aroztegiko Rosa Muradasek adierazi digu horren abantaila dela ohe-estalki bakarra erosi behar dela. Ohe horiek pareta ondoan kokatzen dira, ordea, eta zailtasunak izaten dira ohea egiterakoan. Hala, oheei gurpilak jartzeko aukera eskaintzen da.

### ARRISKU GUTXI

Ugarte Aroztegiko Muradasek berak esan digu linea zuzenak eta xumeak direla nagusi, sinpletasuna: "Eskulekuetan, ohe-estalkietan edo hormetan sartzen da kolore pixka bat, erraz alda daitezkeen gauzetan. Gainontzean, jendea ez da ausartegia izaten". Kibuceko Alaitz Olosabalek ere gauza bera dio: "Umeen geletan kolore argiak erabiltzen ditugu oinarri moduan, eta gero koloredun osagarriekin jolasten dugu adin eta sexuaren arabera". Horrela, gela aldatzen joan daiteke umea heltzen doan heinean. Muradesek gaineratzen du jendea gauza ezberdinen bila joaten dela dendara, baina gero ez dela ausartzen katalogoetan azaltzen diren gauza deigarriak jartzera.

**"Beharretara egokitutako gela diseinatu behar da"**

**"Hormetan pintura berezia; kleraz margotzeko"**

Ohe eta armairuetan ere sinpletasuna bilatzen da. Hormako armairuak jartzen dira gehien, eta, ezinezkoa bada, txokorako altzariak, gauzak gordetzeko lekua izateko. Koloreei dagokienez, zuria asko erabiltzen da, zilar ukituekin. Heldulekuetan sartzen da kolore apur bat.

### PRAKTIKOTASUNA

Bi adituek praktikotasuna gomendatzen dute: "Guk bezeroari eskatzen diogu bere beharrak kontuan izateko distribuzioa egiteko orduan".

Bi aroztegikoek diote bezeroek epe luzerako logelak nahi izaten dituztela: "Umeek 16 urte izaterainoko gela bat nahi izaten dute", dio Muradesek. Horrek diseinua ere mugatu egiten du. Izan ere, "kolore biziak sartuz gero, urte batzuen buruan nekatu egiten dira", gaineratzen du. Haurren kasuan, epe luzerako gelak diseinatzen dira.



**Ohe garaiak oso modan daude; azpian beste ohe bat eta kaxoiak dituztenak.** | WWW.ROS1.COM

### Jolastokia umeen gelan

Ugarte Aroztegikoek esan digute bezero askok umeen gelan haurrendako toki bat jarri nahi izaten dutela, umeek bertan jolasteko gunea. Aroztegiko Muradesen iritziz, baina, haurrak ez dira toki horietan jolasten, etxe osoko geletan baizik: egongelan, sukaldean... Gaineratzen du umeek jendea dagoen lekuetan egotea dutela gustuko, horrela, babestuta sentitzen direlako. Horregatik, Muradesek ez du gomendatzen horrelako gune bat egitea haurren gelan. Haren ustez, ohea, armairua eta ikasteko gunea dira ezinbestean jarri behar direnak.






etxeko txoko goxoan

Zure espazioaz gozatzea gustuko duzu. Maiteenak dituzunekin batera gozatu nahi duzu haren apaingarrien dotoretasun eta gustu ona. Etxean igarotzen dituzun uneak ulertzeko modu pertsonal eta bakarra da. Zuk egiten duzu Kibuc

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 **gureametsa@kibuc.com**

Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

www.kibuc.com

# Etxe osoa izan dadila egongela!

**Espazioak banatzea baino gehiago, bateratzea da joera; sofatan, teknologia eta konforta uztartzen dituzte** | JULEN IRIONDO

Egongela beti izan da topagune, etxean bakoitzak dituen espazio intimoagoetatik, edo esklusiboagoetatik irten eta besteekin batzeko lekua. Egongelaren espiritu hori etxearen zati handienera zabaltzen ari da orain; ez da berria jatorduak ere egongelan egiteko joera –egongelari "jantoki" edo "komedore" ere deitzen dio askok–, eta sukaldea bera ere ari zaio batzen denak batera egon gura horri.

Hala baieztatzen du Azpeitiko Kibuc Gure Ametsa dendako Alaitz Olazabalek: "Eguneko gunea handitzea da joera, paretaren bat zabaldu eta sukaldea, jangela eta egongela lotzea, etxean esna gauden denboran denok elkarrekin egoteko: bat sukaldean dabilen bitartean, bestea sofan, edo haurra jolasean egongelan..." Bakoitza berean, baina denak batera. "Sukaldeko usainak, zaratak... etxe osora ez zabaltzeko ate higikorrak jartzen ditugu".

Etxea, egongela janzteko joerei dagokienez, berriz, batzuk nabarmentzen dira Kibuc Gure Ametsako arduradunaren esanetan: *Colorama* "joera garbia da 2012. urterako", Olazabalek dioenez. Joera horren arabera koloreak du indarra, kolore primarioek eta haien nahasketatik sortutakoek, batzuek besteen ondoan, argitsu: "Une zailetan animazioa behar da, alaitasuna bilatzen dugu edonon, etxeko giroan, adibidez, baikortasuna zabaltzeko". Olazabalen arabera, joera da egongelako osagarriei aplikatzea bizitasuna eta espazioko pieza garrantzitsuenak uztea kolore neutroetan, zurian, grisean... Joera honek hainbat denboraldi iraungo omen ditu, eta ez ei da gazteendako bakarrik: "Kolorea adin guztietarako da".

**Kolorea ibiltzea etxea janzteko: baikortasuna zabaltzen du**

Beste joera bat da *Naturalarena*. Beix, kafesne edo gris koloreak, "sustraietara itzulera", baita materialetan ere –haritz egur naturala eta intxaurrondoa tonu argietan–, eta piezak egiteko moduan ere bai. Eta beste joera, beti boladan dagoena, *Zuria eta Beltza*, soila, elegantea.

Eta argiaren presentzia, altzarietan barneratuta, zeharkako argi bezala erabiltzeko, indartsu datorren beste joera bat da, Kibucekoaren arabera.

## SOFAK, KIBUC ETA OKENDO

Sofa izan ohi da egongelako elementu nagusietakoa. Teknologia eta konforta uztartzen dituzten sofak dira, egun, arrakastatsuenak, Gure Ametsako



Familia batera egoteko lekua da egongela. | KIBUC

Joera 'Naturala' ere boladan dago. | KIBUC

Kolorea, zuri eta beltzarekin konbinatuta. | KIBUC





Egurrezko mahaia eta aulkiak Okendon, egongelako jatorduetarako aproposak. | J.I.



Era askotako larruzko sofak aurki ditzakegu Okendo Natura-Konfort Arrasateko dendan. | JULEN IRIONDO

Alaitz Olazabalen esanetan: gorputzeko atal guztiak eroso egon daitezen sofa edo bere zatiak mugitzeko edo zabaltzeko aukera ematen dutenak, berogailudunak...

Sofak dira, hain justu ere, Arrasateko Okendo Natura-Konfort dendan –Amuebladora Mondragonesa taldekoa– egongelarako aurki ditzakegun altzari eta osagarrietako bat, nagusia. Sofa italiarrak, adibidez: "Italiarrak entzunda batzuek pentsatzen dute garestiak izan behar dutela, baina oso prezio lehiakorrak ditugu", dio Maribel Urrutia dendariak. Larruzko sofei dagokienez, larru sendo eta ona dutela gaineratzen du: "Urte asko irauten duten sofak dira, eta klasikoak, modernoak, askotarikoak ditugu".

Okendoko Maribel Urrutiaren esanetan, sofa aukeratzerakoan kontuan izan behar dira zenbait gauza: nola esertzen diren erostera doazen pertsonak, ze garaiera duten,...: "Gazteei eta helduei sofa desberdinak komeni zaizkie. Dendara datorren jendeari azaltzen diogu hau. Garrantzitsua da sofan gustura egotea. Sofa egokitu behar da zure gorputzera, eta ez alderantziz".

Sofak, altzari auxiliarrak eta beste hainbat osagarri dituzte Okendon: koadroak, modernoak eta betikoak; alfonbra modernoak, "oso ondo saltzen direnak"; lanparak, diseinuzkoak ere bai; ispiluak; pitxarrak... "Etxea apaintzeko osagarriak", dio Maribel Urrutiak.

## Egur-egurra, altzarietarako

Material berri eta modernoekin egindako altzariekin batera egurrezkoak dituzte, nola ez, Amuebladora Mondragonesa taldeko Okendo Natura-Konfort Arrasateko dendan. Egur-egurrezkoak, gainera, imitazio eta bestelako barik.

"Altzari auxiliarrak ditugu dendan, mahaiak, bitrinak... egurrezkoak. Oso produktu ona da, eta prezioz ere ez da irteten", dio dendako arduradun Maribel Urrutiak. Prezio lehiakorrak ditugula diote bezeroek eurek".

"Egurrezko altzaria beti dago boladan eta edozein estilorekin konbina daiteke", dio Urrutiak.



Egurrezko altzaria.






Begiratokiak ere eder askoak egiten dituzte. | ION LEIHOAK



Kanpoko argi guztia jasotzen dute *porche* ikusgarri horretan. | ION LEIHOAK

# Leihoa inbertsioa da, ez gastu hutsa

## Gauzak argi dituzte Arrasateko Ion Leihoak enpresan: "Etxean isolamendu egokia edukitzeak energia aurrezten laguntzen du eta bizi kalitate hobea lortzen da | SERGIO AZKARATE



Etxe barruko leihatea. | ION LEIHOAK

Produktuaren "akabera perfektua lortzea eta bezeroa pozik eta asebeteta uztea"; bada, bi premisa horiek lortuta, "helburua beteta" dute Ion Leihoak enpresan; izan ere, kalitatea da haien ikur eta oinarri nagusia.

Hain zuzen ere, zur-arotzeriako eta metal-arotzeriako produktuen fabrikazio eta komertzializazioan egiten dute lan eta leihoak, ateak, eskailerak, eta abar dituzte euren eskaintza zabalaren barruan.

Eta leihoei dagokienez, askotarikoak dituzte: PVCzkoak, aluminiozkoak, poliuretanozkoak, egurrezkoak eta mistoak (egurra eta aluminioa). Eta "itxiturak ere, noski, modu askotakoak" dira.

Leihoen ezaugarriei dagokienez, "badago aldea, bai, leiho batetik beste batera, baita material berekoak badira ere. Prezioa, ere horren arabera, merkeagoa edo garestiagoa da".

**"Leihoa ez da ireki eta ixten den zerbait, ongizatea da"**

### ISOLAMENDUA, GAKOA

Horren harira, isolamendu ona edukitzeak "onura asko" dakartzala dioskute Ion Leihoetakoek; onura garrantzitsuena, "ongizatea, bizi kalitatea". Jendeak horri heldu behar diola uste dute, horretaz konturatu behar duela. Eta krisi garaian gaudela kontuan hartuta, are gehiago: "Energia aurrezten da, gasa dela, elektrizitatea dela... berokuntza, aire girotua... Guztian aurrez dezakegu".

Izan ere, hainbat ikerketak diote leiho onak erosita, inbertsio hori 10 urtean amortizatuta dagoela, gutxi gorabehera, energia aurrezpenean. "Leihoa ez da etxean daukagun zera bat zabaldu eta itxi egiten dena, askoz garrantzi handiagoa eman behar diogu. Leihoetan dirua gastatzea inbertsio bat da", azpimarratzen dute. Horrez gainera, etxea ondo isolatuta egonda, kanpoko zaratarik ez da entzuten eta akustika ezin hobea da. Estetikan ere pentsatu beharra dago, noski: "Askotariko koloreak eskaintzen ditugu, baita aluminioan ere".

### BEZEROA ASEBETETA UTZI

Ion Leihoetan merkatuko marka nagusiekin egiten dute lan eta euren jardunaren erakusle da K-21 kalitate ziurtagiria daukatela (ISO 9000ren baliokidea): "Bezeroaren asebetetasuna bilatzen dugu, beti; hori dugu oinarri. Eta lortu egiten dugu. Partikularrak dira gure bezero gehienak, obra txikia, eta tratu pertsonalizatua eskaintzen diegu".

Hortaz, udazken-negua, hotza, gainean dugun honetan, une egokia da leihoetan "inbertitzeko".





- 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
- Garaje eta trastelekuak

Lehen BEZ-a %8a
Orain Etxebizitza berrian BEZ-a %4a
Etxebizitzen bukaera 2012

SAN LORENTZO AUZOA
BERGARA



Logela bateko etxebizitza
139.000 €-tik aurrera
Bi logelako etxebizitza
168.000 €-tik aurrera
Hiru logelako etxebizitza
216.000 €-tik aurrera

Eraikitzailea INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea Ormak

Argibidea eta Salmenta
943 42 44 30
www.ormak.es

# Aretxabaleta erdi-erdian

## Etxebizitzen 2. fasea – Prezio berriak

**2011n etxea erosten baduzu, BEZ-a debalde! Guk ordainduko dizugu!**
**Garajearen alokairua DOAN lehen urtean!**






**2 eta 3 logelako etxebizitzak**

•

**Sukaldea jantzita**
**(altzari eta etxetresna elektrikoak barne)**

•

**Trastelekua beheko solairuan**



GRUPO ORTUIBAR

**Etor zaitez informazioa jasotzera, konpromisorik gabe:**
Iturrizar 1, behea – ARETXABALETA – Tel.: 943 79 40 00
Ibargarai 36, behea – BERGARA– Tel.: 943 76 11 18
*www.ortuibar.com - ortuibar@telefonica.net*

## Iban Sanchez | Hemen Igogailuak

# "Kostako zaigu, baina aldaketak onak dira"

**Hemen Igogailuak sektorea hankaz gora jartzera dator; komertzial buruaren hitzetan, "garestiena ez da beti onena"** | IMANOL GALLEGO



Sanchez, Hemen Igogailuek kudeatzen duten igogailu batean. | I.GALLEGO

**Azken urte hauetan, igogailuen sektorea nabarmen hazi da, ezta?**
Halaxe da, bai. Lege berriek gauzak erraztu dituzte. Lehen, igogailu bat jartzeko aho batez onartu beharra zegoen; orain, berriz, ez dago horren beharrik. Jende nagusiak edo elbarrituren batek eskatuz gero, proiektuak aurrera egiten du.
**Horrez gainera, jendeak ere beste ikuspuntu bat dauka, ezta?**
Bai, noski. Azken urte hauetan jendeak ikuspuntua nabarmen aldatu du. Orain, jendeak igogailua beharrezko zerbitzu moduan ikusten du, eta, pisu bat saltzea zaila bada, igogailurik ez badu ia ezinezkoa da.
**Zein da Hemen Igogailuek eskaintzen duten berrikuntza?**
Prezioa, duda barik; guk sektoreko gainontzeko enpresek ematen duten zerbitzu bera ematen jarraitzen dugu, eta, kasu batzuetan, prezioa ia erdira jaistea lortu dugu.
**Zerbitzu bera?**
Eta zenbait kasutan hobea. Guk, gainontzeko enpresek egiten duten moduan, 24 orduko asistentzia eskaintzen dugu, baina asteko zazpi egunetan. Beste zenbaitek, legeak behartzen ez duenez, zapatu eguerdian eta domekan ez dute zerbitzu espres hori eskaintzen.
**Eta non dago gakoa?**
Ez da sekretua. Azken urte hauetan igogailuak jartzen dituzten enpresek kostu azpitik saldu dituzte igogailu asko eta diru hori berreskuratzeko bost urteko kontratuak eskaintzen dizkiete bizilagunei. Horrela, hasieran irabazi ez duten dirua berreskuratzen dute. Guk, berriz, ez dugu igogailurik jartzen, mantentzelanez soilik arduratzen gara.

**"Prezioa jaitsi arren, zerbitzu bera ematen dugu"**

**Ia %50eko beherapenez hitz egin dugu, baina zenbakiek hori adierazten dute?**
Bai, noski. Oñatiko eraikin batean hilean 350 ordaintzen zutela esan zidaten, hori gehiegikeria da! Kasu horretan, gurekin 160 euro ordaintzera pasako lirateke. Alde izugarria dago!
**Baina hemen enpresa ugari daude eta zerbitzu mota ugari eta prezio asko egongo dira.**
Harrigarria bada ere, hori ez da horrela gertatzen. Enpresa gehienak talde berekoak dira eta elkarren artean ez dago konpetentzia garbirik. Gu, zerbitzu ona eskainita, sasi-monopolio hori amaitzera gatoz.
**Zaila izaten da betiko enpresak oso errotuta dauden tokietan enpresa berri bat sartzea?**
Ez da erraza. Jendeak ez du aldatu nahi, betikoarekin gustura dagoenean kosta egiten da, baina gure prezioak eta zerbitzua ikusi ostean aldaketa egin izanaz pozten dira. Hau guztia frogatzeko, igogailua duten bizilagunei fakturak ondo begiratzeko esango nieke, eta ondoren erabaki dezatela.




iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

# II. Txistulari Egunak bailarako 40 bat txistulari elkartuko ditu

Domekan egingo dute eta Demetrio Iriarteren pieza asko joko dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Leintz bailarako II. Txistulari Eguna egingo dute etzi, urriak 23, gurean. Iaz Eskoriatzan egindako jaiaren txanda hartu dute aretxabaletarrek.

Eskoriatza, Arrasate eta Aretxabaletako txistulariak elkartuko dira eta aurten Oñatiko batzuk ere etorriko dira; guztira, 40 inguru. Hona eguneko egitaraua: diana herriko kaleetan (10:30) eta alardea plazan (12:30).



Aretxabaletako hainbat txistulari, Andramari jaietan. | M.A.

**Demetrio Iriarteren piezak**

Demetrio Iriarte (Oñati, 1915-Aretxabaleta, 1997) txistulari handia hartu dute ardatz II. Txistulari Egunean: "Erabaki genuen Aretxabaletan bertan sortutako piezak jotzea, eta horregatik Demetrioren hainbeste lan. Pieza horiek lehen asko entzuten ziren gurean eta orain gutxiago; hortaz, berriro gogora ekarriko ditugu", argitu du Jokin Antxia txistulariak. Eta gaineratu du oso lan politak direla.

Alardean joko dituzten 16 piezetatik 11, hain zuzen, dira Iriartek egindakoak; horien artean daude: *Arabako otoitza* eta *Zorionak* –zortzikoak–, *Udaberri* eta *Alkar* –dianak–, *Loramendi* eta *Muru Alde* –biribilketak–, eta *Eraña tar Erramon* –arin-arina–. Ekaina ezkero elkartu dira astero piezak ikasteko eta atzo egin zuten entsegu nagusia. Iñaki Barrena arrasatearrak egingo ditu zuzendari lanak alardean.

**Harremana sendotu**

Txistuak baduela bere tokia gurean dio Antxiak: "Dantzan egiteko, ekitaldi ofizialetan...". Baina ez dagoela modan gaineratu du: "Ez da gazteen gustukoa eta hori igarri egiten da. Lanerako materialak inoiz baino hobeak dira: txistuak, partiturak, ikasteko metodoak... Baina ikasi egin beharra dago eta maila bat lortu, gero gozatzen hasteko".

Bailarako txistularien arteko harremana sendotzea da Txistulari Egunaren helburuetako bat: "Lagunartean egon, errepertorioa trukatu, gazteengan zaletasuna sortu eta ondo pasatu, noski". Hala, bada, goiz partean lanean jardun ondoren Muru Alde elkartera joango dira guztiak bazkaltzera.

# Loramendiren eskutik Betagarri, Xutik eta Zain kontzertuan bihar

M.A. | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak 25 urte beteko ditu aurten, eta, ekitaldi nagusia abenduaren 17an izango bada ere, urteurren hori girotzen hasi gura dute. Hala, kontzertua antolatu dute biharko (21:30), Herriko Plazan: Betagarri, Xutik eta Zain taldeak izango dira.

**Doinu dantzagarriak**

Gasteizko Betagarri taldeak ibilbide luzea (1992an sortua) eta eskarmentu handia du (zortzi disko) ska eta beste hainbat doinu dantzagarritan: funka, popa, rocka... Eta arabarrekin batera doinu alaiak gustuko dituzten beste bi talde izango dira agertokian: Hendaiako (Lapurdi) Xutik taldea, *Mukaki Zpirit* lehen diskoa aurkeztu eta ska eta rock doinuekin plaza dantzan jarri nahian; eta Berriztik (Bizkaia) datorren Zain, rock, punk eta pop doinuak eskainita.

**Loramendi-Beinke dantza**

Loramendiren 25. urteurren ospakizun nagusian, abenduaren 17an, Beinke-Loramendi dantza egingo dute beste ekitaldi batzuekin batera. Lagun asko elkartu gura dituzte orduan eta dantza behar bezala ikasteko ikastaroa egingo dute datorren eguenean hasita, hilak 27, udaletxe zaharrean (19:00).

# Txatartegiak su hartu zuen martitzen goizean, eta hainbat kalte eragin lantegian

M.A. | ARETXABALETA

Martitzen goizean, 06:00 inguruan, hartu zuen su Etxebarri auzoan dagoen txatartegiak; eta ez dakite zerk piztu zuen sua.

Suak lantegiko makinaren bat erre zuela jakinarazi zuen Ertzaintzak, baita txatartegian pilatutako materiala ere. Ondorioz, sugar handiak sortu ziren eta suhiltzaileak 09:00ak bitartean izan ziren bertan lanean. Alboko enpresek ez zuten kalterik izan.

Inguru hartan bizi diren bizilagunak, ostera, haserre ziren, behin baino gehiagotan izan delako sutea txatartegian eta "arnasarik hartu ezin daitekeen kea" sortzen duelako.

# Merkatariendako ikastaro bi antolatu ditu Udalak

Erakusleiho-apainketa eta paketeria ikastaroak dira

M.A. | ARETXABALETA

Enplegu eta Garapen Sailak merkatariei zuzendutako ikastaro bi antolatu ditu azaroan egiteko: erakusleiho-apainketa eta paketeria. Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 2a artean eta udaletxera jo behar da edo posta elektroniko bidez jakinarazi: *larrea@aretxabaleta.net*. 12 lagunendako dute lekua bakoitzean, lehenengo izena ematen dutenendako.

Herriko komertzioetako jabe eta langileendako dira ikastarook, eta merkatariek eurak egindako eskaerari erantzun gura dio Udalak. Gainera, Gabonei begira teknika eta material ezberdinak ezagutzea ondo datorrela uste dute antolatzaileek "erakusleihoak eta Gabon opariak erakargarri egiteko".

Bi ikastaroak hamar ordukoak izango dira eta eguerdietan egingo dituzte (14:00-16:00), Arkupen. Erakusleiho-apainketa, azaroaren 14tik 18ra izango da, eta paketeria azaroaren 21etik 25era. Arlo horietan adituak etorriko dira eskolak ematera.

## Belar Meta dendak antolatuta desfilea gaur, Durana kalean

M.A. | ARETXABALETA

Durana Fashion Day izenarekin bigarren moda desfilea egingo dute gaur, hilak 21, Durana kalean (18:30). Belar Meta jantzi dendak antolatu du bigarrenez, eta herriko beste bi komertziok ere hartuko dute parte oraingoan: Haurrak jantzi dendak eta oraindik zabaldu barik dagoen M5 kirol dendak.

Herritarrek erakutsiko dituzte arropak eta disko jartzaileak girotuko du ekitaldia. Aretxabaleta Kirol Elkarteak, ostera, taberna jarriko du mokadutxoa eta edatekoa eskaintzeko.

## OHARRAK

**ARATZ-EN ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUA: 1.750**

Aratz elkarteak zozketa egin zuen joan den domekan, gastronomia eta folklore jaian. Zenbaki saritua hau da: 1.750. Eta ordezkoak: 1.960 (lehenengoa) eta 1.151 (bigarrena).

**'ANDREI RUBLEV' FILMA**

Kanpaien gaineko jardunaldien barruan, Andrei Tarkovskik 1966an zuzendutako filma emango dute bihar Arkupen (18:00). Sarrera 2 euro da.

**'ANTARTIKAKO LOREA' UMEENDAKO IKUSKIZUNA**

Erre Produkzioek *Antartikako lorea* ikuskizuna eskainiko diete 5 urtetik aurrerako neskamutikoei domekan Arkupen (17:00). Sarrera 3 euro da.

**EZTABAIDA BASOTXON**

Basotxo elkarteko kideek inmigrazioaren gaineko eztabaida mahaia egingo dute eguenean, hilak 27, Basotxon (17:30).

**BIODANTZA IKASTAROA EGUENETAN**

Biodantza hastapen ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak. Eguenetan egingo dute ikastaroa (19:30-21:30), kuartel zaharrean, eta lehenengo saioa datorren eguenean, hilak 27, da. Hain zuzen, ate irekiak antolatu dituzte ordurako. Argibide gehiago: 644 35 10 40 edo 665 73 17 66.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Garbittu
Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Arropa garbiketak

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

# Urte amaierarako gura dituzte etxebizitza tasatuen giltzak ematea

## Udalbatzak Mankomunitateko batzordeetako ordezkariak aukeratu eta ospitale berriko murrizketak salatu zituen, besteak beste, eguaztenean

MIIRAN BITERI | ESKORIATZA

Eguazten iluntzean egindako osoko bilkuran, Beñat Herce alkateak jakinarazi zuen hilaren 26an ezohiko bilkura egingo dutela, eta horretan, datorren urteko ordenantza fiskalak onartzeko asmoa izateaz gain, zaharren egoitzako patronatuko ordezkariak izendatuko dituztela. Horretaz gainera, gaineratu zuten Visesak eta Udalak urte amaierarako Santa Marina etxebizitza tasatuen giltzak emateko konpromisoa hartu dutela. Bestalde, Diputazioarekin ere batzartuta egon dela azaldu zuen, eta datorren urteari begira Udalak diru gutxiago jasoko duela iragarri ziotela han; hain justu ere, ekarpena %11 gutxiago izan daitekeela jakinarazi zioten.

Hori alkatearen jakinarazpenei dagokionez; baina, horrez gainera, beste 23 puntu landu zituen udalbatzak, horietako lau mahai gainean utzi bazituzten ere. Besteak beste, Debagoieneko Mankomunitateko batzorde informatiboetarako ordezkariak aukeratu zituzten: Ingurumen eta Garapen Ekonomikoan Leire Urtzelai (Bildu) izango dena eta Ogasun eta Pertsonalean, Beñat Herce bera.


Enrike Gorrotxategi itzultzailea, Morcillo eta Merino artean. | MIRIAN BITERI

### San Pedro berritzea

Bestalde, San Pedro kalea, 1. zenbakitik 9ra, berritzeko proiektuari aurkeztutako alegazioak aintzat ez hartu eta egitasmoa behin betiko onartu zuten. Alegazioei dagokienez, eztabaida egon bazen ere, alderdi guztietako ordezkariek nabarmendu zuten lehenbailehen hasi behar dutela esandako ingurunea berritzen.

Horrez gainera, Debagoieneko ospitale berrirako proiektuan egindako murrizketak salatu zituzten. PSE taldekoa izan ezik, gainerako beste zinegotzi guztiek EAJk aurkeztutako mozioaren alde bozkatu zuten.

Bestalde, eguazteneko osoko bilkuran itzultzaile zerbitzua jarri zuten martxan; Enrike Gorrotxategi udal itzultzaileak egin zuen lan hori.


MIRIAN BITERI

## Ardoa ezagutzen hasteko saioa

Askotariko adinetako eskoriatzarrak batu ziren joan den eguazten iluntzean herriko kultura etxean. Ardoen gainean zertxobait gehiago jakitea zen guztien asmoa. Ardo motak bereizteko ezaugarriekin batera, hainbat gomendio jaso zituzten. Horrekin batera, dastatzeko aukera ere izan zuten.

## OHARRAK

**BERTSO-MERIENDA GAUR**
Aurten ere bertso-meriendak egingo dituzte herriko gaztelekuan. Xabi Arenatza Finlandiara joan da eta haren ordez Arrasateko Maddi Labaien izango da saio horiek gidatzen. Gaur, egubakoitza, hasiko dira bertso -meriendak, eta 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude. 18:30erako egin dute hitzordua, gaztelekuan.

**KIROL HITZORDUAK**
Bihar, zapatua, lehia bi daude: areto-futboleko lehen erregionalean, Eskoriatza eta Lauburu taldeen arteko norgehiagoka jokatuko da, 16:00etan. Hori amaitzean, senior mailakoen saskibaloi partidua hasiko da. Etxekoek Take Aralar Kirolak taldeko neskak hartuko dituzte. Bestalde, etzi, domeka, XXII. mendi bizikleta ibilaldia egingo dute. Izen-ematea egunean bertan egingo da, 08:15etik 09:00etara. Federatuek 10 euro ordainduko dituzte eta ez federatuek, 15 euro.

**BILBORA JOATEKO AUTOBUSA**
Bihar, zapatua, Bilbon egingo duten manifestaziorako autobusa jarri dute Eskoriatzatik. Irteera 15:30ean izango da herriko autobus geltokitik, eta manifestazioa amaitzen denean itzuliko dira. Izena eman gura dutenek gaur arte dute aukera, Inkernu tabernan.

## NIRE USTEZ


MARIJO PAGALDAI

### Bizitzaren sibarita

Nik ere "bizitzaren sibarita" bezala ezagutzen dena izan nahi dut. Orain dela urte gutxi batzuk entzun nuen elkarrizketa batean miresten dudan pertsona bati galdetzen ziotela ea bizitzeko "gutxirekin" nahikoa zuen. Erantzun zuen ez zela edozer gauzarekin konformatzen, berarentzat benetako balioa zuena aukeratzen zuela. Horrela, "gauza gutxi" horiekin arin sentitzen zela, "bizitzaren sibarita" bat.

Erantzuna gustatu zitzaidan eta ederra ez ezik inteligentea eta zentzuduna ere iruditzen zait.

Ondo bizitzeko beharrezkoa dugu hainbeste gauza alfer pilatzea, kateatzeko besterik ez badigute balio eta benetan nahi dugunarekin gozatzen ez badigute uzten? Uste dut batzuetan ohiturei jarraitzen diegula edo hau eta bestea edukiz gero zoriontasuna izango dugula agintzen diguten esloganei kasu egiten diegula...

Erabili dezagun zentzua gure buruari galdetzeko ea zer den benetan nahi duguna eta zein den hori lortzeko modu egokiena.

Kendu dezagun bizkarretik bizitzan zehar altxor faltsuez bete dugun "motxila" astuna eta gure bizitzaren bidaia arinagoa eta libreagoa izango da.

Izan gaitezen benetako "bizitzaren sibaritak". Seguru denondako dagoela.

**"Erabili dezagun zentzua buruari galdetzeko zer den nahi duguna"**





**Konponketak:** Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta IAT aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

## Bakarrizketa berria estreinatuko du Goio Arrietak Torresoroan

*Harri irratixe II, Sustraiak han dituenak* antzezlana eskainiko du Goio Arrietak gaur, egubakoitza, 22:00etan, Torresoroan. Sarrera 4 euro kostako da. Musikan oinarritutako bakarrizketak egingo ditu Arrietak, eta musika eta bideoak tartekatuko ditu antzezlanean. *Harri irratixe I* izeneko antzezlana eskaini zuen iaz Arrietak Antzuolan, orain berrienarekin dator.

## Toloño mendira irteera antolatu du Arrolak urriaren 30erako

Urriaren 30ean, domeka, 08:00etan Torresoroa parean elkartuko dira. Ribas de Tereso portutik abiatuko dira; handik Toloñora igo eta gero Bastidara jaitsi. Izena emateko, 635 20 58 41 telefonora (Iker) edo zuzendaritzako edozeini deitu. 20 euro ordaindu beharko dira (10 euro ikasle eta langabetuek). Bazkide ez direnek 6 euroko gehigarria ordaindu beharko dute.

## Antzerkia, hitzaldia eta irteera, erretiratuen kultura astean

Urriaren 25ean, martitzena, Virginia Imazen antzezlana ikusteko aukera izango da. *Abuelas* izeneko lana eskainiko du Torresoroan, 17:00etan. Urriaren 26an, eguaztena, entzumenaren gaineko hitzaldia egongo da GAESen eskutik. 16:30ean izango da, elkartean bertan. Ondoren merienda eta kina egingo dituzte. Urriaren 27an, eguena, Iruñera irteera egingo dute.

## Nagusien edo gaixoen zaintzaileendako psikologia ikastaroa

Bideberri gizarte zerbitzuen mankomunitateak antolatu du pertsona nagusien edo zaintzaile familiarrentzako ikastaroa; arlo psikologikoa landuko dute ikastaroan. Azaroaren 7, 9, 14, 16 eta 21ean egingo dira saioak, 17:30etik 19:30era bitartean, Olaranen. Urriaren 14tik 28ra bitartean eman beharko da izena Antzuolako udaletxean edo gizarte zerbitzuetan (Torresoroa).

## Herriko hondakinen birziklapen maila %92 inguruan dago

Antzuolan atez ateko hondakin sistema ezarri zenetik sei hilabete pasatu dira eta Udalak esku artean dituen datuak "oso positiboak" dira. Iraileko datuen arabera, biltzen den kopuruaren ia erdia (%47,63) materia organikoa da. Jarraian daude papera (%17,37), ontzi arinak (%14,65) eta beira (%12,31). Guztira, hondakinen %91,96 birziklatzen da; errefusaren zatia %8,04 da.

# Hamabi neska-mutiko ari dira umeen abesbatzan

Abesbatza handiagoa sortu eta herriko ekitaldietan abestu nahi dute

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA



Abesbatzako bost kide irakaslearekin, asteleheneko entseguan. | USOA AGIRRE

Bergarako Musika Eskolak korala ikasgai moduan eskaintzen du azken urteotan. Aurten, baina, musika eskolako ikasle ez direnei ere abesbatzan parte hartzeko aukera eman nahi izan diete. Hala, Antzuolan umeen abesbatza sortzeko deialdia egin zuten eta 12 lagunek eman dute izena.

Nagore Sanz irakaslearen arabera, harrera ona izan du deialdiak, baina jende gehiago animatzea nahi dute: "Abesbatza taldea osatzeko eta bi ahotsetan lantzeko beharko genuke 20 bat neska-mutiko batzea. Ea, aurrera begira, datorren ikasturtean jende gehiago animatzen den".

**Kontzerturako prestatzen**

Gabonetan, musika eskolako gainerako ikasleekin batera, kontzertua eskainiko dute abesbatzakoek ere. Kontzertu horretarako abestiak prestatzen ari dira orain. Gabonetako kontzertuaz gain, kurtso bukaeran Antzuolan egiten den ekitaldian eta Aste Santu aurretik Bergaran egiten den ahotsen kontzertuan ere parte hartuko dute.

Taldea pixka bat handitzen bada gustatuko litzaieke herriko bestelako ekitaldietan ere parte hartzea.

**Izen-ematea zabalik**

Kurtsoa hasita egon arren edozeinek eman dezake izena oraindik. 8 urtetik 12 urtera bitartekoendako dago zabalik abesbatza eta entseguak astelehenetan egiten dituzte.

Sanzek aitortu digunez, oso gustura dago ikasleekin: "Ez dute lotsarik, denek ezagutzen dute elkar eta abesteko orduan nabaritzen dut. Oso giro polita sortzen da", esan digu.

## OHARRAK

**FUTBOLA**

Bihar, zapatua, Antzuolako erregional preferente mailako taldeak Idiazabalen kontra jokatuko du, 16:30ean, Eztalan. Kadeteen mailan, antzuolarrek Arrasate CD B taldearen kontra jokatuko dute bihar, zapatua, 11:30ean, Eztalan.

**PILOTA**

Gaur, urriak 21, 19:00etan hasita, Olaldeko pilota partiduak egongo dira herriko pilotalekuan. Eskuz banaka, infantil mailan, Manex Balerdik Azkoitia 2-ren kontra jokatuko du. Pala motzean, Olaldeko nagusiek Altzatarra 1 taldekoen kontra jokatuko dute.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan. Gaia librea da eta argazkiak koloretan edo zuri-beltzean aurkeztu ahal izango dira. Hiru maila egongo dira: lehen maila, 6-12 urte (biak barne); bigarren maila, 13-18 urte (biak barne); eta hirugarren maila, 19 urtetik gorakoendako. Guztira 505 euro banatuko dira saritan; 250 euro jasoko ditu hirugarren mailako lehenengo sarituak. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira azaroaren 11ra bitartean.

# Antzuola-Aiherra eguna ospatuko da domekan

Afari parte–hartzailea egingo da gaztetxean zapatuan; gaur da izena emateko azken eguna

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

Iaz Aiherran egin zen bi herrien arteko senidetzea ospatzeko eguna eta aurten Antzuolan egingo da, domekan. 50 aihertar etorriko dira eta goizean, 09:45ean, beste 20 antzuolarrekin batera Oñatiko Arrikrutzera bisita egingo dute.

Bazkaria 14:00etan egingo da eskolako patioan. Bazkarirako 147 lagun bilduko dira. Babarrunak gertatuko dituzte bazkaltzeko. Bazkalostean jokoak egingo dira: sokatira, oskola-biltzea, aulki-jokoa eta egur-pilaketa.

**Zapatuan afaria gaztetxean**

Bihar, zapatua, afari parte-hartzailea egingo dute gaztetxean. Afarian parte hartzeko baldintza bakarra dago, afaria girotzeko zerbait eskaintzea: antzerki bat, abestiak, bertsoak, koreografiak... Gaztetxean eman behar da izena eta gaur da azken eguna.



JOSE MARI ITURBE

## Mugarri berriak Mixo sakonean

Antzuolako 63 mugarritatik zortzi galduta zeuden eta Udalak erabaki zuen galdutako puntu horietan mugarri berriak jartzea. Bergararekin mugan falta ziren lau mugarriak joan den zapatuan jarri zituzten; gainerako laurak, Aizpurutxo inguruan, laster jarriko dituzte. Dena bukatu ondoren Foru Aldundian aktak berrituko dituzte.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak



Eguazten iluntzean batzarra egin zuten baserritarrek eta Udaleko ordezkariek, azoka antolatzeko. | JOKIN BEREZIARTUA

# Erretiratuen jaiko azokan, bertakoak zein kanpokoak

## Herriko 37 postuez gain, kanpotik 22 baserritar eta artisau etorriko dira aurten, inoiz baino gehiago

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Dena dago gertu urriaren 29an ospatuko den Erretiratuen egunerako. Eguaztenean Udaleko ordezkariak herriko baserritarrekin bildu ziren bakoitzak azokara zer eraman erabakitzeko. Arabako Diputazioaren, Euskadiko Kutxaren eta Vital Kutxaren laguntza jaso du Udalak. Eta noski, jaia aurrera ateratzen lagunduko duten taldeak eta elkarteak ezin dira aipatu barik utzi: Lagun Artea dantza taldea, Trikikalejira trikitixa eskola, Papargorri elkartea, Bizente Goikoetxea abesbatza eta Herriko txistulariak.

**Goizean, aspertzeko astirik ez**

Ibarra izango dira ekitaldi guztiak. 10:30ean herriko trikilari eta txistulariek emango diote hasiera egun bereziari. Gero, 12:00etan, urtean zehar hildako erretiratuen omenezko meza nagusia egingo dute San Martin parrokian. Mezan parte hartuko dute umeen Papargorri eskolaniak eta Bizente Goikoetxea abesbatzak. 13:00etan euskal dantzen saioa egongo da, Lagun Artea dantza taldearen eskutik eta egitaruarekin amaitzeko, 14:30ean, bazkaria egingo dute kiroldegian.

Bazkarian egongo direnen artean hainbat opari zozketatuko dira eta urtero moduan, sari potoloa bi lagunendako Benidormerako bidaia izango da.

**Inoiz baino kanpoko gehiago**

Azoka da, zalantza barik, erretiratuendako egunaren bereizgarri. Bertako 37 postu egongo dira –ganadua barne– eta kanpotik inoiz baino baserritar eta artisau gehiago etorriko dira. Izan ere, kanpoko 22 postu egongo dira. Produktuen artean, denetarik: barazkiak, gazta, eztia, onddoak, sagardoa... Eta noski, behiak, ardiak, astoak eta bestelako animaliak ere ikusi ahalko dira.

Era berean, bigarren eskuko produktuez osatutako postua ere jarriko du Izaskun Arriaranek. Etxean bazter baten utzita dauden eta beste norbaitendako erabilgarriak izan daitezkeen gauzak kaleratzea eta osasun arazoak dituen herriko haur bati laguntzea du helburu postuak. Honako materiala jasoko du Arriaranek: kirol materiala –bizikletak, eskiak, patinak...–, kirol arropa, haurren zaintzarako materiala eta etxetresna elektriko txikiak. Materiala egunean bertan jasoko da, 09:00etatik 11:00etara. 11:30etik aurrera salgai jarriko da edo trukea egiteko aukera egongo da.

Hilaren 30ean, domeka, artzain txakur txapelketa egingo da Salazan baserriko zelaian, 11:30ean.

**XABIER URIBARREN** | ERRETIRATU TALDEKO PRESIDENTEA

### "Egun polita izaten da guretako, oso pozik gaude Udalaren laguntzarekin"

Egun "polita eta alaia" izaten da Erretiratuen Eguna Xabier Uribarrenen (Aramaio, 1940) ustez. Udalaren lanarekin oso pozik daude, are gehiago murrizketak nagusi diren garai hauetan.



Xabier Uribarren. | J.B.

**Egun polita izango da zuendako, ala?**

Bai, zalantza barik. Oso egun polita eta alaia izaten da. Urte asko dira urtero azoka egiten dela eta egun hori erretiratuoi omenaldi txiki bat egiteko aprobetxatzen du Udalak. Elkarteetan salda eta pintxoak egoten dira doan; txalotzekoa da elkartasun hori.

**Zein iritzi duzu baserritarren azokaren gainean?**

Oso ondo egoten da. Larregi saltzen ez bada ere, kalitatezko produktuak egoten dira.

**Etortzen al da jendea kanpotik?**

Eguraldiak asko eragiten du, baina nik esango nuke gero eta erretiratu gehiago etortzen direla kanpotik. Beste elkarte batzuetakoak ere etortzea ondo dago.

**Zein balorazio egiten duzu Udalak halako egun bat antolatzearen gainean?**

Oso garrantzitsua da, gure ustez. Erretiratu guztiendako da, gainera. Eta horrek beste garrantzi bat ematen dio egun bereziari. Alaiak erretiratu elkarteko kideok oso pozik gaude Udalak ematen digun laguntzarekin, are gehiago guztion ahotan dabilen krisi garai honetan. Murrizketak nagusi diren garai hauetan Udala nahiko ondo ari da erantzuten.

# Auzo-alkate gehienak aste bukaeran aukeratuko dira

**J.B.** | ARAMAIO

Asteburuan aukeratuko dira Aramaioko auzo-alkate gehienak. Udalak jakinarazi duenez, Ibarra auzoko bi alkatetzen izendapena datorren astera arte atzeratuko da. Hau da, Ibargoia, Gabriel Juaristi, Iturrizuri eta Bizente Goikoetxea kaleetako alkate Jose Carretero eta Nardeaga zein gainerako goiko kaleetako alkate Fernando Perez datorren astera arte izango dira auzo-alkate.

**Ibarratik kanpo, asteburuan**

Bestalde, Udalak hala gomendatuta, gainerako auzoetan asteburu honetan aukeratuko dira auzo-alkateak. Halaxe azaldu digu Loli Lasaga Azkoaga auzoko alkateak: "Domekan egin dugu hitzordua, 12:00etatik 14:30era bitartean, eskola zaharrean. Guk bozketa bidez aukeratzen dugu alkate berria, baina badakit beste auzo batzuetan etxez etxe joaten direla alkate berria aukeratzeko".

Etxaguen auzoan ere bozketa bidez aukeratuko dute alkate berria. Domekan errota gaineko lokalean egin dute hitzordua, 12:00etan. Betebehar nagusiak batzarrak antolatu eta auzoari dagozkion kontuen gainean informatzea dela adierazi digu Iban Astola alkateak.

### Aramaioko Iturrieta sagardotegian jokatuko da Bertxoko sariketaren finala, azaroaren 25ean

Arabako Bertsozale elkartearen eta Hala Bedi irratiaren eskutik, badator Bertxoko sariketa. Lehen kanporaketa azaroaren 3an izango da Gasteizko Errexala elkartean eta finala, berriz, Iturrieta sagardotegian izango da, azaroaren 25ean. Aramaioko ordezkaritza Xabi Igoa eta Paula Amilburuk osatuko dute. Era berean, finalean Manex Agirre izango da gai jartzaile. Saio guztiak afalostean hasiko dira eta afarirako saioa baino bi egun lehenago eman behar da izena, honako telefonoa honetan: 675 707 971.

### 1950ean jaiotakoek bazkaria egingo dute bihar Gantzaga auzoko elkartean, 14:00 aldera

1950ean jaiotako aramaioarrek hitzordu berezia izango dute bihar. Urteroko bazkaria egingo dute Gantzagako elkartean, 14:00ak aldera. Menu ederra prestatu dute: marmitakoa, txuleta eta tarta. Noski, mahaiaren bueltako berbaldi eta kantaldiak ez dira faltako. Horrez gain, abuztu amaieran Kroazia aldera joan ziren eta bazkalostean hurrengo bidaia egiteko berba egingo dute. Hasierako asmoa da hilean kuota bat ordaindu eta pare bat urte barru Europa aldera bidaia bat egitea.



JOKIN BEREZIARTUA

## Margo lehiaketaren erakusketa

Itur Zuri emakume elkartearen ekimenez urriaren 12an egindako margo lehiaketako lanak aprobetxatu dituzte Sastiñan erakusketa bat irekitzeko. Gaur eta bihar dira erakusketako lanak ikusteko azken egunak, izan ere, bihar itxiko dute. Sastiña 18:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Hainbat artelan saritu zituzten antolatzaileek; herriko saria, esaterako, Edurne Iturrietak irabazi zuen.

ELGETA



Eskola aurreko aparkalekua eta umeen jolastokia. | LARRAITZ ZEBERIO

# Herri eskola aurreko gunea urbanizatzeko lanak hastear

Garrantzitsua da urbanizazio lanok urtea amaitu aurretik bukatzea; 232.000 euroko dirulaguntza jasoko du Udalak epea errespetatzen badu

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Udal ordezkarien esanetan, laster hasiko dira lanak, aste gutxi barru. Azkar egin beharko dira, gainera; izan ere, abenduaren 31rako amaituta ez badaude, Udalak 232.000 euroko dirulaguntza gal dezake. Lanak esleitzeko osoko bilkura datorren astean –seguruenik eguaztenean– egingo dute, eta Hirigintza batzordean adostua dute lanak Bergarako Goitu enpresari ematea.

**Aparkalekua eta jolasgunea**

Goitu enpresak bi hilabeteko epea izango du urbanizazio lanen lehenengo fasea egiteko; hau da, autoendako aparkalekua, umeendako jolastokia eta ziburuen gunea egiteko. Lanok eskolak jolastokirako erabiltzen duen eremuan egingo direnez, eskolaumeek eskolatik gertu dagoen Maalako parkea erabili beharko dute jolas-orduan.

Gunea berrantolatzeko premia begi-bistakoa da. Apurtutako ziburuetan eta zuloz beteriko futbol zelaian jolasten dira Elgetako neska-mutikoak. Domingo Iturbe patronatuaren eraikinaren egoera ere txarra da eta eskola zaharraren eraikina hartzen zuen lurzoruak irtenbide bat behar du.

**Hitzarmena ixtear**

Lanen lehenengo fase horretan ez litzateke eskolaren ondoan eta jausteko zorian dagoen Domingo Iturbe patronatuaren eraikinean interbentziorik egingo. Luze jo dute negoziazioek Udalaren eta eraikinaren jabe den Gipuzkoako Gotzaindegiaren artean, baina Udaletik jakinarazi dute akordioa ixtear dutela. Hitzarmena sinatzeko azken prezioa ixtea eta ordainketa formula adostea falta zaie.

"Hiru aukera izan ditugu mahai gainean", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Egungo eraikina bota, berria altxatu eta 25 urteren buruan Gotzaindegiari itzultzea; ondoko lurzoruan Gotzaindegiarendako eraikin baliokide bat altxatzea; eta gaur egungo eraikina erostea 25 urtean ordaintzeko aukerarekin". Erostarberen esanetan, azken proposamen hori da aurrera aterako dena. Tasatzaileak tartean izan dira eta bi aldeek azken prezioa adostea falta da. Ordainketa formula ere zehazte bidean omen dute.

Hitzarmena itxitakoan asmoa litzateke Domingo Iturbe patronatua partzialki botatzea eta zutik mantenduko den frontoia berritzea. Horrez gain, eskolaren aurreko aldea lautzea eta frontoiaren gainean oinezkoen erabilerarako gune bat egitea. Lan horiek finantzatzeko dirulaguntza berriak tramitatzen dihardu Udalak. Erostarberen esanetan, baikorra izateko motiboak badaude.

**Bergarako Goitu enpresak egingo ditu lehenengo faseko lanak**

**Epe horretan Maalako parkea erabiliko dute eskola umeek jolastorduan**

## VIII. PILOTA TXAPELKETA

| | |
|---|---|
| **AZKEN EMAITZAK** | |
| Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Satur Ramos - Mikel Arkarazo | 22-11 |
| Garikoitz Arrazola - Mikel Ormaetxea / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga | 22-16 |
| **BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00ETAN** | |
| Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Asier Morales - Koldo Goenaga | |
| Pello Larrea - Mikel Elkoro / Satur Ramos - Mikel Arkarazo | |
| Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Antxoka Etxabe - Igor Irazabal | |
| Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Iban Retolaza - Xabier Larrañaga | |
| Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi | |
| **DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:00ETAN** | |
| Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre / Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre | |
| Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga | |
| Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola | |



L.Z.

## Turismo teknikari berria

Iraitz Lazkano elgetarrak egingo ditu datozen sei hilabeteotan Turismo teknikari lanak Elgetan. Hamaika lagun aurkeztu ziren Udalak deitutako lanposturako. Lazkano astelehenean hasi zen lanean. Atzo, eguena, lehenengo bisita gidatua egin zuen. Udalak beste lanpostu bat aterako du laster: artxiboa katalogatzeko, hain zuzen ere.

### 2012ko aurrekontua prestatzeko proposamenak

Udala 2012ko aurrekontua prestatzen ari da eta Baserritarren eta Turismo batzordetik deialdi irekia egin dute herritarren proposamenak jasotzeko. Herri mailarako zein norberaren baserrirako edo auzorako proposamenak udaletxean aurkeztu behar dira hilaren 28a baino lehen.

### Zea Mays eta Split 77 taldeak gaur, barikua, kafe antzokian

Asteon izan da albiste Zea Mays taldea; bideoklip berria kaleratu dute. Espaloiko bezeroek egindako eskaera ei da taldea antzokian izatea, eta gaur Split 77 taldekoekin batera izango dira Espaloian. Kontzertua 22:30ean hasiko da. Prezioa 8 euro da eta bazkideendako, 5 euro.

LEINTZ GATZAGA

# Azaroaren 13ko San Milixan feria gertatzen hasita dago Udala

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

San Milixan feria gainean dago, azaroaren 13an da, hain zuzen, eta Udala gertatze lanetan dabil azken asteotan. Herria artisauendako erakusleiho bihurtuko da egun horretan: batetik, pilotalekuan postuak jarrita, eta bestetik, erakustaldiak egin eta erakusketak eskainita.

Irailean egin zien dei Udalak postua jarri gura zuten artisauei eta 12k eman dute izena. Pilotalekuan 15endako lekua izanik, beste hiru gehiago lortu gurako lituzkete, eta horretan dabiltza orain. Sorginak emakume elkarteak ere izango du tokia pilotalekuan: urtero legez, taloak eta edatekoa eskainiko dituzte.

**Sagardoa egiteko asmoa**

Bestalde, herritarrek nekazari eta artisau munduarekin zerikusia duen erakustaldia egin izan dute eta aurten sagardoaren inguruko kontuak erakutsiko dituzte. Plazan prentsa txiki bat jarri eta sagardoa lortu arte egin beharreko guztia erakusteko asmoa dute: sagarrak txikitu, prentsan pasatu, kupelera sartu... Gero, sagar-zukua eskainiko diete elkartutakoei. Kupelean gorde eta Inauterietan sagardo hori edateko asmoa dute, gainera.

### Datozen bi astelehenetan ez dute KZgunea zabalduko

Azarora arte ez da zabalik egongo KZgunea. Izan ere, datozen bi martitzenetan jaieguna da, urriak 25 eta azaroak 1, eta zubia izango dute astelehenean KZgunean.

Azaroan iragarriko du dinamizatzaileak *–www.kzgunea.net–* zein egun eta ordutegitan izango den Gatzagako bulegoan.

Aperribay, s.l.

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

SASKIBALOIA

# Etxean irabaztea zaila, kanpoan ia ezinezkoa; hastera doa liga EBAn

## Valladolideko unibertsitarien bisitaz hasiko dute Oñatikoek erronkaz betetako denboraldia

XABIER URTZELAI | OÑATI

Domekan 18:00etan hasiko da EBA ikuskizuna. Sustrai Aloña Mendi eta Valladolideko unibertsitariak lehiatuko dira ligako lehen partiduan, eta Oñatikoek mimoz prestatu nahi izan dute lehenengo hitzordu hori: "Etxeko lanak eginda daude dagoeneko, eta liga hasteko gogoz gaude; azken aste hau Valladolidekoen kontrako partidua prestatzeko baliatu dugu", adierazi zion Goienari Xabier Igartuak.

Zeregina ez da horren erraza izan, kategorian hasiberriak izanda talde oñatiarrak erreferentziak falta ditu-eta: "Pare bat partidutako bideoak ditugu, eta Valladoliden iazko emaitzen erreferentziak". Talde unibertsitarioa izanda Valladolidekoak Oñatikoak baino gazteagoak dira: "Joko bertikala egiten duen talde azkarra da, eta oso tiratzaile onak dituzte".

### "Maila handiko saskibaloia"

Ibarreko saskibaloi zaleek lehenengoz ikusiko dute azken lauzpabost urteotan modu sinesgaitzean hazi den Aloña EBA mailan. Baina hamabostean behin zer aurkituko dute Zubikoan?: "Maila handiko saskibaloia egongo da ikusgai. Esaterako, Valladolideko jokalari batek iaz ACB ligan minutuak izan zituen. Hala, maila oso oneko jokalariak ikusi ahal izango ditugu aurten. Horrekin batera, joko-trantsizioak oso azkar egiteko gauza diren taldeak izango dira, eta kalitate oneko jokalariak direnez saskiratze portzentaje altuak ikusiko ditugu".



Sustrai Aloñako jokalariak eta Gorka Alartzia entranatzilea. | LEIRE KORTABARRIA

### Etxean zail, kanpoan ia ezinezko

Liga hasi aurretik Sustrai Aloñakoek ez dute amore emango, ezta gutxiago ere. Baina oso garbi daukate ez direla errepikatuko azken urteotako bolada ikusgarriak: "Esango nuke etxean irabaztea zaila izango dela, eta etxetik kanpora ia ezinezkoa".

Adierazpen gogorra dirudien arren, taldeak datozen hilabeteotan biziko duen errealitatea erakusten du ondo: "Partiduetan gure aukerak izateko 40 minutuz erabat kontzentratuta egon beharko dugu. Eraso bakoitza ondo aukeratzen badugu, jokaldiak ondo lantzen baditugu eta diodan moduan, 40 minutu %100era egiten baditugu izango ditugu gure aukerak. Garbi dagoena da aurten ez digutela akatsik txikiena ere barkatuko".

Hala, etxeko partiduek izango duten garrantziaz jabetuta, aurten inoiz baino gehiago, zaleen babesa ezinbestekoa izango da: "Seigarren edo zazpigaren jokalaria dela esango nuke, batez ere taldea kantxan momentu txarrak pasatzen ari denean izugarri laguntzen dutelako. Guk nahi duguna da partiduetan Zubikoako harmailak jendez betetzea, eta seguru nago EBA osoan kosta egingo dela hemengo giroa topatzea. Taldeak iaz izan zuen jarraipena izatea nahi dugu".

ESANAK

**"40 minutuz kontzentratuta jokatzen badugu aukerak izango ditugu"**

**"Talde gaztea da Valladolid, jokalari azkar eta tiratzaile onak dituzte"**

XABI IGARTUA | ENTRENATZAILEA

### Egubakoitzeko datuak, onak

Joan den egubakoitzean Aloña Mendik bazkide kanpaina aurkeztu zuen eta egun bakarrean klubak 100 bazkide berri egin zituen. Ez da zenbateko makala, jakinda kanpainaren lehenengo eguna baino ez zela.

Adinaren arabera hiru bazkide txartel dituzte: 14 urte artekoenak bost euro balio du; 14-18 urte artekoak 15 euro; eta helduenak 30 euro. Prezio horren barruan etxeko 12 partiduak sartzen dira. Bazkide egiten direnek hainbat onura izango dituzte; tartean, Lagun Aroren eta Baskoniaren partiduetara joateko sarrerak eskuratzeko aukera. Bazkide txartela egiten ez dutenek partidurako sarrera ordaindu beharko dute: bi euro.


JOSETXO ARANTZABAL

MENDIKO BIZIKLETA

## Domekan Eskoriatzan

Eskoriatzako Udalak eta Areka BTT taldeko lagunek antolatuta Eskoriatzako mendi bizikleta martxa egingo dute domekan, hilak 23. Irteera 09:00etan izango da –izen-ematea 08:15ean hasita– eta antolatzaileek 37 kilometroko ibilbidea prestatu dute.

ESKUBALOIA

## Indarrak berdinduta egongo dira Mugarriren eta Askartzaren artean

Partidu zirraragarria izango da, seguru asko, Ford Mugarrik bihar, zapatua, Leioako Quiron Askartzaren kontra jokatuko duena; izan ere, ligako bi talde indartsuenetakoak dira. Arrasatearrek partidu guztiak irabazi dituzte eta lider dira, baina Leioakoek ere etxeko guztiak sakelaratu dituzte, hirugarren daude eta indarrak oso parekatuak izango direla aurreikus daiteke. Bietako edozeinek ditu irabazteko aukera handiak.

Norgehiagoka Leioako Askartza kiroldegian izango da bihar, zapatua, 20:00etan hasita.

SASKIBALOIA

## Etxetik kanpo irabazteko gogoz joango da MU Araberriren kantxara

Taulako hirugarrenaren, Pferd Araberriren, etxera joango da MU saskibaloi taldea aste bukaeran laugarren jardunaldiko partidua jokatzera. Konfiantzaz beteta joango dira, joan den aste bukaeran irabazita. Oraingoz, seigarren daude sailkapenean, partidu bi galduta. Aurkariak, berriz, bi irabazi eta joan den aste bukaerakoa galdu ditu; hura, liderraren aurka, eta hirugarren daude sailkapenean. Beraz, ez dute lan erraza izango arrasatearrek, baina etxetik kanpo behar duten garaipena lortzeko gogoz joango dira.

Partidua Gasteizko Mendizorrotzan izango da bihar, zapatua, 16:30ean hasita.

ERRUGBIA

## Errugbi eskola indartzea erabaki dute batzar orokorrean

Joan den astean egindako batzar orokorrean, Arrasate Rugby Taldeak denboraldi berrirako helburuak zehaztu zituen, besteak beste. Helburu horien artean aipagarriena da errugbi eskola indartu egin nahi dutela. Izan ere, Leintz Eskola Kirolarekin batera egin gura dute lan, LHko ikasleek errugbia ezagutu dezaten. Gainera, hastapen ikastaroekin jarraitzeko asmoa dute Aramaio, Aretxabaleta Bergara eta Oñatin. Iazko denboraldiari begira, bestalde, senior mailan Durangoko taldearekin lankidetza hitzarmena apurtu izana da alde ilunik aipagarriena.

OHOREZKO ERREGIONALA

# Bere benetako maila etxean erakutsi gura du Aloñak sailkapeneko bigarrenaren aurka

## Joan den astean berdinketa zaila lortuta, animatuta daude Azkargortarenak

**LEIRE KORTABARRIA** | OÑATI

Hazita datoz Aloña Mendiko futbolariak joan den aste bukaeratik, eta oraingo jardunaldian izan duten goraldia berretsi gura dute. Horretarako, ligan ondoen dabiltzan taldeetako bat hartuko du Azkoagainen: Real Union (2. da sailkapenean, sei partidutik lau irabazita).

Momentu honetan azkeneko dago talde txantxikutarra, baina hori ez da euren oraingo mailaren isla. Izan ere, joan den aste bukaeran oso sentsazio onarekin bueltatu ziren Beriotik, Andoni Azkargorta entrenatzailearen esanetan: "Partidu ona egin genuen, taulan goialdean dagoen talde baten aurka. Oso maila ona eman genuen, orain arte eman ez duguna, eta orain horri eustea tokatzen zaigu".

Orain, zaleei luze itxarondako eta merezitako poza eman gura diete Azkargortaren mutilek: "Etxean ez gara fin ibili, baina, kostata izan arren, bagoaz gure maila topatzen, eta orain hori zertifikatzeko momentua da", esan du entrenatzaileak.

Beraz, bigarren sailkatua inongo beldur barik eta bai, ordea, garaipen gose handiz hartuko du Aloña Mendik (domeka, 16:30).



Garaipenaren atzetik doa Aloña. Argazkian, Aimar Lizarra. | JOSETXO ARANTZABAL

**DATUA**

**2**

BERDINKETA

Sei partidutik, bi berdindu egin ditu Aloñak; azkenekoa, Berioren aurka.

**Besteak, kanpoan**

Gainerako hiru partiduak kanpoan izango dira, eta denak zapatuan: Bergarak Beti Gazte (8. postuan) bisitatuko du Lesakan; Mondrako mutilek 17. dagoen Behobiaren zelaian jokatuko dute, Irunen; eta Aretxabaletako jokalariak Ondarroara joango dira, Aurreraren (13. postuan) aurka puntuak bilatzera.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHEN MAILA**
Reala-Getafe
Domeka. 16:00. Anoeta.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Anaitasuna
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Beti Gazte-Bergara
Zapatua. 18:00. Lesaka.
Behobia-Mondra
Zapatua. 15:30. Irun.
Aurrera-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Ondarroa.
Aloña Mendi-Real Union
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Aretxabaleta B-Anaitasuna B
Domeka. 16:30. Ibarra.
Antzuola-Idiazabal
Zapatua. 16:30. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA**
Aretxabaleta C-Eibartarrak B
Zapatua.18:00. Ibarra.
Mutrikuarrak-Mondra B
Domeka. 16:30. Mutriku.

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA**
Mondra-Euskalduna
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**GAZTEAK**
Eibartarrak B-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Unbe.
Urki-Aretxabaleta B
Zapatua. 13:30. Unbe.
Bergara B-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Ipintza.
Soraluze-Aloña Mendi B
Zapatua. 16:00. Ezozia.

**OHOREZKO KADETEEN MAILA**
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Aretxabaleta UDA-Lagun Onak
Zapatua. 12:00. Ibarra.

**KADETEEN LEHEN MAILA**
Antzuola-Arrasate B
Zapatua. 11:30. Estala.
Aloña Mendi B-Urki
Domeka. 11:30. Azkoagain.
Arrasate-Aretxabaleta B
Zapatua. 10:00. Mojategi.
Eibartarrak-Bergara B
Zapatua. 14:30. Unbe.
Arizmendi-Elgoibar
Zapatua. 10:00. Almen.

**EMAKUMEZKOAK**
Arizmendi-Zumaiako
Zapatua. 14:00. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Tolargi
Zapatua. 16:00. Intxaurtxueta.

**GIPUZKOAKO BIGARREN M.**
Tecnun-Aretxabaleta
Gaur. 22:00. Donostia.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Quiron Askartza-Ford Mugarri
Zapatua. 20:00. Leioa.
Soraluce BKE-Romo Indupime
Zapatua. 17:00. Labegaraieta.

**GIPUZKOAKO LEHEN TERRIT.**
Amenabar-Izarr. Aloña Mendi
Zapatua. 19:45. Zarautz.

**GIPUZKOAKO 2. TERRITOR.**
Arrasate-Talleres Ondo
Zapatua. 16:00. Musakola.

**GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK**
Katilu-Bergara
Zapatua. 16:15. Legazpi.
Aloña Mendi-Urnietako
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**GAZTE MAILA, EMAKUMEAK**
Urnietako-Aloña Mendi
Zapatua. 15:45. Urnieta.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**
Soraluce Bergara-Egia A
Zapatua. 13:00. Labegaraieta.
Ereintza Ag.-Berezao Aloña M.
Zapatua. 16:00. Errenteria.

**KADETEAK, EMAKUMEZKO.**
Bera Bera Egia 1-Aloña Men. A
Domeka. 10:00. Bidebieta.
Bera Bera Egia 2-Aloña Men. B
Domeka. 12:00. Bidebieta.

**SASKIBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Pferd Araberri-MU
Zapatua. 16:30. Mendizorrotza.

**LEHEN SENIOR GIZONEZK.**
Hernani Teklan-MU
Zapatua. 16:15. Hernani.
Soraluce Berga.-Beztinberri
Zapatua. 19:00. Labegaraieta.

**BIGARREN SENIOR GIZONEZ.**
Hierc. Goierri-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Urretxu.

Aukerazko **IBILGAILUAK** salgai



14.500€-tik aurrera
> **FORD FOCUS**
2011 | Diesela | 0 Km

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- **Ford Mondeo 1.8 TDCI** 19.800 €
  2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km
- **Ford Focus TDCI 115 ZP 6 abiadura** 17.500 €
  2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.
- **VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP** 14.800 €
  2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.
- **Ford Focus TDCI 140 ZP** 19.800 €
  2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- **Ford Focus TDCI 110 ZP** 10.500 €
  2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- **Ford Kuga TDCI- 4W 140 ZP** 24.400 € €
  2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km
- **Seat Leon FR TDI 170 ZP** 13.800 € €
  2007 | Diesela | Gorria | 39.000 Km
- **Ford Focus ST 225 ZP** 13.500 € €
  2007 | Diesela | Laranja | 70.000 Km
- **Mitsubishi Montero TDI 115 ZP** 14.800 € €
  2006 | Diesela | Zilarra | 102.000 Km
- **Mitsubishi Montero TDI 115 ZP** 15.800 € €
  2007 | Diesela | Beltza | 128.000 Km



28.700 €
> **Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT**
2010 | Diesela | 29.649 Km

Udalaitz

- **Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION** 18.400 €
  2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- **Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP** 7.900 €
  2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- **Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65** 6.600 €
  2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- **Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC** 3.900 €
  2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- **Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPF** 26.900 €
  2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- **Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE** 10.500 €
  2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- **Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST** 20.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- **Seat Altea Xl 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE** 19.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- **Skoda Scout 2.0 TDI Quattro** 25.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- **Seat Leon 1.6 TDI 105** 16.500 €
  2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



15.500 €
> **Citroen Berlingo HDi 110 XTR**
2010 | Diesela | gris argia | 45.725 Km

CHAPIME
San Andres auzoa 5
RRASATE
Tel.: 943 79 45 22

CITROËN
Debagoieneko Kontzesionario ofiziala

- **Citroen Berlingo HDi 110 XTR** 15.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 51.060 km
- **Citroen C3 14Hdi SX** 10.800 €
  2010 | Diesela | Gorria | 13.400 km
- **Citroen C4 16 Vti 120 COOL** 9.500 €
  2009 | Gasolina | Txuria | 33.150 km
- **Citroen C4 16Hdi COOL 110** 11.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 47.635 km
- **Citroen C8 20HDi PREMIER** 22.000 €
  2010 | Diesela | Urdina | 44.025 km
- **Citroen DS3 HDi 90** 16.000 €
  2011 | Diesela | granatia/beltza | 3.000 km
- **Hyundai Getz 1.1** 2.500 €
  2003 | Gasolina | Txuria | 71.250 km
- **Hyundai i30 16CDRi 90** 12.500 €
  2010 | Diesela | Txuria | 10.500 km

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
F: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA

# Euskal kantari berriei bidea egiteko txapelketa egingo dute domekan

- Gipuzkoako txapelketako lehenengo saioa Lezon jokatu zen hilaren 15ean
- Bergarako saioaren ondoren finalerako nortzuk sailkatzen diren esango dute

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Gipuzkoako euskal kantu txapelketako bigarren saioa jokatuko dute domekan Bergarako Zabalotegi aretoan, 18:00etan. *Kantu baten bila...* lelopean egingo dute kanporaketa. Aurtengoa XV. edizioa izango da.

21 abesti aurkeztuko dituzte Bergarako saioan eta horietatik sei abesti berriak izango dira.

**Debagoieneko ordezkariak**

Euskal kantu txapelketan debagoiendarren presentzia handia izango da: bi bakarlarik, bikote batek eta talde batek abestuko dute.

Sara Manzano bakarlariak *Loretxoa* abestuko du; Josu Zubiak *Bi deabru sorbalda gainean* eta *Atian* abesti berriak abestuko ditu; Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutiak ere bi abesti izango dituzte: Maixa eta Ixiarren *Hotzak uste baino lehen* eta Ken Zazpiren *Hemen gaude*; eta Bergarako Nau taldeak (Maitane, Garazi, Olatz, Miren eta Markel) Deabruak Teilatuetan taldearen *Zuentzat* abestia aurkeztuko du.

**Lehenengo aldia**

Sara Manzano bergararrarendako lehenengo aldia izango txapelketa honetan parte hartzen duena. "Kantu eskolan nabil eta irakasleak animatuta izena eman dut txapelketan", azaldu du gazteak. Iaz ere parte hartzeko gogoa izan zuela azaldu du, baina entseatzeko denbora barik ibili zela. Txapelketa herrian izanda, "oso berezia" izango dela gaineratu du. Manzanok piano jolearen eta biolin jolearen laguntza izango du taula gainean: Cristina Souto eta Andoni Moñuxek lagunduko diote.

*Loretxoa* abestia irakasleak aukeratu diola azaldu du: "Bi urtez Gabonetako kontzertuan abestu izan dudan abestia da". Gaineratu du azken astea eman duela abestia entseatzen.

Manzanoren helburua abestiarekin ikusleengana iristea izango da, eta ondo pasatzea.




Lezoko Gezala auditoriumean egin zuten lehenengo saioa urriaren 15ean. | KANTUZALEEN ELKARTEA

**DATUA**

**36**

ABESTI

Lezoko saioko eta Bergarako saioko abesti kopurua 36 da.

**ESANAK**

**"Sari erakargarriena diskoa grabatzea da"**

JUAN LUIS ARANBURU
ANTOLATZAILEA

**Esperientziadun abeslariak**

Josu Zubiak badu esperientzia kantu txapelketan. Aurtengo edizioa bi kantu berri aurkeztuko ditu, berak sortutakoak. "*Atiak* abestiaren letrak Gerardo Markuleta osabak egin dizkit; *Bi deabru sorbalda gainean*, ostera, nirea da", azaldu du Zubiak.

*Atiak* abestiak ateak gustuko dituen pertsona batez dihardu; eta bigarren abestiak, berriz, aukeratu beharraz, bide bat hartu beharraz hitz egiten du.

Iazko euskal kantu txapelketan Itsaso Pol gitarra jolea izan zuen alboan Zubiak. Aurten bakarrik arituko da: abestu eta gitarra joko du.

Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutiarendako ere ez da lehenengo aldia izango. "Hirugarren aldia izango da", azaldu du Arratibelek. Bi kantu abestuko dituzte eta *Hotzak uste baino lehen* abestian Maixaren laguntza izango dute trikitian.

Bergarako Nau taldeak bigarren aldiz parte hartuko du. Bateria, baxu, gitarra eta trikitiaren laguntza izango dute taula gainean *Zuentzat* abestian. Orain dela astebete hasi ziren entseatzen, eta, oraindik lasai dauden arren, Aritz Aristizabal irakasleak dio eguna iristen denean urduri jarriko direla. Irakaslearen ustez, helburuak ondo pasatzea eta zaletasuna sustatzea izan behar du.

**Finala hilaren 27an Donostian**

Bergarako saioa amaitu ondoren, Donostiako antzoki zaharrean jokatuko den finalera nortzuk pasa diren aditzera emango du epaimahaiak (hilaren 27an, 18:00etan). Finalean sari nagusia eta sorkuntza lan onenaren saria emango dute, baina sari onena diskoan parte hartzea izango dela dio Juan Luis Aranburu antolatzaileak: "Garailearekin eta abesti berriekin *Kantagintzaren uhin berria* diskoa grabatuko dugu", azaldu du. Sari hori txapelak eta garaikurrak baino erakargarriagoa dela dio. Gainera, finalean hautatuko dira Euskal Herriko kantu txapelketan Gipuzkoa ordezkatuko dutenak.

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatzen du txapelketa harrobi berria egiteko helburuarekin. Elkartearen helburua kantu-zaletasuna sustatzea da.



Harrobi berria egitea da txapelketaren helburua. | KANTUZALEEN ELKARTEA

**DEBAGOIENEKO PARTE-HARTZAILEAK**

| KANTARIA | KANTUA | HERRIA |
|---|---|---|
| **Josu Zubia** | ▶ *Atian** <br> ▶ *Bi deabru sorbalda gainean** | Oñati |
| **Sara Manzano** | ▶ *Loretxoa* | Bergara |
| **Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutia** | ▶ *Hotzak uste baino lehen* <br> ▶ *Hemen gaude* | Arrasate |
| **Maitane, Garazi, Olatz, Miren eta Markel** | ▶ *Zuentzat* | Bergara |

*Oharra: abesti berriak dira.

# Itsasoa ikusteko ametsa duten atsoen istorioa

Pikor antzerki taldeak 'Atsoak dantzan' kale antzerkia eskainiko du Bergarako plazan

**A.E.** | BERGARA

*Atsoak dantzan* ikuskizuna eskainiko du Pikor antzerki taldeak gaur, 19:00etan, San Martin plazan. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza du ikuskizunak.

Bi izango dira antzezlaneko protagonistak: bi atso; gurpildun aulkian dabiltzan bi atso, hain zuzen.

### Egoitzatik ihes egin dute

Gurpildun aulkiekin aurrera eta atzera dabiltza bi atsoak kalean. Liluratuta, harrituta daude. Jendeak uste duenaren kontra, ez daude galduta, egoitzatik ihes egin dute.

Erabaki irmoa hartu dute bi atsoek: ez dute baztertutako traste hutsa izan gura denbora luzeagoan. Oraindik ametsak dituzte betetzeko, eta horiek betetzea izango da haien asmoa; gainera, itsasoa ikustea ere euren ametsetako bat da.

Antzezlanarekin erakutsi gura dute gura izateak, gogoak, edozer gauza lortzeko indarra ematen duela.

### Jendearen laguntza

Itxura ahula duten arren, indartsuak dira bi atsoak. Hala ere, autonomoak izan gura duten arren, mendekoak dira eta ikusleen laguntza behar izango dute hainbat gauza egiteko. Batez ere, azkeneko dantzan eskertuko dute jendearen laguntza.

Angeles Argudo eta Belen Nevado dira antzezlaneko protagonistak. 1989an sortu zuten Pikor antzerki taldea Annarita Fiaschetti eta Miguel Olmedak. Sormen pertsonala da haien lanen oinarria.



*Sensormen* laneko protagonistak lau dira. | YLLANA

# Sentsorearen eta gizakiaren arteko hibridoa helburu

Amaia antzokian 'Sensormen' lana aurkeztuko dute domekan, 19:30ean; sarrera 12 euro da

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Yllana antzerki taldeak Bulbul taldearekin elkarlanean antolatutako antzezlana aurkeztuko dute domekan Amaia antzokian.

Komedia musikatua izango da *Sensormen*. Lau izango dira taula gainera igoko diren protagonistak: Bulbul, Jony Elias, Chema Animal eta Chus Herrera.

Umorea, musika, perkusioa eta eszena planteamendua aurkeztuko dute antzezlanean.

### Lau sasi zientzialari

Yllanaren umorea eta Bulbul perkusio jotzailearen lana uztartuko ditu antzezlanak. Ikuskizun erritmikoa izango da, teknologiak batzetik sortutakoa. Ikuskizun "erabat dibertigarria eta berritzailea" dela nabarmendu dute sortzaileek.

Lau sasizientzialari dira antzezlaneko protagonistak. Erritmoan espezialistak dira eta horretarako hainbat instrumentu erabiltzen dituzte. Sentsoredun aparatuak erabiliko dituzte kantuak edo bestelako esperimentuak sortzeko. Esperimentu horien helburua bakarra izango da: gizakiaren eta sentsorearen arteko lehenengo hibridoa sortzea; hain zuzen, "sensorman" bat.

### 20 urteko ibilbidea

1991n sortutako taldea da Yllana. Umorea ardatz duten antzezlanak egin izan dituzte. Hain zuzen, 20 urteko ibilbidean 17 lan sortu dituzte.

*Sensormen* lanerako sarrerak 12 eurotan daude salgai.





## Hau guztia txartel bakarrean

- Asteleheneko Goiena Papera etxean jaso.
- Beherapenez gozatu (eskela eta sailkatuetan deskontuak).
- Zozketa eta promozioetan parte hartu.
- Asteleheneko Goienaren edizio digitala Goiena.net-en.

**Abantailaz betetako kluba!**

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com


# Arrasateko 725 ume inguruk 'Bularretik mintzora' ekimenean parte hartuko dute

Astelehenean aurkeztu zuten ekimena sustatzaileek Kulturaten

**A.E.** | ARRASATE

Euskal haur eta gazte literatura sustatzeko asmoarekin jarri dute abian Arrasateko Udal Liburutegikan *Bularretik mintzora* ekimena. Galtzagorri elkartea dago ekimenaren atzean eta Hezkuntza Sailaren laguntza dauka.

### Ikastetxe guztien babesa

Ekimena 0 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Arrasateko kasuan, herriko ikastetxe guztiek parte hartuko dute; guztira, 725 ume inguruk.

Ekimena dagoeneko martxan dago. Lehenengo, formazio ikastaro bat egin dute irakasleekin (50 bat); eta ondoren, gurasoen txanda izan da. Juan Kruz Igarabidek eguaztenean egin behar zuen hitzaldia azarora atzeratu dute; hurrengo hitzaldia azaroaren 3an izango da: Juan Karlos Alonsok *Haur literaturaren garrantzia haurren garapenean* hitzaldia egingo du Kulturaten, 18:00etan. Urtarrilean eta otsailean, berriz, Pello Añorgak lantegi saioak egingo ditu.



Prentsaurrekoan izan ziren kideak. | A.E.

### Formazio baliabideak

Datozen egunotan, 3 urteko haur guztien etxeetara informazio eta formazio baliabideak bidaliko dituzte. Aurrerago beste ekimen batzuk egingo dituzte.

# Bihar jokatuko da Oñatin G-puntuko final-laurdena

**A.E.** | OÑATI

Oñatiko Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan izango da Gipuzkoako bertsolari txapelketako lehen final-laurdena, 17:30ean. Leihatila 16:00etan zabalduko dute. Hala ere, aurrez eros daitezke sarrerak Internet bitartez: *www.bertsosarrerak.eu/sarrerak/sarreren_salmenta_orria* orrialdean, gaurko 12:00ak arte.

Bertsolariak izango dira: Jexux Mari Irazu, Beñat Lizaso, Agin Rezola, Iban Urdangarin, Iñaki Gurrutxaga eta Iñaki Zelaia. Aurkezlea Imanol Arabaolatza izango da. Puntuazio handiena lortzen duen bertsolaria zuzenean pasatuko da hurrengo fasera. Oñatikoaz gain, beste lau final -laurden jokatuko dira.

## Sumision City Blues taldeak jardungo du Arrasateko gaztetxean

Datorren eguenean, hilak 27, Sumision City Blues taldeak jardungo du *Kooltur ostegunak* ekimenaren barruan. Saioa 22:00etan puntuan hasiko da eta sarrera bost euro izango da. Sumision City blues taldea Gasteiz eta Berako lagunek osatzen dute eta blues eta punk doinuak lantzen dituzte. Kooltur Ekintza taldeak azaroroko kontzertuak ere gertu ditu.

## Zea Mays eta Split 77 taldeen musika gaur Elgetako Espaloian

Musika kontzertu indartsua antolatu dute Elgetako Espaloian. 22:30ean hasita Zea Mays eta Split 77 taldeek jardungo dute gaua girotzen. Zea Mays taldeak *Negua joan da ta* abestiarekin izugarrizko arrakasta lortu du aurten; Split 77 bizkaitarrek rock doinuak egiten dituzte.



**Ainhoa Canas da Distirako arduraduna; irudian, zentroko harreragunean.** | A.E.

# Eder eta lirain sentitzeko, berriena

## Distira estetika zentroan luxuzko produktu eta tratamenduak dituzte | ARANTZAZU EZKIBEL

Behar duzun hori Distira estetika zentroan aurkituko duzu. Aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioa, solariuma, manikura eta pedikura... Eder eta osasuntsu sentitzeko behar den guztia dute Distiran.

Orain dela urte bi zabaldu zuen Ainhoa Canasek estetika zentroa Arrasate pasealekuan. Ordutik hona buru-belarri egin du lan punta-puntako produktuak eta tratamenduak bezeroei eskaintzeko. Izaskun Arizmendiarrietarekin batera egiten du lan.

### LUXUZKO PRODUKTUAK

Distiran luxuzko produktuak esklusiban dituzte; esaterako, Kanebo eta La Praire markakoak. Inguruan bakarrak dira marka horiek erabili eta saltzen dituztenak.

Marka horietan, aurpegiko hidratatzailea eta makillajea ere badaude.

### LONTERRANEAN MAKINA

Tratamendu bereziak ere badituzte Distiran. Lonterranean makinaren bitartez azaleko azken geruzaraino iristen dira, adibidez. "Mesoterapian injektatu egiten dute produktua, baina estetizistok ezin dugu horrelakorik egin. Horregatik, Lonterranean makina erabiltzen dugu produktua azaleko azken geruzaraino sartzeko", azaldu du Ainhoa Canasek, Distirako arduradunak. Teknika nahiko berria dela gaineratu du.

Lonterranean makinaren efektuak lehenengo saioan igartzen direla dio Canasek. "Aurpegiko azala distira bereziarekin, finagoa eta leunagoa geratzen da", dio. Bezero gehienek aurpegian erabiltzen dute makina, baina gorputzeko beste atal batzuetan ere erabil daitekeela dio Canasek.

"Azal tipo guztiei zuzenduta dago Lonterranean, eta egokia da 32 urtetik gorakoendako. Hamabost egunean behin egiten den tratamendua da, ordubete irauten duena", azaldu du. Lonterranean makinaz gain, ultrasoinuak hedatzen dituen makina ere erabiltzen dute Distiran: "Azken finean, hainbat teknika konbinatzen ditugu", dio Canasek.

### AIREA PRESIO BIDEZ

Presoterapia teknika zelulitisari aurre egiteko erabiltzen dute Distiran. "Presoterapiak airea botatzen du, presioz", azaldu du Canasek. Zelulitisari aurre egiteko erabiltzen da. Adibidez, ordu asko zutik lan egiten dutenendako oso egokia da; baita haurdun daudenendako ere...", dio. Zirkulazioa hobetzeko ere oso ona dela gaineratu du Canasek. Sabelaldean, gerri inguruan eta gerritik behera erabiltzen dute presoterapia teknika. Gainera, osteoporosia eta migrañak dituztenek ere erabiltzen dutela dio.

Badira urte batzuk presoterapia teknika erabiltzen dutela; horregatik, ziurtatutako onurak dituen teknika dela nabarmendu du Canasek.

### DIETA PERTSONALIZATUAK

Distiran norberaren beharretara egokitutako dietak egiten dituzte. Horretarako, Nutrikare etxearekin lan egiten dute. Nutrizioan espezialistak diren pertsonak joaten dira Distira zentrora eta bezeroaren beharretara egokitzen diren dietak jartzen dituzte. Dieta horiek jarraipen bat izaten dute ondoren.

Neurrira egindako dietak, zelulitisaren aurkako tratamenduak, mesoterapia: aurpegi eta gorputz tratamenduak... Lirain sentitzeko azken teknikak erabiltzen dituzte Canasek eta Arizmendiarrietak Distira estetika zentroan. Horiez gain, norberaren edertasuna nabarmentzeko hainbat tratamendu egiten dituzte; besteak beste, solarium zerbitzua eskaintzen dute: solarium horizontala eta solarium bertikala; manikura eta pedikura parafinarekin; aurpegiko tratamenduak diamante muturrekin; masaje lasaigarriak; laser depilazioa; depilazioa argizari hotzarekin...

distira
ESTETIKA ZENTROA
Arrasate Pasealekua 4 . ARRASATE . Tel.: 943 79 00 35

TRATAMENDUAK

- Mesoterapia: aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Azidoen tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzarekin
- Laser depilazioa
- Zelulitisaren aurkako tratamenduak
- Zelulitisaren aurkako tratamendu konbinatuak
- Presoterapia
- Solarium horizontala eta bertikala
- Masaje lasaigarriak
- Aurpegi tratamendua
- Aurpegi tratamenduak diamante muturrekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Manikura eta pedikura parafinarekin
- Neurrira egindako dietak

ETORRI
informa zaitez
konpromiso barik

**Aitor Agiriano** | Kazetaria eta aktorea

# "Kamera aurrean edo agertokian ez banago, nahiko lotsatia naiz"

Sarri ibili da eskoriatzarra jai giroan mikroa eskuetan hartuta.



TXOMIN MADINA

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Kamera aurrean aktore zein kazetari moduan ikusi dugu 86ko uztako eskoriatzarra. Madril aldean ibili ostean gurean da berriz, Kantariko neska-mutikoen artean saltseatzen.

**Asteburua Kantariko *backstage*-an umeak elkarrizketatzen eman ostean, atseden nahikoa hartu duzu?**

Bai; umeekin-eta gustura ibiltzen naiz. Umeei irribarre bat ateratzea eta ikustera etortzen direnek ere ondo pasatzea gustatzen zait. Saio asko grabatu eta nekatu samar bukatu arren, dagoeneko bai, atseden hartuta nago.

**Jai giroan ere egin duzu lan. Nolakoa da lanean zabiltzala parrandan dabilen jendea elkarrizketatzea?**

Ni neu ere parrandazalea naiz eta horrelakoek parrandarako eta lanerako aukera ematen dute. Formalago ibili behar da, baina giro onean. Jendea pare bat tragorekin gehiago *soltatzen* da eta elkarrizketak lortzeko errazagoa da. Beste batzuek astun jarri eta ez dute ondo lan egiten uzten; baina orokorrean, ondo.

**Ikusten duzu zure burua formatu serioago baten?**

Orain arte ez dut albistegietakoa bezalako formatu baten lan egiteko aukerarik izan, baina egunen baten gurako nuke halako zerbait probatu.

**Kamera aurrean aktore lanetan ere ikusi zaitugu. Zer duzu nahiago?**

Antzerkia eta telebista, biak probatu ditut aktore lanetan, eta, aukeratzekotan, antzerkia aukeratuko nuke; telebista hotzagoa iruditzen zait. Antzerkian publikoa gertu dago; momentua bizi izaten da, adrenalina igotzen da. Telebistan, berriz, sekuentzia bat hamar bidez errepikatu behar denean, freskotasuna gal daiteke. Medio guztietan aritzen naiz gustura, guztiek dute alde on eta txarra.

**Zein izan da orain arte zure aktore ibilbidea?**

Donostian hasi nintzen; han antzerki talde baten sartzeko aukera izan nuen. Lope de Ruedaren *Los Pasos* antzezlana egiten hasi ginen; handik hilabete eta erdira Goenkaleko *casting* bat egin eta atal batzuetan pertsonaia bat egiteko aukera izan nuen. Lehen aipatutako antzezlanarekin, gainera, Donostiako Gazteen Antzerki Topaketako antzezlan onenaren saria irabazi genuen. Hurrengo urtean beste lan bat aurkeztu eta sari bera irabazi genuen.

***Casting* asko egin behar izan duzu?**

Mordoa; baina ezin naiz kexatu, hori ona da-eta. Testu edo *separata* bat ikasteko esaten dute, *casting*-ean botatzen da eta gero beste zerbait egiteko eskatzen dute: dantzatzeko, txiste bat kontatzeko, pinua egiteko... Nik eskatzen dutena egiten dut, eta aurrera! Esperientzia positiboa da.

**PERTSONALA**

**Zure herriko txoko kutunena:** Atxorrotz mendia.

**Bisitatzea gustatuko litzaizukeen leku bat:** New York.

**Astebururako plan bat:** Goizean Atxorrotzera; arratsaldean antzerkira; eta gauean lagunekin parrandara.

**Telebistako saio bat:** Kantari. [Barre] *Callejeros* modukoak ere gustuko ditut.

**Film bat:** *Cisne negro*.

**Aktore bat:** Johnny Depp.

**Zerk jartzen zaitu urduri:** Gauzak kontrolpean ez izateak.

**Madrilen ere bizi izan zara urtebetez. Zer-nolako esperientzia izan da?**

Hasieran gogorra. Euskal Herrian mundu hau txikiagoa da eta Madrilen lehia handia dago; nahiko zaila da lan aukera on bat lortzea. Antzerki munduan ibili naiz han; *Romeo y Julieta*-n. Publizitatean sartzea errazagoa da han.

**Zer ekarriko zenuke Madrildik Eskoriatzara? Eta zer eroan Eskoriatzatik Madrilera?**

Lasaitasuna eroango nuke hara, dudarik gabe. Izan ere, Madril erdialdean bizi nintzen eta han sekulako estresa eta mugimendua dago, eta ezin da deskonektatu. Eskoriatzara, berriz, ekintzak egiteko aukera ekarriko nuke: antzerkira joateko, zinemara... Han aukera ugari dago bi pausotara.

**Kamerarik ez dagoenean, zer gustatzen zaio egitea Aitorri?**

Aitortu behar dut kamera aurrean edo agertokian ez banago nahiko lotsatia naizela, behin baino gehiagotan esaten didate hori lagunek. Mendira joatea gustatzen zait: kaskoak jarri eta Atxorrotz ingurura joatea deskonektatzeko. Irakurtzea ere gustuko dut, patinetan ibiltzea, zinemara edo antzerkira joatea...

**Nola imajinatzen duzu zure burua hemendik hamar urte barru?**

Espero dut orain arteko lan aukera izaten jarraitzea, lagunak mantendu eta dena ondo joatea. Ez daukat helmuga finkorik jarrita, etorriko dena etorriko da. Zerbait buruan sartuz gero nahiko burugogorra naiz, baina, oraingoz, ez dut helmuga zehatzik.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egoazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| **1. ETXEBIZITZAK** | **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **6. MOTORRA** | **8. DENETARIK** | **9. HARREMANAK** |
|---|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 201. Saldu | 401. Eskaintzak | 601. Saldu | 801. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 202. Erosi | 402. Eskaerak | 602. Erosi | 802. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 203. Errentan eman | 403. Bestelakoak | 603. Alokatu | 803. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 204. Errentan hartu | | 603. Konpondu | 804. Hartu | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 205. Bestelakoak | **5. IRAKASKUNTZA** | 604.Bestelakoak | 805.Trukatu | |
| 106. Bestelakoak | | 501. Jaso | | 806.Galdu | **10. RELAX** |
| | **3. LOKALAK** | 502. Eman | **7. ANIMALIAK** | 807.Aurkitu | |
| | 301. Saldu | 503. Bestelakoak | 701. Saldu | 808. Bestelakoak | |
| | 302. Erosi | | 702. Erosi | | |
| | 303. Errentan eman | | 703. Eman | | |
| | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | | |
| | 305. Bestelakoak | | | | |

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 73 metro koadroko etxebizitza salgai. 18 metro koadroko garaje itxiarekin. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 660 70 04 48

**Aramaio.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai, Ibargoia kalean. Hiru logela eta komun bi. Dena kanpoaldera begira. Ganbara eta garaje itxia. Interesatuok deitu 652 72 83 60 edo 945 44 53 52 zenbakietara

**Eskoriatza.** Etxebizitza duplexa, 120 metro koadrokoa, salgai. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 679 16 24 96

**Oñati.** Etxea salgai Kale-Zaharrean. 90 metro koadro gehi ganbara. Hiru logela. Oso eguzkitsua. Garajerik ez. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 657 79 43 29

**Oñati.** Etxebizitza, 110 metro koadrokoa, salgai Errementari plazan. 9 urteko antzinatasuna. Hirugarren solairua. Lau logela, bi komun, egongela handia, dena guztiz jantzia . Bi trasteleku eta bi plazako garaje itxia. Oso argitsua eta prezio interesgarria. 670 39 51 30

### 103. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Kale Zaharrean. Hiru logela. 656 00 84 92

**Oñati.** San Lorentzo auzoan etxebizitza errentan. Laugarren pisua. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainu bi. Garajea. 686 76 01 87 edo 943 78 13 57

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxea errentan hartuko nuke. 663 28 75 10

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko gela bat daukagu libre, Araba ibilbidean, mutil batentzat. 678 73 66 54

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Erguinen, unibertsitatetik gertu. Erosoa eta handia. 645 01 05 84

**Bergara.** Bi pertsona behar dira etxe bat osatzeko. Deitu 678 23 54 93 telefonora.

**Bergara.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 647 33 24 91

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 250 euro hilean, gastuak barne. 670 85 86 68

**Eskoriatza.** Erdigunean, pisua konpartitzeko bi pertsona behar dira. Etxe guztiz eraberritua. 685 73 60 57

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Eskoriatza.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurtxueta 23an. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 679 16 24 96

## 3. LOKALAK

### 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Erdigunean, bulegoa lanetan jarduteko gela daukat libre. Berria eta oso argitsua. Erabiltzeko gertu dago. Egun soltetan erabiltzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 651 70 17 41 .

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, goizean eta arratsaldean. Esperientzia izatea eskertzen da. 678 32 90 62

**Bergara**
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
Langilea. Egun osoz.
943 53 24 52

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 53 urteko emakumea, lanerako gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Arrasate.** Bertako emakumea, arduratsua, gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 88 94 14

**Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi duen neska euskalduna arratsaldean umeak zaintzeko prest. Arrasatekoa naiz. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 665 73 10 08

**Arrasate.** Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Eskarmentuduna. Ordutegi malgua, baita gauez ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 618 00 08 28

**Bergara.** Mutila gertu arratsaldeetan lan egiteko, egunero. 654 98 69 14

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. 636 60 90 24

**Debagoiena.** Neska 20:00etatik aurrera eta asteburuetan lan egiteko gertu. Deitu 677 12 75 44 telefonora.

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Edozein lan mota egiteko prest: garbiketak, adinekoak zaindu, sukaldeko laguntzaile eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 82 30 08

**Debagoiena.** Elikagaien manipulazioarako titulua daukan neska gertu sukaldean lan egiteko. Baita ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko, orduka edo egun osoz. 659 37 41 95 edo 681 37 60 13

**Debagoiena.** Esperientzadun neska, arratsaldean, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 696 70 55 09

**Debagoiena.** Esperientziadun auto mekanikaria lanerako gertu. 660 23 12 73

**Debagoiena.** Lan egingo nuke nagusiak zaintzen, garbitasunean edo sukalde laguntzaile gisa. Deitu 691 03 25 02 edo 697 88 35 62 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko paperekin, gertu nagusiak zaintzeko. Baita bestelako lanetarako ere. 673 60 77 38

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko: obretan, nekazaritzan, tabernetan eta abar. 600 80 68 83

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko: garbitze-lanak, zerbitzari-lanak, obrak eta abar. 687 26 89 05

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Egun erdiz edo osoz. Neska arduratsua naiz. 645 01 05 84

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eskarmentua duen mutila lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala lanean hasteko gertu. Legezko paperak ditut. 603 14 59 17

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**OÑATI**
Emakumezkoen ile-apaindegia ematen da errentan. Bezero finkoekin.
Tel. 654 81 22 78
(21:00etatik aurrera deitu)

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna, nagusi edo umeak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 22 29 35

**Debagoiena.** Neska arduratsua lan bila. Etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu 638 89 32 69 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaindu zein garbiketa eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 626 09 73 77

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen eta garbitasun lanetan jardungo nuke. Regina. 646 22 29 35

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Astebukaeretan. 627 15 09 34

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 90 55 82

**Debagoiena.** Neska euskalduna, eskarmentuduna eta erreferentzia onekin, nagusiekin lan egin edo umeak zaintzeko gertu. Baita garbiketa orokorrak egiteko ere. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gaztea lanerako gertu: nagusiak zaindu, sukaldean lagundu, garbitasun lana eta abar. Eskarmentuduna. 688 29 67 41

**Debagoiena.** Neska gertu astean zehar orduka edo asteburuetan lan egiteko. 659 90 85 13

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko. Orduka, egunez, gauetan edo etxean bertan bizi izanda ere bai. Erreferentzia onak daukat eta lanean berehala hasiko nintzateke. 638 93 11 48 edo 943 25 01 11

**Debagoiena.** Neska prest lanerako: ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Etxean bizitzen, orduka, egun osoz, gauez edo asteburuetan ere bai. Berehala hasteko aukerarekin. Erreferentzia onak. 619 96 54 76

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 666 69 26 07

**Oñati.** Neska euskalduna gertu egun erdiz ume zein nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua daukat. 677 05 39 06

**Umeak zainduko nituzke.** Leire. Aretxabaletakoa. Haur hezkuntza ikasketak amaitu ditut. Umeak zaintzen lan egingo nuke, posible bada Aretxabaletan, baina bailara osoan ere bai. 665 74 12 66

**Deba Garaia Inmobiliaria**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Sanantonabat, 75 $m^2$, oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 $m^2$, berritua, prezio onean.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- San Lorentzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berrizteko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko). 140 m2. Berria
- Bidekurutzeta. 78 m2. Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m2. Ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.**
- **Lorentxokon aukera ona.**
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 $m^2$. Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri, 75 m2, eguzkitsua, oso ondo.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Martoko. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 $m^2$. Terrenoarekin.
- Artekale 40 $m^2$. Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 $m^2$. Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 $m^2$. Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 $m^2$. Garajearekin.
- Burdiñate 53 $m^2$. 162.273 €.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 79 $m^2$. Berrria.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761€.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319€.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Herri Lagunak 52 $m^2$. Prezio ona.
- Zubiaurre 51 $m^2$. Terrazarekin. 102.000€.
- Zubiaurre 81 $m^2$. Igogailuarekin. 183.909€.
- Zubieta 55 $m^2$. Berritua. 150.000€.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 $m^2$. Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Ondarren garajea salgai. 36 $m^2$.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Dugun eskaera dela eta etxebizitzak behar ditugu alokatzeko**

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Mantentze industrialeko ikasle batek elektrizitateko eta elektro-hidraulikako eskola partikularrak hartuko lituzke. Inaki. 600 89 92 85 edo 943 79 43 75

### 502. EMAN

**Arrasate.** Neska euskalduna, LH, DBH eta Batxilergoko mailan eskola partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu: 677 75 12 90

**Arrasate.** Mondragon Unibertsitateko Leinn graduko ikasle talde bat enpresagintzako fakultatean bertan eskola partikularrak emateko prest gaude, LH eta DBH-ko ikasleei. Ordutegiari dagokionez negoziagarria da baina beti ere arratsaldetan beharko luke, 16:00etatik aurrera. Interesik izanez gero, deitu mesedez zenbaki honetara eta galdetu Oihanagatik. 685 76 92 05

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen dira ikasle zein irakaslearen etxean (poligonoa). LH eta DBH-ko edozein gai. Batxilergorako galdetu. Ingelesa edozein maila. Astean zehar 15:30etatik aurrera eta larunbat goizetan. Interesatuta bazaude deitu: 695 05 02 20

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26

**Informatika.** Informatika ingenerutza egindako neska prest programazio, datu base eta Photoshop-eko laguntzak eskeintzeko baita trebetasun gabeko nagusientzat, ordenagailuarekin hasteko laguntasuna. Interesatuta bazaude deitu 678 47 43 54 edo 943 76 50 97 telefono zenbakietara.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Rottwailer.** txakurkume bi saltzen dira. Arrak eta bi hilabetekoak. Prezio onean. 646 25 12 75

### 704. BESTELAKOAK

**Katuak.** Baserrirako katakumeak hartuko genituzke. 945 44 51 48

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Bizikleta txikia salgai.** Bi gurpiletan ikasteko oso apropo-sa. Kalitate onekoa eta egoera onean. 15 euro. 657 79 79 35

**Literak salgai.** Trenerako oheak salgai. Bi litera eta azpiko bat, guztira hiru ohe. Egur argia. Armairu handia ere badute ohe baten azpian. Egoera onean. Merke. 657 79 79 35

**Lursaila** salgai Bergaran. 16.000 metro koadrokoa. 30 urteko pinuekin. 653 71 66 87

**Lursaila** salgai Oñatin, Lamiategi auzoan, landetxe ondoan. Ura eta argindarra hartzeko aukera. 665 70 12 56

**Mobilhomea.** salgai Iratxeko kanpinean, Nafarroan. Interesatuok idatzi helbide honetara mj.urrataxi@hotmail.com edo deitu : 686 77 04 97

**Trabesiako botak.** Mendiko eskia egiteko botak salgai. Nordica TR-10. Hiru fijazio lotura. 27-27,5 neurrikoak (EU 42-42,5). Oso egoera onean. aitz2gain@yahoo.es

**Tronpeta salgai.** Egoera onean. 650 39 85 16

**Umeendako** bi maxi cossi, aulkiendako bi issofix, bi neguko zaku maxi cossi-endako eginak, mini kuma bat, Avent- en biberoi estirilizadorea eta kuma bat salgai. Dena batera edo banaka salduko genuke. Gutxi erabiliak. Prezio erdian saltzen ditut. 667 66 12 40

**Wii-a salgai.** Beltza. Gehigarri, kargagailu eta jokoekin. 2011-koa. 180 euro. 688 65 30 62

**Yamaha Clavinova pianoa.** Yamaha Clavinova pianoa salgai eta esertzeko banketa opari. Ondo zainduak. Pianoko hasierako 4-5 urteetarako oso apropoa. Deitu 20:00etatik aurrera. 653 73 78 58

### 802. EROSI

**Akordeoi** kromatika bat erosiko genuke. 652 40 14 17

**Lursaila** erosiko nuke Bergara, Onati edo Eskoriatza artean. 626 01 19 07

**Trikitixa** erosi edo alokatuko nuke. 686 02 07 40

### 804. HARTU

**Sofak.** Musakolako gaztetxokoan sofa beharrean gaude. Botatzeko badituzu, gustora asko hartuko genituzke. 943 79 54 46

### 807. AURKITU

**Patinetea Arrasaten.** Arrasateko Jokin Zaitegi plazan, patinete bat aurkitu nuen. Galdu baduzu, deitu zenbaki honetara: 605 71 50 14

### 808. BESTELAKOAK

**Eskerrik asko** urri hasieran nire Nortasun Agiria aurkitu eta enbaxadara bidalita helarazi didanari. Eskerrik asko benetan.

## ASTEA GOIENAN


DANTZAN.COM

### Argia dantza taldearen ikuskizun berria

*Aunitz Urtez* izeneko ikuskizuna estreinatu du Bilboko Arriagan Argia dantza taldeak. Ikuskizuna Juan Antonio Urbeltzen ideian dago oinarrituta, eta, besteak beste, bi ezpata-dantza ikusteko aukera izango dugu.

**'Gipuzkoa Kultura'**
Eguena, 22:15


BERTSOAK.COM

### G-Puntuko Oñati eta Villabonako saioak ikusgai

Asteburuan Gipuzkoako bertsolaritza txapelketako bi saio egingo dituzte: bata, Oñatin; eta bestea, Villabonan. Bada, bi saio horiek batuko dituen ordubeteko saioa eskainiko dugu Goiena telebistan eguaztenean.

**'Bertso saioa'**
Eguaztena, 20:46

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 21**

**12:30** Magazinea
**13:30** Marrazki bizidunak
**13:50** Kantari
**14:17** Onein
**14:45** Berriak
**15:12** Ikusmira
**15:42** Marrazki bizidunak
**16:12** Leku txiki bat
**16:42** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Ipupomamua
**18:15** Onein
**18:43** Berriak
**19:18** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Gipuzkoa kultura
**21:15** Magazinea
**22:15** Erreportajea: Antzerkia Arizkunen
**23:05** Magazinea

**ZAPATUA, 22**

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:30** Ipupomamua
**10:00** Dantza txapelketa
**10:35** Hamaika.bit
**11:03** Kantari
**12:03** Ur eta lur
**12:35** Onein
**13:02** Berriak
**13:17** Magazinea
**14:17** Gipuzkoa kultura
**14:47** Marrazki bizidunak
**15:22** Berriak
**15:37** Kantari
**16:37** Gipuzkoa kultura
**17:07** Markinako azoka
**17:32** Magazinea
**18:32** Marrazki bizidunak
**19:32** Ipupomamua
**20:02** Kantari
**20:32** Bertso saioa
**21:00** Hamaika.bit
**21:028** Espeleologia
**21:51** Dantza txapelketa
**22:26** Gipuzkoa kultura
**22:56** Magazinea
**23:56** Bertso saioa

**DOMEKA, 23**

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:00** Ipupomamua
**09:30** Kantari
**10:30** Marrazki bizidunak
**11:00** Bizitegia
**11:25** Bertso saioa
**11:53** Kantari
**12:20** Magazinea
**13:20** Onein
**13:47** Gipuzkoa kultura
**14:17** Markinako azoka
**14:42** Antzerkia: Alproja
**15:32** Marrazki bizidunak
**16:17** Kantari
**17:17** Berriak
**17:32** Bertso saioa
**18:00** Bizitegia
**18:30** Gipuzkoa kultura
**19:00** Berriak
**19:15** Magazinea
**20:15** Hamaika.bit
**20:45** Ur eta lur
**21:17** Dantza txap.
**21:52** Organo erromantikoa
**22:22** Magazinea
**23:22** Segurako dantza txapelketa
**23:57** Bizitegia

**ASTELEHENA, 24**

**12:25** Magazinea
**13:25** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Bertso saioa
**14:45** Berriak
**15:15** Erreportajea: Markinako azoka
**15:40** Hamaika.bit
**16:10** Segurako dantza txapelketa
**16:45** Berriak
**17:15** Ur eta lur
**17:47** Organo erromantikoa
**18:17** Marrazki bizidunak
**18:44** Berriak
**19:14** Kantari
**19:44** Magazinea
**20:44** Harmailatik
**21:29** Magazinea
**22:29** Harmailatik
**23:14** Gipuzkoa kultura

**MARTITZENA, 25**

**12:30** Magazinea
**13:30** Marrazki bizidunak
**13:50** Kantari
**14:17** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Bertso saioa
**15:43** Harmailatik
**16:26** Erreportajea: Espeleologia
**16:49** Berriak
**17:19** Bizitegia
**17:49** Harmailatik
**18:34** Marrazki bizidunak
**18:54** Berriak
**19:21** Kantari
**19:46** Magazinea
**20:46** Segurako dantza txapelketa
**21:21** Magazinea
**22:21** Bertso saioa
**22:49** Magazinea
**23:49** Gipuzkoa kultura

**EGUAZTENA, 26**

**12:30** Magazinea
**13:30** Harmailatik
**14:15** Kantari
**14:45** Berriak
**15:15** Gipuzkoa kultura
**15:45** Hamaika.bit
**16:13** Ipupomamua
**16:43** Berriak
**17:13** Bizitegia
**17:40** Erreportajea: Espeleologia
**18:03** Harmailatik
**18:46** Berriak
**19:16** Kantari
**19:46** Magazinea
**20:46** Bertso saioa
**21:41** Magazinea
**22:41** Organo erromantikoa
**23:11** Magazinea

**EGUENA, 27**

**12:30** Magazinea
**13:30** Marrazki bizidunak
**14:00** Kantari
**14:30** Erreportajea: Espeleologia
**14:53** Berriak
**15:23** Onein
**15:50** Erreportajea: Markinako azoka
**16:16** Bizitegia
**16:43** Berriak
**17:13** Kantari
**17:43** Bertso saioa
**18:38** Erositaikasi
**18:48** Berriak
**19:18** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Hamaika.bit
**21:15** Magazinea
**22:15** Gipuzkoa kultura
**22:45** Magazinea
**23:45** Bertso saioa

## ARRASATE IRRATIA

### 'Martin Larralde' liburu eta diskoa zozketan

Eneko Barberena eta Mikel Oceja arrasatearrek egindako *Martin Larralde* izeneko liburu eta diskoa zozketatuko dugu datorren astean. Parte hartu 943 25 05 05 telefonora deituta edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

### 'Nere gorputzaren bila' tailerrari buruzkoak 107.7an

Arrasateko Emakume Txokoak azarorako antolatutako tailerraren berri jasoko dugu datorren astean *Igo autobusera!* irratsaioan. *Nere gorputzaren bila* izeneko tailerrari buruzkoak Josune Montonek emango dizkigu 107.7an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 22** | LOURDES AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Domeka, 23** | ANA ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Astelehena, 24** | AURORA RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Martitzena, 25** | ERKUDEN ETXEBERRIA | Zarugalde, 42, 44 | 943 77 16 30 |
| **Eguaztena, 26** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguena, 27** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Egubakoitza, 28** | ANA FDEZ. CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 22** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Domeka, 23** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Astelehena, 24** | MERCEDES GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Martitzena, 25** | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguaztena, 26** | L.ALVAREZ-M.MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Eguena, 27** | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Egubakoitza, 28** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 22** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Domeka, 23** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Astelehena, 24** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 25** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguaztena, 26** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguena, 27** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Egubakoitza, 28** | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA / ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 22** | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Domeka, 23** | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Astelehena, 24** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Martitzena, 25** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Eguaztena, 26** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Eguena, 27** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Egubakoitza, 28** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2011 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera. Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA


**Max. 20º**
**Min. 6º**


**Max. 19º**
**Min. 5º**

**ZAPATUA, 22**
Goizaldeko hotza eta behe-lainoa desegin ostean, zeru-gaina txukun agertuko da egun osoan zapatuan.

**DOMEKA, 23**
Tenperaturan ez da aldaketa handirik egongo, pixka bat hotzituko duen arren. Zeruan lainoak nagusitzen joango dira.

### EUSKAL HERRIA



Eguraldiak hobera egingo du zapatuan eta domekan pixkanaka-pixkanaka okertuz joango da.

## OROIGARRIA

### Mikel Odriozola Igartua



Oñatin hil zen 2005eko urriaren 17an, 50 urte zituela.

Zure oroimenak indartzen gaitu.

**Aitzabal elkartea.**
**Oñatin 2011ko urriaren 21ean.**

## MEZA

### Encarna Maiztegui Jauregialzo



Baionan hil zen 2011ko urriaren 10ean, 86 urte zituela.

Haren aldeko meza zapatuan, urriaren 22an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera etorriko zaretenoi eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**





## Jesus eta Esther

Jesus Goñik eta Esther Farrasek urriaren 22an urrezko ezteiak sendiarekin batera ospatuko dituzte meza eta bazkaria eginda. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.





## Felisa eta Antonio

Felisa Eguren eta Antonio Zuazua 1961eko urriaren 14an ezkondu ziren Elorrion. "Urrezko ezteietan, zorionak eta patxo handi bana, etxeko guztion partetik".





## Arantxa eta Juan Carlos

Arantxa eta Juan Carlos Olatzeko ermitan ezkondu zirela 25 urte beteko dira urriaren 25ean. "Zorionak eta urte askotarako. Muxu handi bana Aitor eta Olaiaren partetik".



## Arantza eta Javier

Arantza Galdos eta Javier Jauregi 1971ko urriaren 15ean ezkondu ziren Arantzazuko santutegian. Asteburu honetan ospatuko dute 40. ezkon-urteurrena, Arantzazun meza nagusia entzun eta ondoren Zelai Zabal jatetxean bazkalduta. "Zorionak, bikote, eta patxo handi bana, etxeko guztion partetik. Zoriontsu izaten jarrai dezazuela!".

## HILDAKOAK

**Encarna Maiztegi Jauregialzo.** Baionan, urriaren 10ean. 86 urte.
**Genaro Jauregi Mendizabal.** Antzuolan, urriaren 13an. 92 urte.
**M. Teresa Anduaga Madina.** Arrasaten, urriaren 14an. 82 urte.
**Santiaga Balsera Tena.** Arrasaten, urriaren 15ean. 90 urte.
**Angel Bideluze Barandiaran.** Bergaran, urriaren 15ean. 86 urte.
**Juan Arregi Lizaur.** Arrasaten, urriaren 16an. 92 urte.
**Josefa Toledo Zabala.** Arrasaten, urriaren 17an. 88 urte.
**Jose Maria Mendialdua Elorza.** Aramaion, urriaren 17an. 74 urte.
**Maxima Agirrebengoa Elorza.** Arrasaten, urriaren 18an. 80 urte.
**Elena Luarizaristi Iñarra.** Bergaran, urriaren 18an. 85 urte.



## Carlos eta Raquel

Nire gurasoak ezkonduko dira, azkenean! Ezkontza Eskoriatzako museoan izango da urriaren 22an, zapatuan, 12:30ean. Ondo-ondo pasatu, Manex eta familiaren eta lagunen partetik!



## Aitor eta M. Carmen

Aitor eta M. Carmen urriaren 15ean ezkondu ziren. Nork esan behar zuen azkenean ezkondu egin behar zutela. Zorionak, bikote, Alaitz, Eñaut, Unai eta Haizearen partetik.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



## Mikel eta Aitziber

Aitziber eta Mikel oñatiarrak datorren zapatuan, urriak 22, ezkonduko dira Santa Lutziako ermitan. Zorionak, bikote, familiaren eta lagunen partetik. Egun polita izan eta oso ondo pasatu eztei-bidaian!



## Roberto eta Patricia

Arrasateko udaletxean ezkonduko dira urriaren 22an. Zorionak, bikote! Ondo pasatu eztei-bidaian eta zoriontsuak izan! Salamancako koadrila eta Artz! *Guau*! Eta bereziki familiaren partetik, zorionak eta zure egunez gozatu... *1dolar, 1dolarin, 1dolarin!*

ESKER ONA

## Genaro Jauregi Mendizabal



Antzuolan hil zen 2011ko urriaren 13an, 92 urte zituela.

Lerro hauen bidez Genaroren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*ez zaitugu inoiz galduko*
*gure bihotz barrenean*
*eramango zaitugu betiko.*

**Antzuolan, 2011ko urriaren 21ean.**

ESKER ONA

## Jose Maria Mendialdua Elorza



2011ko urriaren 17an hil zen, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

**Aramaion, 2011ko urriaren 21ean.**

ESKER ONA

## Maxima Agirrebengoa Elorza

Patricio Ayastuyren alarguna



Arrasaten hil zen 2011ko urriaren 18an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko.

**Agirrebengoa eta Aiastui sendiak.**
**Arrasaten 2011ko urriaren 21ean.**

**OÑATI Bertsolari txapelketa**
Gipuzkoako bertsolari txapelketako lehen final-laurdena jokatuko dute bihar Beñat Lizaso, Agin Rezola, Iban Urdangarin, Iñaki Gurrutxaga, Iñaki Zelaia eta Jexux Mari Irazu bertsolariek. Sarrerak kiroldegiko txarteldegian edo *bertsosarrerak.eu* webgunean eros daitezke aldez aurretik.
Bihar, Zubikoan, 17:30ean.


GPUNTUA.COM


FLICKR @ARRANO

**ARRASATE Santi Brouardi buruzko omenaldia**
*Argia egunak* ospatuko dituzte eta AED dabil laguntzaile. Lehenengo, *Santi Brouard, Duintasuna omen* hitzaldia izango da. Ikus-entzunezkoaren ostean, Xabier Zubizarreta *Txiron*-ekin solasalditxoa egongo da.
Eguaztenean, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 19:00etan.

# NON-ZER

URRIA 21
URRIA 27

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## MUSIKA

**BERGARA Euskal kantu txapelketa**
Gipuzkoako XV. euskal kantu txapelketa. Sarrerak 5 eurotan daude salgai.
Urriaren 23a, domeka Zabalotegiko aretoan, 18:00etan.

**ARRASATE Herri kantuak Portaloi elkartearen eskutik**
Portaloi herri kantu eta dantza elkarteak antolatuta, kantaldi irekiak egingo dira domeka honetan Kulturaten. Gero, kalez kale egingo dute kantuan, azarotik aurrera eta hilean egubakoitz baten. Irteerak ere aurreikusi dituzte, besteak beste, Donostia, Gernika, Otxandio, Eibar eta Iruñera.
Urriaren 23a, domeka, Kulturaten, 18:00etan.

**ARETXABALETA Betagarri, Xutik eta Zain taldeen kontzertua**
Loramendi elkartea 25. urteurrena gertatzen hasiko da (abenduaren 17an ospatzeko) eta kontzertua antolatu dute hasteko: Betagarri, Xutik eta Zain taldeek joko dute.
Urriaren 22a, zapatua, Herriko Plazan, 21:30ean.

**BARAKALDO Leize taldeak disko berria aurkeztuko du**
Leize heavy rock talde mitikoak disko berria dauka kalean, *¡Lo que faltaba!* izenekoa. 80ko hamarkadako heavy rock talde esanguratsuetako batek 2007an berriro taula gainera bueltatzeko erabakia hartu zuen 10 urteko isilunearen ostean. Orain, lan berriarekin datoz eta Oñatiko bateria-jotzaile berriarekin bueltan dira. Lagash eta Rock Privado taldeetan ezagutu genuen Andoni Regueiro da Leize taldeko kide berria. 20:30ean Leize taldearen zuzenekoa hasiko da eta 22:00ean Obus taldearena.
Urriaren 22a, zapatua, Barakaldoko Rock Star aretoan, 20:30ean.

**BERGARA Philippe Laurent saxo-jolea eta Martin Moro organo-jolea**
Nazioarteko organo kontzertuen XII. zikloaren barruan antolatutako emanaldia. Emanaldi sortako azkena izango da.
Urriaren 22a, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:00etan.

**BERGARA DJ jaialdia Jon Urbietarekin**
DBHko ikasleendako saioa egingo du Jon Urbietak, zapatuan, hilaren 22an. Nerabeei zuzendutako saio izango da.
Urriaren 22a, zapatua, Zabalotegi aretoan 18:30ean.

## ANTZERKIA

**ANTZUOLA Virginia Imazen antzezlana: 'Abuelas'**
Erretiratuen Kultura Astearen barruan. Jubilatu elkarteak antolatuta
Urriaren 25a, martitzena Torresoroa17:00etan

**ARRASATE 'Sensormen' antzezlana Amaian**
Yllana antzerki taldeak *Sensormen* antzezlana eskainiko du Amaian. Bulbul taldearekin elkarlanean ekoiztutako lana da. Komedia bat da, antzezlana, musika, perkusio eta eszena planteamendua duena.
Urriaren 23a, domeka, Amaian 19:30ean.

**ARETXABALETA 'Antartikako lorea' umeendako ikuskizuna**
Erre produkzioak taldeak *Antartikako lorea* ikuskizuna eskainiko die 5 urtetik aurrerako neska-mutikoei. Sarrera, 3 euro.
Urriaren 23a, domeka, Arkupeko Zaraia aretoan 17:00etan.

**ANTZUOLA Antzerkia Goio Arrietaren eskutik**
*Harri irratixe II.* Bere bigarren bakarrizketaren estreinaldia izango da.
Gaur, egubakoitza, Torresoroan 22:00etan.

**BERGARA 'Atsoak dantzan'**
Pikor Teatro taldearen antzezlana, bi emakume edadeturen ihesa kontatzen duena. Kale antzerki emanaldia da, eta San Martin plazan hasiko da.
Gaur, egubakoitza, kalean, 19:00etan.

**BERGARA 'Problemas de pareja: la solución, aquí'**
Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko kideek osatzen duten Ikusi Makusi taldearen antzezlana da. Bergarako erretiratuek antolatutako kultur hamabostaldiaren barruan kokatzen da ekitaldia. Sarrera doan.
Urriaren 21a, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 17:30ean.

## BERTSOLARITZA

**ESKORIATZA 'Bertsomeriendak' gaztelekuan**
Ikasturte berriarekin batera, *bertsomeriendak* egingo dituzte Eskoriatzako gaztelekuan. Aurten, Arrasateko Maddi Labayenek gidatuko ditu saio horiek.
Urriaren 21a, egubakoitza, Gaztelekuan 18:30ean.

**ARAMAIO Bertxoko bertso txapelketa**
Arabako Bertsolari Elkarteak eta Hala Bedi irratiak antolatutako sariketaren finala Aramaion. Manex Agirre eta Iñaki Viñaspre izango dira aurkezleak.
Urriaren 25a, martitzena, Iturrieta sagardotegian.

## HITZALDIAK

**ANTZUOLA Entzumenaren gaineko hitzaldia, GAESen eskutik**
Erretiratuen elkarteko Kultura Astearen barruan. Ondoren merienda eta kina egingo dituzte. Ezinbestekoa da meriendara joateko izena ematea izanda ,aurrez.
Urriaren 26a, eguaztena , elkartean 16:30ean.

**BERGARA "Ladakh, el pequeño Tibet"**
Hitzaldia euskaraz. Kutxaren laguntzarekin antolatuta. Sarrera doan.
Urriaren 21a, egubakoitza Ubera auzoko eskola etxean, 20:00etan.

**ARRASATE Kafe-tertulia, feminismoa hizpide**
*Feminismoaren erronkak Arrasaten* izeneko solasaldia egingo dute world-cafe estiloan.
Urriaren 21a, egubakoitza, Seber Altube plazan, 17:00etan.

## BESTELAKOAK

**ARETXABALETA 'Durana Fashion Day' moda desfilea**
Moda desfilea egingo dute Durana kalean Belar Meta jantzi-dendak antolatuta. Harekin batera herriko beste jantzi-denda batzuek hartuko dute parte: Haurrak eta M-5. Disko jartzailearen musikak girotuko du ekitaldia eta jatekoa eta edatekoa ere egongo da UDAkoen eskutik.
Urriaren 21a, egubakoitza, Durana kalean 18:30ean.

## ZINEMA

**ARETXABALETA 'Andrei Rublev'**
Kanpaien gaineko jardunaldien barruan Andrei Tarkovskik 1966an zuzendutako Andrei Rublev filma emango dute. Sari asko jasotako filma da, klasikoetako bat, zuri-beltzean egina eta azpitituluekin (180 minutu). Sarrera, 2 euro.
Urriaren 22a, zapatua, Arkupeko Zaraia aretoan 18:00etan.

**OÑATI 'Bertsolari'**
Asier Altunaren filma asteburuan ikusgai, Oñatiko Kultura Etxeko zinema aretoan. Bertsolaritzari buruz egindako film dokumentala da, zeresan handia eman duena. Egubakoitzetik martitzenera arte. Egubakoitzean eta zapatuan, 22:30ean; domekan, bi saio, 19:30ean eta 22:30ean; eta, astelehen eta martitzenean, 19:30ean.
Gaur, Kultura etxeko aretoan, 22:30ean.

**ELGETA Zea Mays eta Split77**
Zea Maysek inoizko unerik gozoenean jarraitzen du; jarraitzaileen leialtasuna irabazita, euren abestiak oso ezagun egin dira azkenaldian. Split77 taldea, ostera, oholtzetara itzuli berria da *Split77* disko bikainarekin eta sasoirik ez dutela galdu garbi utzita. Bilbotik Elgetara, rocka ikusteko bi era oso desberdinekin.
Gaur, Espaloian, 22:30ean.


SPLIT77



GOIENA.NET/BLOGAK/TERMITAK

**ARETXABALETA Txistulari Eguna**
Leintz bailarako txistulariek (tartean oñatiarrik badago ere) topaketa ospatuko dute domekan. II. Txistulari Eguna izango da aurten, iaz Eskoriatzan ospatu eta gero, aretxabaletarrei lekukoa emanda.
Domekan, herrian zehar, 10:30ean hasita.

## DEIA

**ARETXABALETA Odol ateratzea**
Arabako odol bankuko kideak izango dira osasun etxean odola ateratzen.
Urriaren 24a, astelehena, Osasun etxean 16:15ean.

**ARRASATE 1967an jaiotakoak**
*Kintada* antolatzen dabiltza afariarekin. Interesa dutenek deitu Mirariri, Portaloi Optika 943 79 65 56, ala Mariari, Xalo ile-apaindegia, 943 77 07 66.
Azaroaren 5ean.

## IKASTAROAK

**ARETXABALETA Biodantza**
Hastapen taldea osatzeko deia. Jaiki elkarteak eta Aretxabaletako Udalak antolatu dute ikastaroa. Lehen saioa, datorren eguenekoa, irekia izango da nahi duenarentzat. Eskola erregularrak ere eguenetan izango dira. Harremanetarako: 644 35 10 40, 665 731 766 telefonoetara deitu.
Urriaren 27a, eguena, kuartel zaharrean.

**ARRASATE Saltzaile teknikoa**
Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak antolatuta, saltzaile teknikoak prestatzeko ikastaroa, azaroaren 14tik urtarrilaren 19ra, goizez 9:00-14:00. Baldintzak: langabeak (LANBIDEn izena emanda), batxilergo edo LHII maila edo salmenten esperientzia. Izena emateko: Enplegu Zerbitzuan, 943252070 edo *enplegu@arrasate-mondragon.net-*
Azaroaren 4ra arte eman daiteke izena Enplegu Zerbitzuan.

**ARRASATE Sorospena eta lehen laguntzak**
40 orduko ikastaroa izango da eta titulu ofiziala eskuratzeko balio du. Debagoieneko Gurutze gorria arduratuko da ikastaroa emateaz.
Izenematea zabalik, Gurutze Gorrian bertan.

**BERGARA Keinuen hizkuntza**
Urtarrilean hasiko den ikastarorako matrikulazio epea irekita dago. Interesatuek 943 764 648 telefono zenbakira deitu behar dute eta bertan galdetu behar da xehetasunei buruz.
Urtarriletik aurrera, Aransgik antolatuta.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Ramon Arantzabal**
*Gau magikoa Muniben performance*an erabilitako olioen erakusketa. Margoak 17 dira, horietatik 3 neurri handikoak (3x3 m, 8x2 m eta 6x2). Azken hori Aranzadiko fatxadan ipini dute, erakusketaren iragarki moduan. Ikuskizunaren bideo eta argazkiak ere daude ikusgai eta artistaren katalogoa ere eros daiteke. Martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan, ostera, 12:00etatik 14:00etara.
Hile amaierara arte Aroztegi aretoan.

**ARRASATE Covadonga Valdés**
Margolariaren 18 lan inguru daude ikusgai; gehien bat, olioek eta paisaiek osatuta.
Arregi margo dendan, gaurtik aurrera.

## KIROLA

**ESKORIATZA XXII. Mendi Bizikleta Ibilaldia**
Izen-ematea egunean bertan egin beharko da 08:15ean. Federatuak 10 euro eta ez-federatuak 15 euro. (Federatuek txartela erakutsi behar dute).
Domekan, herriko plazan, 09:00etan (izenematea 08:15ean).

## LEHIAKETAK

**ESKORIATZA 'Eskoriatzako txokoak' argazki lehiaketa**
Eskoriatzako Udalak herriko bost postal argitaratu gura ditu, herriko hainbat dendatan salgai jartzeko eta postalak egiteko irudiak edo argazkiak aukeratzeko argazki lehiaketa antolatu du. Argazki bakoitza posta elektroniko bakarrean bidali beharko da helbide honetara: *kultura@eskoriatza.net*. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere 10 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Posta elektroniko bidez bozkatzeko epea 2011ko azaroaren 1ean hasiko da 20an amaitu.
Azaroaren 1era arte, *Eskoriatza.net* gunean.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La boda de mi mejor amiga**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Las manos en el aire**
Martitzena: 20:30.

**Phineas y Ferb**
Zapatua: 17:00.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Bertsolari**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Andrei Rublev**
Zapatua: 18:00.

### EIBAR

**COLISEO 1**

**La cara oculta**
Barikua:22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena; 20:30.
Martitzena: 20:00.

**COLISEO 2**

**Intruders**
Barikua:22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena; 20:30.
Martitzena: 20:00.

**COLISEO ANTZOKIA**

**Contagio**
Barikua:22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena; 20:30.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Crazy, stupid, love**
Barikutik eguenera: 16:00.

**Johnny English returns**
Barikutik eguenera: 18:25, 20:30, 22:40.

**Mientras duermas**
Barikutik eguenera: 16:00, 18:10, 20:25, 22:45, 00:50.

**Los tres mosqueteros**
Barikutik eguenera: 15:50, 18:05.

**Intruders**
Barikutik eguenera: 20:20, 22:30.

**Los tres mosqueteros 3D**
Barikutik eguenera: 15:50, 18:00, 20:10, 22:25.

**Phineas & Ferb a través de la segunda dimensión**
Barikutik eguenera: 16:20, 18:20.

**No habrá paz para los malvados**
Barikutik eguenera: 20:20, 22:40.

**Paranormal activity 3**
Barikutik eguenera: 16:10, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**La voz dormida**
Barikutik eguenera: 16:30, 19:30, 22:15, 00:45.

**La cosa (The thing)**
Barikutik eguenera: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

**Contagio**
Barikutik eguenera: 16:00, 18:15, 20:25, 22:35, 00:50.

**Enredados**
Barikutik eguenera: 16:10, 18:20.

**Sin salida (Abduction)**
Barikutik eguenera: 20:25, 22:40, 01:00.

**Tentación en Manhattan**
Barikutik eguenera: 16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**El sueño de Iván**
Barikutik eguenera: 16:20, 18:20.

**One day (Siempre el mismo día)**
Barikutik eguenera: 20:30, 22:45, 01:00.

**FLORIDA**

**La voz dormida**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El árbol de la vida**
Barikutik eguenera: 17:30, 22:30.

**Urte berri on amona**
Barikutik eguenera: 20:15.

**No habrá paz para los malvados**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Otra tierra**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Un gato en París**
Barikutik eguenera: 18:00.

**Nannerl, la hermana de Mozart**
Barikutik eguaztenera: 20:00, 22:30.
Eguena: 22:30.

**De mayor quiero ser soldado**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Another year**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**GURIDI**

**Marginal call**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Contagio**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00.

**Intruders**
Barikutik eguenera: 22:30.

**Paranormal activity 3**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Tentación en Manhattan**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**La cosa**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Sin salida**
Barikutik eguenera: 18:00, 22:30.

**Bertsolari**
Barikutik eguenera: 20:15.

**Mientras duermes**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**GORBEIA**

**La voz dormida**
Barikua, zapatua eta astelehena: 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.
Domeka, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**La cosa (The thing)**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:50.

**Tentación en Manhattan**
Barikutik eguenera: 17:50, 19:50, 21:50.
Bariku eta zapatuan, baita: 23:50.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:50.

**Paranormal activity 3**
Barikutik eguenera: 18:10, 20:10, 22:10
Bariku eta zapatuan, baita: 00:10.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:10.

**Margin call**
Barikutik eguenera: 17:50, 20:05, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:35.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:35.

**Contagio**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.

**Mientras duernes**
Barikutik eguenera: 17:40, 19:50, 22:00.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:10.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.

**Sin salida (Abduction)**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:50.

**One day**
Barikutik eguenera: 20:00, 22:10
Bariku eta zapatuan, baita: 00:20.

**Another year**
Barikutik eguenera: 19:55.

**Crazy, stupid, love**
Barikutik eguenera: 22:15.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:33.

**Intruders**
Barikutik eguenera: 22:15.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:35.

**Con derecho a roce**
Barikutik eguenera: 17:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:35.

**La deuda**
Barikutik eguenera: 21:45.
Bariku eta zapatuan, baita: 23:55.

**Johnny English returns**
Barikutik eguenera: 18:15, 20:20, 22:25.

**Los tres mosqueteros**
Barikutik eguenera: 17:45.

**Los tres mosqueteros 3D**
Bariku eta zapatuan: 00:30.
Zapatuan eta domekan: 15:50.

**No habrá paz para los malvados**
Barikutik eguenera: 17:45, 20:00, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:40.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.

**La piel que habito**
Barikutik eguenera: 18:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40.

**Phineas y Ferb**
Barikutik eguenera: 17:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.

**El sueño de Iván**
Barikutik eguenera: 19:45.

**El capitán trueno**
Zapatuan eta domekan: 15:50.

## KRITIKA

**BERTSOLARI** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Asier Altuna.
**Herrialdea:** Euskal Herria.
**Urtea:** 2011.
**Aktoreak:** Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Joseba Zulaika, John Miles Foley.
**Iraupena:** 90 minutu.



# Antzinakoa eta modernitatea

Asier Altunak egin duen film dokumentalean bertsolaritzak duen antzinako jatorriari buruz hitz egiten bazaigu ere, garbi uzten du ez dela gauza bera urte asko izatea eta zaharra izatea. Bertsolaritzak denbora pasatzen den neurrian bere jatorrizko ezaugarriak mantendu baditu, hau da, ez badu oinarria galdu, garaien aldaketetara moldatzen ahalegindu delako da. Filmean, hiru belaunalditako bertsolariak elkarrekin bertsoak botatzen eta adiskide izaten ikusten da. Bertsolaritza zer den, nondik datorren eta nora doan azaldu nahi zaigu. 85 minutu ez dira gehiegi sakoneratan sartzeko, baina bai ideia desberdinak azaltzeko: bertsolaritzan inspirazioari buruz hitz egiten bada, honen alde teknikoa ere aipatzen da; duen alde berdingabea edo berezia erakusten bada, aldi berean ikusten dugu betidanik izan den ahozko kulturaren barruan dagoela, eta *chauvinismo*–an erortzeko arriskua gainditzeko kanpoko adituen iritziak eta ikuspuntuak ere ematen zaizkigu. Garai berriei lotuta, Maialen Lujanbiok irabazi duen azkeneko txapelketari garrantzi handia emanez, emakumeek bertsolaritzan egin duten bidea eta lortu duten tokia ere agertzen da.

*Bertsolari* ikusterakoan burura datorkit Julio Medemen *La pelota Vasca*. Donostiako zuzendariaren lanak ukitzen zuen gaia askoz polemikoagoa bazen ere, gaiari buruzko testigantza ugari izateak, estetikoki paisaiari ematen zaion garrantziak, irudi politak sortzeaen nahiak eta alde metaforikoarekin jokatzeak bi lanak elkartzen ditu. Dokumentalaren alde estetikoari emandako garrantzia argia da. Altunaren filmak batez ere kanpokoei balioko die bertsolaritza zer den jakiteko; hemengoei ez digu berritasun gehiegi ekartzen baina esan nahi dena ondo azalduta dago eta informazioari emandako ukitu artistikoarekin, gustura ikusten den filma osatu du Altunak.

ANTONIO ZABALA




goiena"
2011-10-21
**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

# AEBetan ere kooperatibismoari begira

- Movin Images ekoizpen–etxea kooperatibismoaren inguruko erreportajea grabatzen ibili da gurean
- Bizi dugun krisi ekonomiko globalean aurrera egiteko modu bat izan daitekeela uste dute

**ARRITXU BARRUSO** | ARRASATE

Telebistarako lanak egiten dituen Moving Images ekoizpen-etxe estatubatuarra gurean izan da egunotan. Mendebaldeko herrialde garatuetan bizi dugun krisi ekonomiko globalaren aurrean, kooperatibismoak zelan irauten duen aztertzen dabiltza. Hala, gurera etorri dira, bereziki, Mondragon Taldeko kooperatiben eredua bertatik bertara ezagutzeko.

Otsailean, Hego Koreako telebista publikoko taldea izan zen Debagoienean erreportajea grabatzen; Arrasateko kooperatibek jakingura sortzen duten seinale: "Kooperatibismoaren inguruko erreportajea egiten hasi ginen Ameriketako Estatu Batuetan, han ere baditugu-eta adibide batzuk: Evergreen Cooperatives (Ohio), Isthmus Engineering and Manufacturing (Wisconsin) eta Cooperative Home Care Associates (New York). Dena dela, ez dira lan-kooperatibak eta atentzioa ematen zigun Arrasateko esperientziak. Mondragon Taldearen laguntza eta prestutasuna handia izan da eta hemen gaude. Esperientzia zoragarria izan da. Hainbat enpresa bisitatu ditugu, baita unibertsitatea eta Lagun Aro eta Caja Laboral erakundeak ere. Orain konturatzen gara oso funtzionamendu konplikatua daukatela kooperatibek eta elkarren artean konexio asko dituztela", kontatu digu Melissa Youngek, Moving Images ekoizpen-etxeko zuzendariak.



Melissa Young eta Mark Dworkin, Fagor Etxetresnak enpresan. | ARRITXU BARRUSO

### Krisiari aurre egiteko bide bat

Bizi dugun mundu mailako krisi ekonomiko honetan, Youngek uste du kooperatibismoa aurrera egiteko modu bat izan daitekeela: "Bai, noski. Langabezia tasa oso handia da eta jendea alternatiba baten bila dabil, enpresa berriak eta proiektu berriak martxan ipintzeko alternatiba demokratikoagoen bila. Badakit ezin dela hemengo eredua bere horretan AEBetara eraman, baina asko ikas dezakegu eta inspirazio iturri bat izan daiteke".

### Udazkenean estreinatuko da

Melissa Young, Marco Dworkin eta Antonio Harrah Movin Images ekoizpen-etxeko kideak dira, eta, era berean, Seattle-en dagoen irabazi asmorik gabeko erakunde bateko kideak. Orain dela 25 urte hasi ziren kazetaritza arloan eta ordutik hona hamaika erreportaje eta dokumental egin dituzte, gehienetan gai sozialak jorratuta. Euren lanak batez ere AEBetako PBS telebista publikoan eskaintzen dira, baina, gainera, dokumentalek hedapena izaten dute unibertsitate eta eskoletan. Hain justu ere, Melissak eta Marcok sari asko irabazi dituzte ikus-entzunezkoen arloko jaialdietan.

Gure kooperatibetan eta AEBetan grabatutako irudiekin 56 minutuko dokumentala osatuko dute eta 2012ko udaberritik aurrera aurkeztuko dute zenbait jaialditan. PBS kateak ere eskainiko du 2012an, kooperatiben nazioarteko urtean.

AZKEN BERBA



MIKEL IRIZAR

## Oraingoan bai

Ez da oso luzea, baina bai mardula bere sinpletasunean. Eta ez da asko aldentzen orain baino lehen ezagutu ditugun proposamenetatik, baina oraingoak hurrenkera argia ezartzen die aldeek egin beharreko urratsei. Itxura guztien arabera, Donostiako konferentzia mugarria izan daiteke –oraingoan bai– atzera bueltarik ez duen bidean.

Bi arrazoi ikusten ditut baikortasunerako: lehena, ezker abertzalea etengabe aurrera egiteko erakusten ari den erabaki argia, sasi guztien gainetik. Irudipena daukat orain baino lehen abiatu diren prozesuetan ez dela egon oraingoan nabari den barne-sendotasuna esparru horretako kolektibo ezberdinen artean.

Eta bi, bake konferentziak berak eman duen irudia: nazioarteko ordezkari garrantzitsuak, mugaren bi aldeetako alderdi gehienak, euskal sozialisten derrepenteko ziaboga... Indar asko ikusi dut hor metatuta, nahikoa –espero dut– adierazpenak eskatzen dituen urratsak eragiteko.

Horregatik, mundua hankaz gora jartzen ari den honetan, gauza ederra da gurean ilusioa pizten duten albisteak jasotzea, gero eta sarriago. Gurdiari denok bultz egiteko ordua da, oraingoan bai, koska hau gainditu dezagun.



*Eramaan dotoretasuna zure etxera*

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51